

Zu hemen zaude. goiena

puntua

Trans Logea: nork bere generoa erabaki ahal izateko

Juan Izukiza Irakasleari elkarriketa



Gerrako umeei aitortza

Frontean borrokatu ez baziren ere "gerran gehien sufritu zuten" haurrei omenaldia egingo diete gaur eta bihar eskualdeko bost herritan / 4



Omenduko dituzten gerrako hainbat ume debagoiendarren erretratsak eta horietako batzuen umetako argazkiak. INTXORTA 1937

Zilarrezko LEB Mailan aritzeko igoera fasea jokatzeko txartela eskuratu du Ointzeko talde nagusiak / 14

SINADURAK

- | | | | |
|--|---------------------|--|----------------------|
| | PATXI OLABARRIA / 6 | | IÑAKI FERNANDEZ / 34 |
| | RAMON UGALDE / 11 | | MIKEL IRIZAR / 48 |



Udal langileen elkarretaraztea, atzo, Arrasateko Seber Altube plazan. TXOMIN MADINA

Behin-behinekotasuna salatu dute sektore publikoko langileek / 4

SEAT ATECA


DISFRUTATU TEKNOLOGIAZ!

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 30 • ARRASATE • 943 71 18 70

**KORONABIRUSA****Intzidentzia-tasaren eboluzioa**


DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA ETA NAFARROAKO GOBERNUA

**Bailarako herrien intzidentzia tasa**

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA

14 EGUNeko TASA
100.000 biztanleko

- >=400
- 300-399
- 60-299
- < 60



Elgeta da 400etik beherako tasa duen eskualdeko herri bakarra

Herri horretan ez dute kutsaturik izan urtarrilaz geroztik, eta intzidentzia-tasa hutsean dago. Gainontzeko herriek 400etik gorako tasa dute; Bergara eta Leintz Gatzaga azken egunetan batu dira, nahiz eta neurriak indarrean ez dauden

Maialen Santos ARRASATE

Joan den egunetik eguazten honetara arte, 266 kasu positibo baieztatu dituzte Debagoiengan, joan den astean baino 35 gutxiago -301 izan ziren-. Gauzak horrela, dagoeneko 6.972 debagoiendar kutsatu ditu gaitzak.

Herrika, Oñati izan da, bigarren astez jarraian, positibo gehien erregistratu dituen (93), eta aurreko zazpi egunetan baino bi kasu gehiago izan dituzte. Herri horretan baheketa egin zuten astelehenean, apirilaren 7tik aurrera Olakua tabernan egon ziren bezero gutzien artean. Orotara, 227 herritarrek hartu zuten parte, eta lau positibo baieztatu. Osasun zentrotik adierazi dute herritarrengandik "erantzun ona" jaso dutela bahe-

ketaren parte-hartzeari dagokionez. Oñatiko alkateak, Izaro Elorzak, adierazi du ez duela aurrera begira beste baheketa bat deitzeko aukera baztertzen.

Arrasatek 79 kutsatu hauteman ditu azken egunetan, joan den astean baino hamaika gutxiago. Kutsatu gehien baieztatu dituzten artean, zerrendan hurrena da Bergara (36), eta jarraian daude Aretxabaleta (29), Eskoriatza (14), Antzuola (7), Aramaio (7) eta Leintz Gatzaga (1). Elgeta izan da azken egunetan positiborik baieztatu ez duen herri bakarra. Zehazki, urtarrilaren 27tik ez dute herri horretan kasurik hauteman. Antzeko egoeran egon da Leintz Gatzaga orain artean; izan ere, azkenengoz, urtarrilaren 10ean baieztatu

zuten positibo bat. Aurreko domekan, baina, kasu berri bat izan zuten herrian, pandemia hasi zenetik bederatzigarrena.

Osasun Sailaren semaforoaren sistemari jarraiki, Debagoieneko herri handi guztiak -5.000 biztanletik gorakoak- ageri dira gorritz margotuta. Aste honetan batu da herri gorrien zerrendara Bergara, 400etik gorako intzidentzia-tasa erregistratu delako. Nolanahi ere, gogoratu behar da ez dela neurri murriztailerik indarrean jarriko, asteleheneko buletinean agertzen diren herriek bakarrik bete behar baitituzte Jaurlaritzaren neurriak. Hala, astelehenean 400etik gorako tasarekin jarraituz gero, hurrengo egunean ezarriko dira mugak Bergaran ere.

Herri txikiei dagokionez, Aramaio eta Eskoriatza ageri ziren asteleheneko buletinean, eta, beraz, herri horietan daude indarrean intzidentzia-tasari lotutako neurri murriztailerik. Edozelan ere, atzora arte, Elgeta izan ezik, gainontzeko herriek zuten 400etik gorako tasa.

Bestetik, Osasun Sailaren asteleheneko buletin epidemiologikoaren arabera, hilaren 12tik 18ra pertsona bat hil da COVID-19aren ondorioz; arrasatear bat. Dagoeneko, orotara, 160 dira hildakoak.

Debagoieneko Ospitalean birusak eraginda ingresatutakoak hamahiru ziren atzo.

Egoera epidemiologikoaren harira, Gotzone Sagardui Osasun sailburuak asteon adierazi du oraindik ez dela "goia jo", baina egoera "benetan larria" dela: "Joera aldaketarik ez dugu ikusten, oraingoz". Azaldu du, adierazle batzuek erakusten dutela izurritea moteldu egin daitekeela, baina ez dakitela noiz.

INTZIDENTZIA-TASAREN BILAKAERA AZKEN ASTEAN 800ETIK GORAKO INTZIDENTZIA-TASA DU DEBAGOIENAK

Eskualdeko azken hamalau egunetako 100.000 biztanleko intzidentzia-tasak gora egiten jarraitu du azken egunetan ere, eta,

hain zuzen, joan den egubakoitzean 800eko langa gaindituta, atzo 874,87ekoa zen.

Lurraldei erreparatuta, Gipuzkoak jarraitzen du tasarik altuena izaten. Azken astean are gehiago egin du gora intzidentziak, eta atzo ia 700ekoa erregistratu zuen (697,759). Bizkaia (442,89), Araba (443,96) eta Nafarroa (405) elkarren artean berdintsu zeuden atzo. Edozelan ere, aipatzekoa da Bizkaian intzidentziak motel egin duela gora azken egunetan; Araban gorabeherak izan ditu; eta Nafarroan, berriz, behera egin du zertxobait.

BIRUSAREN AURKAKO TXERTOA 74 ETA 79 URTE BITARTEKOAK TXERTATZEKO DOSI GUZTIAK AMAITU DIRA

Txertaketarako ordua hartzeko SMS bidalketa masiboa egin zuen astelehenean Osakidetza, eta 74 eta 79 urte arteko biztanleei bidali zizkien mezuak. Egun hartako 15:00etan ireki zuten txertoa hartzeko hitzordua hartzeko epea, eta hurrengo eguneko, martitzeneko, 08:00etarako sistemak ez zuen ordu gehiago emateko aukerarik izan; tarte hartan eskuragarri zituzten dosi guztiak amaitu baitziren. Denera, 19.116 zita eman zituzten.

Positibo kasuak

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko astean	Positibo metatuak	Positiboak mila biztanleko
Oñati	93	91	1.191	103,85
Arrasate	79	90	2.849	129,02
Bergara	36	34	1.452	96,57
Arexabaleta	29	48	702	99,15
Eskoriatza	14	26	347	84,57
Antzuola	7	6	220	100,96
Aramaio	7	6	151	102,03
Gatzaga	1	0	9	36,00
Elgeta	0	0	51	45,09
GUZTIRA	266	301	6.972	107,58

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

Izandako arazo teknikoengatik "barkamena" eskatu zuen Gozone Sagardui Osasun sailburuak, baina sistema "egokia" dela defendatu: "Herritarren erantzuna oso ona izaten ari da, eta horren erakusle da ordu gutxian agortu direla 74-79 adin tarterako zita guztiak". Era berean, lasaitasun mezua helarazi gura izan zien herritarrei: "Argi gera dadila ez dela inor geratuko txertatu gabe".

Osakidetzaren SMSa jaso zuten ehunka herritarrek ordua eskatzeko aukerarik izan ez zutela salatu dute, bestetik, sistemaren arazoan ondorioz. Osasun Sailetik azaldu dute ordua eskatzeko Internet bidezko zerbitzua bertan behera geldituko dela dosi berriak heldu bitartean.

Bestetik, Janssen txertoari dagokionez, Sendagaien Europako Agentziak asteon berretsi du "segurua eta eraginkorra" dela. Hain zuzen, azaldu dute txertoa eta Ameriketako Estatu Batuetan atzemandako tronbosi kasuak lotuta egon daitezkeela, baina horiek "albo-ondorio ezohikoak" direla. Ebazpenaren harira, Espainiako Gobernuak asteazken honetan ekin dio lehendabiziko dosiak autonomia erkidegoetara bidaltzeari. Ministerioak dituen 146.000 dosietatik 6.850 iritsi ziren EAera eguaztenean, eta atzo hasi zizkizkien jartzen mugikortasun

arazoak edo toki sakabanatueta bizi diren 70-79 urteko herritarrei.

TXERTAKETA-PLANAREN EBOLUZIOA EAE-KO 179.610 HERRITARREK HARTU DITUZTE TXERTOAREN BI DOSIAK

Osasun Sailetik azaldu dute eguaztenera arte txertoen 768.300 dosi iritsi direla EAera, eta horietatik 655.137 jarri dituztela. 40.520 dosi gordeta dituzte, bigarren dosia "bermatu ahal izateko". Hala, 295.917 lagunek jaso dute txertoaren baten lehenengo dosia, eta 179.610ek jaso dituzte biak. Txertaketa-taldeei erreparatuta, Osasun Sailak jakinarazi duenez, zentro sozio-sanitarioetako egoiliar eta profesionalen %100ek jaso dituzte bi dosiak, eta, Osakidetzako profesionalen %100ek jaso badute ere, %96k jaso dute bigarrena. Bestetik, zentro pribatuaren eta garraio sanitarioaren alorreko %90,4k jaso dute lehenengo eta %69,5ek bigarrena. Eta taldeekin bukatzeko, unibertsitatez kanpoko hezkuntza arlokoek, beste zerbitzu sozio-sanitarioetako profesional eta erabiltzaileek eta ertzainek ziztada bakarra jaso dute; hain zuzen ere, %100ek jaso dute lehenengo dosia eta inork ere ez bigarrena.

Eskualdera etorrira, Debagoieneko ESik adierazi du 80 urtetik gorako ia guztiek hartu dutela dagoeneko txertoaren lehen dosia, eta joan den astetik bigarren dosiak jartzen ari zaizkiela. Horretaz gain, 70 eta 79 urte artekoen txertaketari ekin zieten joan den astean, eta horretan aritu dira aste honetan ere Debagoieneko Ospitalean horretarako egokitutako espazioan. AstraZeneca txertoari dagokionez, azaldu dute 60 eta 65 urte bitartekoak ari direla txertatzen.

ESPERIMENTAZIOA TXERTOEN GAINEN SAIAKUNTZA KLINIKOAN PARTE HARTUKO DUTE

Konpainia ezberdinetako txertoen konbinazioak zer ondorio dituen ebaluatzeko saiakuntza klinikoa egingo du Carlos III.a institutuak, Osakidetzaren ikerketa-institutuen laguntzarekin, eta azterketa horretan parte hartuko du EAEk; Biocruces Bizkaia, zehazki. Saiakuntza horren helburua da ebaluatzea AstraZeneca txertoaren lehen dosia jaso duten pertsonen gero Pfizer txertoaren dosi bat emanez gero organismoak nola erantzuten duen; segurtasunari, immunitate-sistema aktibatze gaitasunari eta immunitate-erantzuna sortzeari dagokionez. CombiVacS saiakuntza datorren astean jarriko dute abian; 18 urtetik gorako boluntario osasuntsuei, osasun egonkorra dutenei eta haurdun ez dauden emakumei zuzenduko zaie.

OSTALARIAK, PROTESTAN MANIFESTAZIOA EGINGO DUTE BIHAR ARRASATEKO OSTALARIEK

Arrasateko Ostalariak taldeak deituta, manifestazioa egingo dute bihar, zapatua, 20:15ean, Herriko Plazatik hasita. Aurrez, baina, ostalaritza-zerbitzua duen terraza "erraldoi" bat jarriko dute Seber Altube plazan. Ostalariak salatzen dute Udalak akordioaren bost puntu ez dituela bete. Udalak adierazi du 201.600 euro bideratu dituela sektorea laguntzera (Ikus 10. orria).



Markel Olano, Goiena telebistako 'Harira' saioan. IBAI ZABALA

"2020a konplikatu izateak eragin egingo du errenta aitortpenean"

Markel Olano diputatu nagusia 'Harira' saioan izan da; berba izan ditu pandemia eta Europako laguntzak

M.S. ARRASATE

Pandemiaren eboluzioari lotuta kezkatuta azaldu da Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusia: "Bereziki, lurraldeko datuek egin dute okerrera azken egunetan, eta horrek arduradun politiko bezala kezka eragiten dit, besteak beste, osasun sisteman dituen ondorioengatik".

Aitortu du klase politikoak oso egoera "konplexua" kudeatu behar izan duela, eta kudeaketa horrek bi zutabe nagusi dituela: arduradun politikoen eta instituzioen lana eta gizartearen jarrera. "Tandem horretan zerbaitek huts egin du: prozesuan ikusi dugu zenbait unetan kontaktua soziala handitzeak agerraldiak eragin dituela". Horrez gain, adierazi du "autokritika" egitea beharrezkoa dela.

'Ekonomia indartuz' plana

Aldundiak onartu duen planari esker 66 milioi euro bideratuko dituzte COVID-19ak utzitako ondorioei aurre egiteko. "Orain arte, sektore batzuek eragin negatibo zuzena jaso dute, eta hauspoa behar dute", aitortu du Olanok. Eta gaineratu: "Dirua badago, baina ongi erabili behar da. Kasu honetan, uste dugu inportantea dela sektoreekin

ALDUNDIAK 66 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU COVID-19AK UTZITAKO ONDORIOEI AURRE EGITEKO

harremanetan jarrita laguntza horiek prestatzea.

Europatik etorriko den diru partida bat Gipuzkoara ere iritsiko dela agindu du Pedro Sanchez Espainiako presidentek. Horren harira, diputatu nagusiak adierazi du ez dakiela zenbateko partida iritsiko den, nahiz eta argi duten zertarako erabiliko duten: "Eraldaketa izango da helmuga. Gure lurraldean ahalmen handia daukagu horri erantzeko, batik bat, fabrikazioaren ikuspegitik".

Errenta aitortpena, martxan

Iaz, errenta aitortpenak "oso datu onak" eman zituen, eta horrek 2019ari erantzun zion. "Urte hartan errekorra lortu genuen enpleguaren eta horren kalitatearen ikuspegitik". Aurreikusituen dute 2020 "konplikatuagoa" izanda horrek kanpainan eragina izatea. "Egia da ERTEek bere funtzioa izan dutela eta enpleguari eutsi egin zaiola, baina susmoa da ez dugula kanpaina hura errepikatuko". Hailere, aste batean 100.000tik gora errenta aitortpen egin dituzte.

Azkenik, zergetan iaz baino 32 milioi gutxiago batu ditu aurtent Aldundiak: urteko lehen hiru hilabeteetan, %3,8 gutxiago. Edozelan ere, Udalek Foru Funtsetik jasotako diru kopurua ez da uste bezain baxua izan: "Uste genuen %25eko jaitziera gertatuko zela, baina gerora ez da hainbestekoa izan. Udalek une hartan jaso ez zutena azken hilabeteetan jaso dute".

Frontean borrokatu gabe ere "gerran gehien sufritu zutenei" omenaldia, gertu

laz egin ezin izan zieten omenaldia egingo diete identifikatuta dituzten eta oraindik bizi diren bailarako gerrako umeei. Pandemiak eraginda, herrika egingo dituzte ekitaldiak: gaur Arrasaten eta Bergaran eta bihar Elgetan, Oñatin eta Aretxabaletan

Jone Olabarria ARRASATE

"Gerran zuzenean parte hartu gabe, umeak gehien sufritu zuten biktimak" izan zirela uste du Intxorta 1937 Kultur Elkarte-kidea den Juan Ramon Garaik. Gaia "gutxi landutako kontua" zela iritzita, 2019an hasi ziren lanean, gerrako ume izandako Jose Lopez arrasatearrak eta Eulogio Diez bergararrak eskatuta: "1936ko irailean 4.500 debagoiendarrek baino gehiagok egin zuten alde Euskal Herriatik. Horietatik ia 500 adin txikikoak, 16 urte artekoak zirela ondorioztatu dugu".

Pandemiak omenaldia urtebe- te atzeratu duen arren, asteburu- an egingo dituzte ekitaldiak. Gaur, Seminarixoan 12:00etan eta Kulturaten 18:00etan egingo dituzte Bergarako eta Arrasate- ko ekitaldiak. Zapatuan, Are-



Angel Balzategi.



Eugeni Langaran.



Eulogio Diez Sanchez.



Jose Mari Garcia Zubia.



Luzia Farraz Lascurain.




Maria Angeles Urteaga.



Pedro Gonzalez.



Joxemari Muxika Arrieta.



Olga eta Manolo Etxebarrieta.

txabaletako Arkupen, Oñatiko udaletxean eta Elgetako udaletxean egingo dituzte, 12:00etan.

Hala, 1936. urtean 0 eta 16 urte bitarte zituzten eta erbestera ihesi joan ziren haur debagoien- darrek Iñigo Arregi artistak egingako *Egiaren iturria* oroi- garria jasoko dute asteburuan zehar.

Herrira itzultzean, etxe barik

Omenduko dituzten gerrako umeenestigantzak batu ditu Intxorta 1937 Kultur Elkarteak. Hemen, batzuenak:

Familia Arrasatetik ihesi joan ostean, Angel Balzategi Olaza- goitia Gironan jaio zen, 1938an. Frankistak Katalunian sartu zirenean, baina, 1939an, etxera itzuli behar izan zuten: "Etxea apurtuta zegoen, eta eskerrak Mendikutek beste etxe bat utzi zigun bizitzera joateko".

Oñatira iritsi eta etxea okupa- tua zuten ere Maria Angeles Urteaga Madinabeitiak eta haren familiak. 1937an jaio zen Maria Angeles, Bizkaian. Handik Astu- riasera eta ostean Frantziarako bidean, hiltzeko zorian izan zen Maria Angeles txikia: "Barkuan, laban egin eta umea uretara ero- ri zitzaion amari. Soldadua- k zeuden, eta segituan sartu zen soldadu bat, eta momentu- momentuan atera ninduten uretatik".

Joxemari Muxika Arrieta arra- satearra ere Bizkaian jaio zen, Getxon, 1937an. Handik Katalu- niara joan ziren. Gerra buka-

ztean, ama etxera itzuli zen, baina aita eta osaba Iparraldera joan ziren. Gogoan du aita ikus- teko egingo bidaiak: "1946an joan ginen estropadak ikustera Donostiara, irailean, Iparralde- tik zetorren aita ikusteko. Amak erabaki zuen 1947an Iparralde- ra joatea, eta klandestinoki pasa zuen muga kontrabandistekin".

la ehun arrasatear, Frantziara

Treanean ere, baina herriatik joa- teko, ia beste ehun arrasatear- rrekin batera, Laredorako bidea hartu zuen Pedro Gonzalez Pin- tok, ama eta arrebarekin: "*Pitón* izeneko itsasontzi ingeles batean sartu gintuzten. Ikatza garraia- tzeko bodega zikin batean". San Fraun du Prieresera eraman zituzten, Frantziara. Mooro ize- neko farmazialari batek adopta- tu zuen Gonzalez, eta berarekin bizitzen egon zen, Gurutze Go- rriak Irunera ekarri zuen arte.

Ama, hilda; aita, kartzelan

Antzerako helmuga izan zuen Jose Maria Garcia Zubia oña- tiarrak ere, baina aurretik ama galdu zuen, gaixotuta: "Abadiño- ra joan ginen, 9 urte nituela. Bertan geunden Durango bon- bardatu zutenean. Ikusi genituen hegazkinak pasatzen eta bonbak botatzen. Bilbora eta gero San- tanderrera joan ginen, eta ama ahultasunak jota hil zen; bon- bardaketekin, tuneletik tunele- ra genbiltzan, eta gaixotu egin zen. 32 urte zituela hil zen".

Enplegu publikoa sortu eta finkatzearen alde egin dute

Sektore publikoan greba egin zuten atzo, besteak beste, langileen "behin-behinekotasun" egoera salatzen

M.S./T.M. ARRASATE

ELA, LAB, CCOO, Satse, Steilas eta ESK sindikatuek greba egu- na deitu zuten atzoko Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan; batez ere, langileen behin-behinekotasun egoera salatu eta lanpostu horien egon- kortasuna eskatzeko. "EAEko administrazioetan enpleguaren egoera gero eta kezagarriagoa da. Enplegu publikoaren sun- tsiketa, ezegonkortasuna eta bere sorrerarako borondaterik eza sintoma gero eta larriagoak dira, eta eragin negatiboa dute

langile publikoen lan-baldintze- tan", adierazi zuten. Gaineratu zuten, sektore publikoko 60.000 langile inguru dago interinitate edo bitartekotasun egoeran.

"Administrazio publikoko lan- gileen %40 inguru bitartekota- sunez ari dira lanean, eta horrek esan nahi du lanpostu horiek ezin direla egonkortu", esan zuen Arrasateko Udaleko En- presa Batzordeko Dorleta Kor- tazarrek. Gehitu zuen arazo horri "irtenbide" bat eman behar zaiola, hezkuntzan, Jaurilaritzan eta osasungintzan zenbakiak



Arrasateko udal langileak, atzo egindako ordubeteko lanuztean. TXOMIN MADINA

oso altuak direla eta horrek "kaltea" eragiten diela zerbitzuei.

Udal zerbitzu gehienak, itxita

Greba deialdiak Debagoienean izan zuen erantzunari dagokio- nez, administrazio publikoen

kasuan, Debagoieneko Manko- munitateko langileek bat egin zuten deialdiarekin, eta, udalen kasuan, itxita egon ziren atzo Bergarako, Elgetako, Antzuola- ko, Aramaioko eta Eskoriatzako udal zerbitzuak. Arrasaten, egun

osoko greba egin beharrean, eguerdian ordubeteko lanuztea egitea erabaki zuten langileek. "Ikusten genuen atxikimendu handiagoa izan zezakeela ordu- beteko kale agerraldiak, eta horretarako deialdia egin genuen", argitu du Kortazarrek.

Hezkuntzan, denetarik

Hezkuntzan, itxita egon zen Es- koriatzako Luis Ezeiza eta zer- bitzu minimoekin egin zuten lan Oñatiko Urgain Errekalden, Arrasate Herri Eskolan eta El- getako Herri Eskolan eta Haur Eskolan. Beste ikastetxe publi- koen kasuan, Antzuolako Herri Eskolan ez zuten bat egin greba deialdiarekin, eta gainerakoetan langileen partetik askotariko jarraipena izan zuen.

Osasun arloan, bestalde, De- bagoieneko Ospitalean nork bere

Ama galduta eta aita kartze-
lan zuela, Gurutze Gorri inter-
nazionalaren bitartez itsasontzi
ingeles batean sartu zituzten
anaia eta bera, hasiera baten,
Errusiara bidaltzeko, baina,
azkenean, Marseillara joan zi-
ren; ostean, Colombes herrira:
"Alemanak gerturatzan ari ziren
eta Miarrizera eraman gintuz-
ten, SSak iritsi arte; orduan,
autobusetan sartu eta Honda-

rribira. Aita kartzelan zegoen,
eta izeba Petrarekin bizitzera
joan ginen".

Errusian, "harrera handia"

Kolpe militarra hasi zenean 10
urte zituen Eulogio Diez Sanchez
bergararrak. Aita UGTkoa zen,
eta Bilbora joatea erabaki zuten,
1937an Eulogiok eta bere lehen-
gusu Felipek Errusiarako bidea
hartu zuten arte: "Santurtzira

joan ginen, eta *Habana* ontzian
Frantziarantz abiatu ginen. Bor-
delera iristean, Gurutze Gorriak
janaria eman zuen, baina guri,
Errusiara gindoazeno, ezer ere
ez, ezta urik ere". Biltegi batean
egin zuten bidaia, hurrengo
egunean *Suntay* itsasontzian
Leningraderantz ontziratu ziren
arte. Errusian egindako urteetan
oso ondo tratatu zituztela gogor-
ratzen du Diezek: "Han harrera

handia egin ziguten, oso ondo
tratatu gintuzten, 4 urte geroa-
go alemanek Sobietar Batasuna
inbaditu zuten arte".

'Libertad? Zer izen da hori?'

Gerra hasi zenean alde egin
zuen Bergararik Luzia Farraz
Laskurainen familiak. Frantzian
egon ostean, 1943an itzuli zen
Luzia Bergarara, izeba eta ahiz-
pekin. Aita preso zuen, eta ur-

tebetara notarioarenera joan
zireneko pasarte bat du bere-
ziki gogoan: "Familia liburua
zabaltzerakoan, notarioak ira-
kurri zuen: *'Libertad, ¿qué es
ésto? Franco dio un plazo de dos
meses para quitar todos los nom-
bres subversivos y vascos'*. Nik
erantzun nion: *'Estábamos en
Francia y no nos enteramos'*".

Ospitalera bidean bonbak hilda

Untzillan obus batek hankak
txikitu zizkion Olga eta Manolo
Etxebarrieta Oteiza aretxabale-
tarren aitari, 1937an. Basurtoko
ospitalera bidean abiazio ale-
manak Durango bonbardatu
zuen, eta, anbulantzian zihoala,
bertan hil zen aita. Bilbora joan
zen bizitzera orduan familia,
handik Santanderrera eta ostean
Frantziara: "Handik Belgikara
joan ginen. Gero, denok Kata-
lunian, Bartzelonan, elkartu
ginen, Aretxabaletera etorri
aurretik".

"Lan egin, obeditu eta isilik"

Kontzentrazio-eremu batean
gaixotuta hil zen Eugeni Lan-
garan Rodriguez arrasatearraren
aita. Normandian egon ostean,
herrira itzuli zen amarekin Eu-
geni. Gogoan du amak gogor lan
egin zuela aurrera egin ahal
izateko: "ELMAN sartu eta tor-
nu errebolber automatiko baten
jarri zuten lanean, gizonak be-
zala. Lan egitea besterik ez di-
gute irakatsi; lan egin, obeditu
eta isilik egon".

Gerrako ume omenduak, herririk herri

Antzuola

- Ortiz de Lejarazu Saez, Rosa.
- Ortiz de Lejarazu Saez, Azucena.

Aretxabaleta

- Alberdi Bengoetxea, Amaia.
- Etxebarrieta Oteiza, Begoña.
- Etxebarrieta Oteiza, Manolo.
- Etxebarrieta Oteiza, Juana.
- Monge Andres, Francisca.
- Zubillaga Altube, M. Pilar.
- Zubillaga Altube, Fernando.

Arrasate

- Abarrategui Mendizabal, Nieves.
- Arenaza Velasco, Amparo.
- Arsuaga Menchaca, Margarita.
- Ayesa Mondragon, Jose Luis.
- Aranbarri Riviere, Antxon
- Azula San Miguel, M. Teresa.
- Balzategi Olazagoitia, Angel.
- Balzategi Olazagoitia, M. Angeles.

- Bolinaga Garay, Mercedes.
- Etxabe Zubizarreta, Luzia.
- Dominguez Jimenez, Carmen.
- Garcia Andres, Encarna
- Garcia Vermande, Paquita.
- Garcia Cacho, Josefina.
- Garcia Cacho, Santiago.
- Garcia Cacho, Luisa.
- Garcia Cacho, Lucio.
- Garcia Cacho, Jesus.
- Gonzalez Pinto, Pedro.
- Gonzalez Pinto Aurea.
- Gonzalez Monje, Cristina.
- Jauregui Iza, Montse.
- Langaran Rodriguez, Eugeni.
- Lopez Diez, Jose.
- Lopez Diez, Luis.
- Moreno Leibar, Imanol.
- Muxika Arrieta, Jose Maria.
- Oroiz Garcia, Felisa.
- Riviere Andres, Jose.
- Martinez de Ubago Ruiz de la Cuesta, Carmen.
- Uranga Mandaluniz, Juana.

- Uranga Mandaluniz, Beatriz.
- Ugarte Eguluz, Juan Manuel.
- Ugalde Ariznabarreta, Edurne.
- Uriarte Lasagabaster, Roberto.
- Ugarte Zubialdea, Josefa.
- Vega Galdos, Pedro.
- Vitoria Berecibar, Olga.
- Zabaleta Ortubai, Tere.

Bergara

- Ambroy Aranzabal, Carmen.
- Ambroy Aranzabal, Jose Maria.
- Askasibar Garate, Joseba.
- Arrieta Aztiazaran, Garbiñe.
- Arruabarrena Etxezarreta, Ana Maria.
- Arruabarrena Etxezarreta, Manuel.
- Azkarate Garay, Albiñe.
- Begiristain Urcelay, Edurne.
- Begiristain Urcelay, Narciso.
- Begiristain Urcelay, Paquita
- Begiristain Urcelay, Silvestre.
- Diez Sanchez, Eulogio.
- Ecenarro Arostegui, Julia.

- Estevez Saez, Maria Dolores.
- Farraz Laskurain, Luzia.
- Farraz Laskurain, Esther.
- Herran Izarra, Anastasio.
- Herran Izarra, Maria Carmen.
- Lete Gabilondo, Maria Josebe.
- Telleriarte Eguidazu, Sol.
- Urcelai Arenaza, Maria Pilar.
- Urcelai Arenaza, Francisco.
- Urcelai Arenaza, Trini.
- Viciola Velasco, Pilar.
- Viciola Velasco, Esther.
- Zuñiga Sanchez, Felipe.

Elgeta

- Gorrotxategi Basauri, Pilar.
- Arantzeta Arregi, Jose Luis.

Oñati

- Garcia Zubia, Jose Maria.
- Lucas Iturri, Marcial.
- Olalde Ituarte, Alfredo.
- Olalde Ituarte, Jabier.
- Urteaga Madinabeitia, Maria Angeles.

kabuz erabaki zuen grebarekin
bat egin edo ez. Dena den, Eus-
ko Jaurlaritzak emandako datuen
arabera, Euskal Autonomia Er-
kidegoan, sendagileen %1,13k,
erizainen %2,66k eta gainerako
langileen %4,58k egin zuten bat
grebarekin goizean, eta Erkide-
goko osasun zentro guztiak za-
balik egon ziren, gainera.

Sindikatuak, baina, adierazi
zuten gutxieneko zerbitzuek
"erabat baldintzatu" zutela osa-
sun arloan grebak izan zuen
jarraipena, eta salatu dute zer-
bitzu askotan %100eko gutxie-

SINDIKATUEK SALATU ZUTEN GUTXIENKO ZERBITZUEK GREBAREN JARRAIPENA BALDINTZATU ZUTELA

neko zerbitzuak jarrita milaka
langileri grebarako "eskubidea
ukatu" zietela atzo.

Egun "arrakastatsua"

Hiriburuetan egin zituzten sin-
dikatuak mobilizazio nagusiak,
eta ELAko kide Igor Eizagirrek
greba eguna "arrakastatsua"
izan zela adierazi zuen, nahiz
eta ezarritako zerbitzu minimoak
"gehiagizkoak" izan zirela esan.

Eusko Jaurlaritzako bozera-
maile Bingen Zupiriak, bestalde,
adierazi zuen ez duela ulertzen
egungo osasun eta ekonomia
egoeran sektore publikoko lan-
gileak grebara deitu izana.

Olatz Garamendi Gobernantza
Publiko eta Autogobernuko sail-
buruak bitartekotasunaren ar-
zoa bideratzeko hainbat fronte-
tan lan egiten ari direla azaldu
zuen, azkenik.

Euskararen transmisioa ardatz, familiei zuzendutako materiala

Gomendio orokorrak jasotzen dituzten liburu eta gidak
banatzen dituzte Mankomunitateak eta bailarako udalek

Maialen Santos ARRASATE

Debagoieneko Mankomunitate-
tik adierazi dute familia dela
hizkuntza "transmisioaren" ele-
menturik garrantzitsuen, eta
hizkuntzaren ezagutza, erabile-
ra ohiturak eta horrekiko jarre-
rak eremu horretan jaso eta
"finkatzen" direla. Transmisio
horren "garrantziaren berri"
emateko, Mankomunitateak eta
udalek eskualdeko gurasoei
haurren adinaren arabera
informazio elementuak helaraz-
ten dizkiete. "Familia eremu
pribatua izanik ez da erraza

bakoitzaren egoera partikularra
ezagutu gabe aholkuak ematea,
baina gomendio orokor batzuk
eraginkorrak direla badakigu",
azaldu dute.

Hainbat elementu

Haurren lehenengo urteetan
familiei elementu ugari helaraz-
ten dizkiete Mankomunitateak
eta udalek. Horren adibide da
Zorionak, ama izango zara gida,
haurdun daudenei zuzendutakoa:
"Haurdunaren eta haurraren
behar fisikoetan eta emoziona-
letan oinarrituz, hainbat gomen-

dio ematen ditu horrek: haur-
dunaldiko eta erditze osteko
zainketa, haurren edoskitzea
eta masajea eta haurraren zain-
keta, besteak beste".

Zorionak izeneko gida haur
jaioberrien familientzako ma-
teriala da. "Familiara haurtxoa
ekarri dutenei zuzendutakoa,
momentu eder hori zoriontzear
batera, umearen etorkizuna
bideratzen laguntzeko hizkun-
tza aholkuak eta tresnak helar-
razten dituen", zehaztu du
Mankomunitateak.

Azkenik, *Biharko euskara, gaur*
liburua ere banatzen dute,
"pixkanaka haziz doazen haurrak,
sozializatzen hasten direnean,
etxeko ohiturez gainera komu-
nitatearen hizkuntza ohiturak
ere bereganatu ditzaten". Kike
Amonarrizek idatzitako aholkuak
jasotzen ditu azken horrek.



ZABALIK

PATXI OLABARRIA IRIZAR

Tunelak

1893ko uztailearen 14a, ostirala, arratsaldeko 5ak. Trakzio bikoitzeko trenak Antzuolako tren geltokian geldialdia egin ondoren, martxan jarri bezain laster atzeko lokomotorra bere bidetik irten eta maldan behera eraman zituen zenbait bagoi. Ondorioa, 36 zauritu eta 4 hildako; tartean, Pedro Urutxurtu, Deustuko alkatea. Deustukoa bai, gaur egun Bilboko auzoa den hori udalerrri izan baitzen 1925 arte.

Ez al da adierazgarria gisa horretako pertsonaia bat ustez hirugarren mailakoa zen trenbidean ibiltzea? Zer pentsatua eman eta hariari tiraka hasita, jakin berri dut trenbide honek bazuela garrantzia, Donostia eta Bilbo lotzen baitzuten.

Bide estuko trenbidea zen gurea eta Zumarragan bide zabaleko *Norteko Ferrokarrila* hartzeko trenez aldatu behar izaten zuten bidaiariak. Honek sortzen zuen

AUTOBIDEAREKIN ETA AHT-AREKIN HERRIA ETA POLTSIKOAK ZULATU DIZKIGUTE

deserosotasunagatik eta kostaldeko turismoak hartu zuen indarragatik, gaur egun ezagutzen dugun *Kostaldeko Trena* eraiki zen. Ondorioz, gurea gainbehera hasi eta otsailaren 28an bete berri da azken bidaiaren 50. urteurrena.

Ospakizunetarako tarterik ez da izan, bide horretan inoiz baino jende gehiago eta sarriago pasieran gabiltzan arren. Hamarkadatan baztertua egon ondoren, 2013ko abenduan kuadrillako baba-janean hartutako erabakiari esker, auzolanean tunelak garbitu eta guztiontzat erabilgarri jarri zen trenbidea. Orain, ordea, lur-jausien ondorioz, Jauregiko tunelak ia bi urte daramatza itxita. Diputazioarentzat, beste behin, hutsaren hurrengoak gara. Autobidearekin eta AHTarekin herria eta poltsikoak zulatu dizkigute, *Pagape* bezalako iturriak agortuz, eta zer da bueltan jaso duguna? *Artículo trentaitrés!*

Tunelak aipatzen hasita, pandemiarena, irteerako argirik ikusten ez dioguna. Ea laster irtetzen garen eta baba-janerako aukera dugun, Jauregiko tunelaz gain AHTarenak ere garbitzeko dauzkagu-eta, *euskal y-a* euskal bidegorri bihurtuz.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

EJE(m)

JOSEBA BARANDIARAN

'TTAP'-EN ARGITARATUA

ETA(m)-ren garaiak joanda, orain EJE aroa dugu: Egia Justizia Erreparazioa (EJE). Azkenaldian maiz heltzen zaigun leoa.

Hiru Erronken Mahaia, gailurra.

Erronka edo mahai bakoitza galanta; nor baino nor gehiago.

Egia, poliedrikoa zinez.

Baina ez dakit Mikel Zabalza, Angel Berroeta, Ignacio Mateu, Froilan Elespe edo Miguel Angel Blanco hil zituztela guztiok berdin gogoratzen dugun egiaz.

Justizia zer litzateke kasuotan eta antzekoetan, errelato ofizialari bere aniztasuna eta gizatasuna aitortzea ez bada?

Umezurtzei nahiz ume motxiladunei begietara begiratzeko modukoa ez bada?

Zauritu, torturatu eta jazarrie ere aitortza egitea ez bada?

Eta erreparazioari ere, gutxiago erreparatu arren, egia eta justiziaren eskutik bakarrik izango da eta, agian, ezta hala ere.

Patria-tik Caminho Longe-ra, Non dago Mikel?-etik Fakirren ahotsa-ra, artearen diziplina ezberdinen arragoak mihise koloretsua osa lezake.

Baina nago baditugula geure motxila kromatikoak ere, geure kolore edo antzekoetan mugitzera garamatzatenak.

Orain *comfort zone* ponpoxoaz aipatzen den hori. Biolentzia batzuk biolentziago edo onargarriago jotzeko joera.

Finean, joandako garaian bezala; erbesterratu, bahitu, torturatu eta hildakoak kolore sail guztietakoak ez baleude bezala.

Baina tarteka badira salbuespen azpimarragarriak ere; horietako batzuk *txioherria*-n irakurgai, harrabots handi-handi baten erdian, musika lasaia, baketsua eta miresgarria direnak. EJE(m).

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooparatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Ziortza Martín,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta
Hizkuntza
Politika Sailak
(Hizkuntza
Politikarako
Sailburuordetzak)
diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Tresna eraginkorrak dira patenteak enpresendako"

IDOIA APRAIZ GALBAIAN-EKO PATENTE AHOLKULARIA ETA FARMAZIAN DOKTOREA

Eneko Azkarate Laspiur ARRASATE
Jabetza industrial eta intelektualean zerbitzu integrala eskaintzen duen enpresa da Galbain. Mondragon Taldeko kide da. Garaia parke teknologikoan du egoitza. Enpresako bazkide eta patente aholkularia da Idolia Apraiz.

Zergatik da inportantea jabetza industrial eta intelektuala babestea eta patenteak sortzea?
Jabetza industrial eta intelektualeko (JI) eskubideak tresna estrategikoak dira enpresentzat. JI-ren eskubide inportanteenetakoa hurrengoa da: JI-rekin babestuta dagoena hirugarren batek ustiatzea eragozteko eskubide eskusiboa. Patenteek asmakuntza babesten dute. Enpresa batek asko inbertitu behar du merkaturatzerako garatu duen asmakuntza.
Ezberdinak dira jabetza industrial eta intelektuala?
Bai. Jabetza industrialean patenteak, markak eta diseinuak dira modalitate



Idolia Apraiz, Galbain enpresako argazki baten. GALBAIAN

garrantzitsuenak. Jabetza intelektualean autore eskubideak sartzen dira. **Ideia onak merkaturatzen laguntzen diezue enpresei?**
Bai. JI-k eskubide oso estrategikoa ematen dio bere

jabeari: JI-rekin babestuta dagoena hirugarren batek ustiatzeko eragozteko eskubide eskusiboa. JI inbertsio bat da eta horrela kudeatu behar du enpresak. JI-ko modalitate

desberdinekin produktuarengan eskusibotasun eremu bat sortzen laguntzen dio enpresari. Eskusibotasun esparru honekin, lehiakideak kentzeko aukera sortzen zaio enpresari.

Hemengo enpresek badaukate patentea erregistratzeko ohituratik?

Arlo honetan hasi nintzenetik, orain dela 10 urte, enpresek JI-rekiko erantzuna eta joera asko aldatu dute. Lan handia egin da administrazio publikotik eta JI-ko agentzietatik enpresak sentsibilizatzen. Baina oraindik pauso handiak emateko ditugu. Teknologia enpresa txikiek eta *start up*-ek ere JI-ri gero eta garrantzi handiagoa ematen diote. JI kudeatzen duten enpresek argi dute bide horretatik joan behar dutela lehiakorrak izateko eta baita enpresa handiekin elkarlaneko proiektuak lortzeko. JI izatea eta kudeatzea enpresa baten iraunkortasunerako gai esentziala da.

Astelehenerako, jardunaldia antolatu duzue Garaia parke teknologikoan. Gai hauek izango dituzue berbagai. Sortzaileak eta berritzaileak dira Euskal Herriko enpresak?

Bai. Europako Batasunak eskualde berritzaileen taldean sartu du Euskadi. Dena den, azterketa honetarako, Europako Batasunak adierazle desberdinak neurtzen ditu, batzuk JI-rekin lotutakoak. Eta JI-ko Euskadiko adierazleei erreparatuta, antzeko Europako beste eskualde batzuekin konparatuz gero, asko dugu hobetzeko.

Patenteen kontuaz asko hitz egiten da, botika-enpresa handien txertoak direla eta. Patenteak liberatu egin beharko liriateke, munduan milioika txerto denondako ekoizteko?

Interes publikoko egoeretan, patenteen legeek bi aukera ahalbidetzen dituzte: batetik, patentearen desjabetzea. Kasu hauetan, patentearen jabe estatua bilakatzen da eta horren truke patentearen titularrak indemnezio bat jasoko luke. Bestetik, derrigorrezko lizentzia bat. Honetan ez legoke desjabetzea bat, baizik eta derrigortu egiten da patentearen jabea lizentzia bat ematera beste batzuei. Baina, patenteaz gain, badaude beste aktibo eta ekintza beharrezko batzuk txertoa ekoizteko: instalazioak, pertsonak, jakinduria, Medikamentuen Agentziaren baimena...

ITURRI ONETIK

Iban Arantzabal, Tokikom-eko lehendakari

Tokikom-ek, euskarazko 70 toki komunikabide batzen dituen taldeak –horien artean, Goienakoak–, urteko batzarra egingo du gaur Eibarren. Lehendakari izendatuko dute Iban Arantzabal, Goiena Taldeko zuzendari nagusia. 2017a ezker karguan jardun duen Jone Guenetxea Durangaldeko Anboto hedabide taldeko zuzendaria ordezkatuko du elgetarrak. "Arduraz, baina Tokikom-en lantalde on bat dagoela sinetsita hartuko dut lekukoa", adierazi du postu berria hartzeko bezperan.

ALBISTE IZAN ZEN

2008-04-20

Sabin Salaberrik jaso zuen Manuel Lekuona saria

Sabin Salaberri aramaioarrak jaso zuen Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona saria, musikaren bidez euskal kulturari egindako ekarpenarengatik. Aramaioko udaletxean egin zuten ekitaldia. Donostian ikasi zuen musika, Francisco Escudero maisuarekin. 1960an apaiztu zen. *Sei euskal abesti* eta beste hainbat obraren egilea. Xabier Agirre Arabako diputatu nagusiaren eskutik jaso zuen saria, aretoa jendez gainezka zela.



GOIENA

HAU BE BADOGU!

#Koronabirusa, urtebete 'trending topic'

Hain zuzen ere, urtebete bete du asteroko euskarazko hamar traol erabiliaren artean:

@3kluba: "Duela urtebete #koronabirusa gure bizitzan azaldu zen, eta horren ondorioz itxialdian egon ginen".

@igaztelu: "Duela urtebete, oso une latzean geunden. Baina denon artean, auzokideak, instituzioak, herriko taldeok... Une hori gaunditza lortu genuen #koronabirusa".

@Baltzelai17: "Urtebete pandemia honekin eta oraindik eskuetan gel gehiegi botatzen segitzen det".

D2030: ELKARRIZKETA



Arrasateko alkate Maria Ubarretxena, udaletxeko balkoian. GOIENA

"Guztion konpromisoa behar da eraldaketarako"

MARIA UBARRETXENA ARRASATEKO ALKATEA

Arrasateko Udalak erabaki sendoa hartu du klima larrialdiari aurre egiteko, eta hainbat neurri bultzatu ditu herrian; D2030 egitasmoko parte ere bada

Miren Arregi ARRASATE

Debagoiena 2030 ekimenaren Gobernu Batzordeko kide da Arrasateko Udala. Izan ere, gizarteak, baita eskualdean ere, dituen erronkei elkarlanetik erantzuteko sortutako ekimenaren printzipioekin bete-betean egin du bat Udalak.

Debagoiena 2030 ekimena duela pare bat urte sortu zen, 2050ean Debagoiena inklusiboa, adimenduna eta klimatikoki neutroa ahalbidetzeko misioarekin. Zergatik da Arrasateko Udala ekimeneko kide?

Trantsizio ekologiko hau gauzatzeko, printzipio kooperatiboak eta esku-hartze komunitarioaren eredu inspirazio-iturri eta oinarri garrantzitsuak dira abian jarri beharreko politiketarako. Baliatu egin behar da, beraz,

"ARRASATERI ERE IRITSI ZAIO GARAIA ERALDAKETA EKOLOGIKOA EGITEN HASTEKO"

tokian tokiko indargune hori, guztion artean bide hori egiteko, eta Debagoiena 2030 egitasmok printzipio horiek barneratzen ditu; beraz, gure ikuspuntuaren aldetik, bide ezin hobea da elkarlanerako.

Zein lehentasun ematen diezue erronka horiei?

Klima larrialdiak eta osasun-pandemiak datozen urte eta hamarkadetako agenda baldintzatuko dute, eta, nola ez, Arrasateko herriari ere garaia iritsi zaio eraldaketa ekologiko egiteko.

ten hasteko, CO2 isurketak murrizteko, energia berriztagarriak sustatuz eta karbono aztarna murriztuz.

Zein garrantzi du erronka potolo horiei elkarlanetik erantzuteak?

Komunitatea kontuan hartzea beharrezkoa da, proiektuak garatzeko eta aukerak sortzeko oinarria delako, herri ekimenak direlako bizitza komunitarioaren oinarri. Elkarlan horren baitan, pertsona guztien konpromisoa ezinbestekoa da gure herrian eraldaketa gauzatzeko.

Zer eskain diezaiokete Arrasateko Udalak horrelako ekimen bati, eta alderantziz?

Ekimen honek gobernantza ireki eta kolaboratiboaren eredu jarraituko du, eta, eskema horretan, Arrasateko Udala eragile aktiboa izango da ekimenean bertan. Arrasateko Udalak Europako Interreg programako laugarren deialdiaren barruan *Shifting towards renewable energy for transition to low carbon energy* -SHREC proiektuan bazkide moduan parte hartzen du eta proiektu hau jarri dugu Debagoiena 2030 egitasmokaren eskutik, ulertzen dugulako guztiz bat egiten duela plataformaren helburuarekin. Bestalde, trantsizio ekologikoak gizarte osoari erantzuten dio eta eskualde mailan lan egiteko aukera oso positibotzat jotzen dugu.

Zertan datza proiektua?

SHREC proiektuak hainbat helburu ditu jomugan, eta horietako batzuk dira energia-iturri berriztagarrien ekoizpena eta kontsumoa sustatzea, energia-kontsumitzaileen inplikazioa handitzea eta, azken batean, energia berriztagarriak iturri alternatibo gisa erabiltzearen garrantziaz kontzientziatzea. Horrela, adibide bezala, bizilagun komunitate bateko teilatua plaka fotovoltaikoak jarritz, energia hori erabili daiteke etxebizitza barruko energia zein garajeetako kontsumoa asetzeko edota etxebizitza bakoitzaren autokontsumorako. Aukerak zabalak dira, eta, nolabait, au-

"MUGIKORTASUNEKO EREDU BERRI BAT GARATZEN ARI GARA, CO2 ISURKETAK MURRIZTEKO"

kera hauek erraztu nahi zaizkie herritarrei.

ACEDErekin eta H-Enearekin batera garatuko da proiektuaren fase bat, D2030 ekimenak lagunduta. Zeintzuk dira proiektuak egingo dituen hurrengo urratsak?

Momentu honetan, lehenengo fasean gaude, sentsibilizazio kampania bat jarri dugu martxan eta gida bat osatu dugu, interes duten herritarrei bidea errazteko. Informazio osoa gure webgunean dago, baita horrelako inbertsioak egiteko eskuragarri dauden hobari/laguntzak eta bete beharreko ordenantza-aren informazioa. Beste fase batean, proba pilotua egitea aurreikusita dago; kasu horretan, Debagoiena 2030 izango da H-Enearekin batera pilotua gauzatu duena.

Baduzue esku artean norabide horretan aktibatutako beste proiekturik?

Arrasateko datuei erreparatuta, CO2 gehien isurtzen duen sektorea garraioa da, industriaren aurretik, eta hori oso datu esanguratsua da, dugun industria kopurua kontuan izanda. Horri jarraiki, hiri-mugikortasuneko eredu berri bat garatzen ari gara, auto pribatuaren erabile- ra gutxitu eta oinezkoa lehene- tsiko duen eraldaketa urbanis- tiko ipar hartzen duena. Bide horretan, hainbat politika mar- txan jarri ditugu, herria oinez- koentzat eta bizi komunitario- rentzat erosoagoa egingo duen sistema baterantz pausoak eman- ez: mugikortasun bertikalaren aldeko apustu sendoa auzoen irisgarritasuna hobetzeko -igo- gailu publikoak-, edota bizikle- taren erabilera errazteko bide- gorri sarea osatzen ari gara *Ekobulebar* proiektuaren baitan. Etkezarrera eremuaren berres- kurapena, natura bideen seina- lizazio eta hobekuntzak ere garrantzitsuak dira.

Herritarrek sentsibilizatuta edo sentsibilizatzen ikusten dituzu?

Azken urteetan salto bat izan den sentsazioa daukat, eta, batez ere, belaunaldi berriak ikusten ditut oso sentsibilizatuta gai- arekin. Komunikabideetan gaiak duen oihartzuna geroz eta han- diagoa da, eta honek isla ere badu komunitatean. Iruditzen zait gizartearen badaudela dagoe- neko oinarriak trantsizioari gozoz heltzeko.

Debagoieneko abeltzainok ez dugu hau merezi

MIGUEL ANGEL URRUTIA URTEAGA
DEGABEL ELKARTEKO LEHENDAKARIA
DEBAGOIENA

Debagoieneko Abeltzainen Elkartek (Degabel) 1986tik 2017ra arte Aretxabaletako Udalaren jabetzako lokal bat erabili du bere eginkizunetarako, eta bertako elektrizitate-

gastua Elkarteari ordaintzea zegokion.

Lokal honen inguruan, Udalak erabilera ezberdinetara zuzenduriko beste lokal batzuk ere bazituen. Suposatzen da lokal hauetako elektrizitate gastua Udalaren kargu zihola.

Degabel, elektrizitate gastuak altuak eta arrazoitu gabeak zirela ikusirik, egiaztapen

batzuk egiten hasi zen; horrela konturatu ginen elektrizitatea batere erabili gabe ere, kontsumoa arrunta zen egunetan bezainbestekoa zela gastua.

Hala, elektrizitate-hornidura zegokion enpresak jakin zuen Degabel Elkartearen kontagailuak Udalaren menpeko beste hainbat lokalen kontsumoak ere

jasotzen zituela. Honek azalduko luke aipatutako elektrizitate-kontsumo altua.

Gertakizun hau Aretxabaletako Udalari jakinarazi zitzaion eta Elkartearen kontagailua gainontzekoetatik bereizi zen berehala. Era berean, Udalak gehiegizko gastu horien kargu egiteko konpromisoa hartu zuen.

Dena den, hau guztia ez zen hitz soiletatik pasa, Degabelek egin behar izan baitzien aurre gastuen %100i.

Udalak onartu du berak egin behar diela aurre gastu hauei, Eusko Jaurlaritzara bidalitako zenbait idatzitan ikus daitekeen moduan. Degabel Elkartean ahal bezala bizirauten dugu bazkideen kuotei esker; ez dago irabazirik ez soberakinik, eta Aretxabaletako Udaletik kalte handia eragin zaigu, ez bakarrik bere hitza ez betetzeagatik, baita gure erreklamazioei jaramonik ez egiteagatik ere. Merezi al dugu Debagoieneko abeltzainok horrelako traturik?

Ez dugunez inolako erantzunik jaso oraindik, beste bitarteko batzuk erabili behar izan ditugu gertaturikoa salatzeke; publikazio hau, esaterako, Aretxabaletako Udalaren aldetik erantzunik jasoko bagenu ere, esango genuke, noski.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus


Salaketa-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna

HAUXE BAI JENEROA!

GARBIÑE UBEDA



Seber Altuben terraza "erraldoia" jarriko dute

Arrasateko Ostalariak taldeak deituta, herriko ostalariak manifestazioa egingo dute bihar, zapatua, 20:15ean, Herriko Plazatik hasita. Aurrez, baina, ostalaritza-zerbitzua duen terraza "erraldoi" bat jarriko dute Seber Altube plazan, 12:00etan

Eneko Azurmendi ARRASATE

Ekintza hori "egungo murrizketekin lan egin ezin duten establezimenduei laguntzeko" izango da, "Udalak ez baitie eman premiazko eta behin-behineko emakida batzuk jasotzeko laguntzarik".

Ostalariak salatzen dute akordioaren bost puntu ez dituela bete Udalak. Besteak beste, zaborren tasa kobratu egin zaie la diote, eta horrek ostalarien artean "ezintasun eta ondoez handia" sortu dituela. Bestalde, azaldu dute 10.000 biztanletik gorako Gipuzkoako udalerrri bakarra dela terrazak arautzeko ordenantzarik ez duena. "Hirigintzako zinegotziak eta gai hauei guztiei dagokienez arduradun nagusia denak erabat uko egiten dio ordenantza izateari".

Terraza ekipamenduetako inbertsioak arintzeko laguntzak oso murrizak izan direla ere salatu dute. "26.430 eurokoa, gure aldetik ikusita nahikoa ez dena, Arrasateko ostalariak egindako inbertsioa 600.000 eta 1.000.000 euro artekoa baita".

Gipuzkoako zerrendan, bigarren

Gipuzkoako Ostalaritza Elkartearen arabera, 20.000 biztanletik gorako herrien artean, ostalaritza sektorerako dirulaguntza zuzen gehien bideratu dituen bigarren udalerrria da Arrasate, Errenteriaren atzetik. Udalak jakinarazi duenez, pandemia hasi zenetik 201.600 euro bideratu ditu laguntza horietara. "94 establezimenduri lagundu diegu, eta horiek 2.000 eta 2.800 euro arteko laguntza jaso dute".

Zuzeneko laguntzez gain, hainbat neurri hartu eta beste hainbat dirulaguntza eskaini dituela ere nabarmendu du, "hala nola uraren, zaborren eta terrazaren tasetan hobariak, terrazetan inbertitzeko laguntzak, babes-neurrietarako laguntzak eta 2020ko maiatzean eta irailean

egindako kontsumo-bonuen kanpainak", azpimarratu du.

Tasetan %50eko hobariak

Udalak dio Arrasateko ostalarien ordezkariari apirilaren 16an egindako azken bileran jakinarazi zuela apirilaren 15eko osoko bilkuran ordenantza fiskalen aldaketak onartu zituztela eta, ondorioz, indarrean dela zaborren tasaen %50eko hobaria. "Lehen seihilekoko kobrantza itzuli nahi duten ostalariak, hobaria aldi horretan aplikatu nahi badute, eta ez bigarren seihilekokoan, eskaera bat egin dezakete BAZen edo www.arrasate.eus webgunean", azaldu du.

Eskaera ofiziala egiteko deia

Tasa fiskalen eta terrazaren arazoari dagokienez, Udalak gonbita egin die terraza-baimena kudeatzeaz duten zazpi estable-

zimenduri, eskaera ofiziala egin dezaten: "Hiru kasutan ez dute terraza izateko aukerarik eskatu; biri Udalak terraza-aukera bat eman die, baina oraindik ez dute eskaera ofizialik egin; establezimendu bat ez dago alta emanda ostalaritza-establezimendu gisa, elkarte gastronomiko gisa baizik; eta beste lokal batek ez du eguneratu negozioaren titulartasuna. Egoera bideratzeko, eskaera indibidual bat egin behar da BAZen, Udalaren talde teknikoarekin batera aukera desberdinak aztertzeko".

Era berean, Udalak berretsi egin du herriko ostalariekin lankidetzan jarraitzeko prest dagoela, eta adierazi du elkarlana bultzatzera bideratuko dituela "ahalegin guztiak".

Salaketa "irmoa"

Azkenik, Udalak "modu irmoan" errefusatu ditu larderiazko kartelak, hirigintza zinegotziari buruzko "memeak", EAJ/PNV-ko bozeramailearen "mofa" bideoa eta alkatearen etxebizitzako atariko pegatinak. "Elkarriketaren eta errespetuan oinarritutako bizikidetzaren alde egiten duela berretsi dugu".

20.000 BIZTANLETIK GORAKO HERRIETAN BIGARRENA DA ARRASATE, LAGUNTZA ZUZENEI DAGOKIENEZ



Ostalariak apirilaren egindako protestetako bat, Herriko Plazan. E.A.

Ospitale inguruan 42 aparkaleku gehiago egingo dituzte aurten

2021eko bigarren seihilekokoan egingo dituzte lanak eta 160.000 euroko inbertsioa izango dute –BEZik gabe–

E.A. ARRASATE

Arrasateko Udalak eta Osakidetza Debagoieneko Ospitale inguruan aparkaleku berriak sortzeko adostasuna lortu dute, ospitaleak egun duen aparkaleku beharri erantzunez, Maria Ubarretxena alkatearen esanetan.

Egun, ospitaleak, inguruko aparkalekuez gain, 100 aparkaleku gehiago ditu Fagor Arrasate S. COOP. lantegiaren albo eremuan. Hala ere, aparkaleku berri gehiagoren beharra sumatu dute Osakidetza eta Udalak, eta inguruaren azterlana gauzatu dute. Hala, erabaki dute Txaxeta kalean dagoen lur eremu bat egokia dela, "behin-behineko", aparkaleku berriak sortzeko. "Lagapena egingo dio Udalak Osakidetza lursail hori aparkaleku gisa erabili dezan".

Irigarritasuna, ezinbestekoa

Alkateak nabarmendu du herri-tarren ongizatea dutela "jomuga nagusi" eta ospitaleak eskaintzen duen zerbitzua "lehtasun osoa eta funtsezkoa" dela. "Horregatik, garrantzitsua da herri-tarren mugikortasuna eta irigarritasuna bermatzea. Aparkaleku hauen bitartez, era-

biltzaileen, familien eta langileen egunerokotasuna eta bizi-kalitatea hobetuko dugu".

TAO sistema aplikatuko da

Aparkaleku sisteman mugimendua bultzatu nahi dute bi erakundeek. Horretarako, TAO sistema ezarriko da. "Doakoa izango da, baina, gehienez, bi orduz aparkatu ahal izango da egunean. Hala, erabiltzaileen joan-etorria bermatu nahi da, eta pazienteak lehenetsi aparkatzeko unean". Halaber, ospitaleko langileentzako baimen bereziak emango dituzte.

Zalduspekoak, datorren astean

Esparru berriak behin-behineko bus geltokia izango du aurrealdean, eta atzeko aldean parking bat egokituko dute, "gaur egungo aparkaleku plazak bermatzeko". Bi fasetan ari dira egiten lanak: "Autobus geltokia aurreratua dago, eta orain, aparkalekuak kokatuko diren lurzoruan dauden pabiloiak eraisteari ekingo zaio datorren astean".

65 bat aparkaleku sortuko dituzte eta bus geltokia eta inguruko atontze lanak maiatzean bukatuko dituzte.



ARRASATEKO UDALA

Hirugarren diseinua nagusitu da

Obenerreka pilotalekuaren ondoan egingo duten parkour parkearen diseinuaren aukeraketan 251 boto jaso ditu Udalak eta nabarmentzekoa da horietatik 98 baliogabeak izan direla –NA barik eman dute botoa, Udalak azaldu duenez–. Hala ere, hirugarren diseinua izan da aukeratuena, 71 botorekin. Bigarrenak 51 boto jaso ditu eta lehenengoak, 31.

"Sare bat osatu gura dugu, elkar babesteko"

KEMEN ATXURRA PSIKOLOGOA

Droga-mendekotasuna dutenen senideei bideratutako programa bat jarri du martxan Arrasateko Udalak berriki, eta laguntza taldeko kideetako bat da psikologo lekeitiarra

T.M./E.A. ARRASATE

Programaren baitan, bi astean behin batuko den laguntza talde bat sortu dute, egunetan, 18:00etatik 20:00etara, Etxaluzen. Sostengu emozionala eta egoera zailak kudeatzeko tresnak ematea izango da taldearen helburua. **Noiz bihurtzen da drogen kontsumoa mendekotasun?**

Drogen kontsumoa mendekotasun bihurtu daiteke egunerokotasuneko ekintzak egitea oztopatzen gaituenenean. Hor bilakatzen da mendekotasun, lagun edo familia harremanak eta baita diruaren kudeaketa bera ere oztopatzen hasten denean.

Senideek edota lagunek nola antzeman dezakete hori?

Jarrera aldaketa batzuk eragiten ditu kontsumoak eta *craving* deiturikoak (bilaketa). Lanera huts egitea, ohi baino diru gehiago gastatzea eta etxe inguruan lapurreta txikiak gertatzea izan daitezke zantzu batzuk, adibidez. Pertsona hori mendekotasun prozesu baten hasieran, behintzat, egon daitekeela pentsa genezake hori gertatzen bada.

Ze onorio izan dezake senide batek mendekotasuna edukitzeak?

Familia bakoitza kasu bat da eta oso konplexua da orokortzea, hanka sartzeko arrisku handia daukagu eta. Halere, onartu behar dugu mendekotasun egoera bat sufritzen ari den pertsonak oso egokiak ez diren jarrera batzuk eduki ditzakeela eta horrek sufrimendua eragin dezakeela familian. Oro har, senitarteko bat bizi-kalitatea galtzen doala ikusteak sufrimendu handia eragiten du, mendekotasuna izan edo beste gaixotasun bat izan.

Senitartekoen errudun sentimendua ohikoa izaten da?

Bai. Senide bat bere gaitasunak galtzen ari dela ikustean, erantzukizun edo erru puntu bat sentitzea naturala da, dolu prozesu baten baitan gerta daitekeen



Kemen Atxurra, Lekeition, Paskual Abaroa etorbidean. IBAI ZABALA

"BABES EMOZIONALA, PSIKOLOGIKOA ETA PERTSONALA EMATEN SAIATU GARA SAIO HAUEN BITARTEZ"

gauza bat da. Dena den, momentuko egoera da inporta duena, eta horrekin egin behar dugu aurrera, atzera begiratu gabe. Bakoitzak ahal duenera arte lagunduko du eta laguntza hori beti da baliagarria.

Gizarte moduan, ze jarrera daukagu drogen kontsumoarekiko?

Moral bikoitza daukagu. Legalak diren drogekin oso permisiboak gara eta normaltasunez ikusten ditugu, esaterako, terrazak beteta, jendea alkohola edaten edo tabakoa erretzen ari denean. Beste droga batzuk, ordea, zigortu egiten ditugu.

Sortu berri duzuen taldeak zein helburu dauka nagusiki?

Batez ere, laguntza sare bat sortu gura dugu, egoera zailak gertatzen direnean erremintak eman eta bide zail horretan bidelagunak aurkitu ditzaten. Beraz, babes emozionala, psiko-

logikoa eta pertsonala ematen saiatuko gara.

Zelako saioak izango dira?

Partaideen beharizanen arabera moldatuko ditugu saioak eta unean uneko gaiak jorratu. Gainera, onuragarria izango da askotariko profilak egotea, taldea zenbat eta anitzagoa izan guztiok aberasten garelako. Beraz, ongietorria izango da edozein kezka daukan senide edo lagun oro, elkarrekin, elkarren laguntzaz, errazago egiten delako aurrera. Beraz, 945 25 20 07 telefonora deitzeko dei egiten diet.



NIRE USTEZ

RAMON UGALDE

Selekzio absolutua

Badira urte batzuk Iñaki Azkoagak *Vasco, ¿cómo se llama tu país?* liburua atera zuela. Galdera eta proposamen interesgarriak plazaratzen dira bertan. Beste liburu baterako emango lukete euskaldunon artean Espainia beste modu batera deitzeko erabiltzen diren *metaforek*. Gehienak erdaraz erabiltzen dira, normalean, eta *herri* hitza ulertu behar da *país* moduan, edo bestela, *pueblo*. Han eta hemen batutako esateko modu batzuk, adibiderako: España, Españistan, Estatua, estatuaren multzoa, penintsula, penintsularen multzoa, Herri hau, herri multzo hau, estatua osatzen duten herrien multzoa, Espainiatako herriak, Espainiak, Espainia deituriko erresuma hau, Ebrotik beherakoa, Pancorbotik haranzkoa, Hortik Behetik...

Dendetan, ordea, zerbait saldu behar dutenean "produktu nazionala" dela esango dizute. Grazia gehien ematen didana da EITBko kazetari batek erabiltzen duena Espainiako futbol selekzioari deitzeko: "Selekzio absolutua". Eta agian, oso serio dabil horrela deitzen dionean.

GORA ETA BEHERA



E.A.

Ezinduen txartelekin, "nahi duten moduan"



Herritar bat kexu da: "Batzuek ez dituzte errespetatzen Euskal Herria plaza kaleko ezinduen aparkalekuak. Nolabait txartela lortu eta hori erabiltzen dute. Lotsagarria da, amorragarria".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo ☎ 688 69 00 07.

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

arbolapeta

arrasate

beinke



Martitzenean, ipuin kontaketak egin zituen Dorleta Kortazarrek, goizean Kulturaten eta arratsaldean gaztetxean. E.A.

Berrasmatu eta egokitu, praktikatzeko jarraitzeko

AEDren baitako Zahar-Berri mintzapraktika egitasmoa modu berriak lantzen ari da hilabetean behin egiten dituzten saioekin jarraitzeko, eta, pandemia garaian, kultura ekitaldiak egiten ari dira: hitzaldiak, ipuin kontaketak, antzerkiak, eta abar

Eneko Azurmendi ARRASATE

Nerea Zugasti Zahar-Berri egitasmoaren Arrasateko dinamizatzaileak argi azaldu du: "Gure lana berrasmatzen ari gara. Azken batean, gure ekintza ohikoak txangoak izaten ziren lehen, eta orain ezin ditugu egin".

AEDren baitan dagoen mintzapraktika egitasmoa da Zahar-Berri eta, gaur egun, 80 bat pertsona ari dira mintzapraktika egiten Arrasaten, hamasei taldetan banatuta. "Taldea bakoitzak bidelagun bat dauka, gehienetan euskaldun zaharra izaten dena, eta hark kudeatzen du taldea, euskara ikasten ari den jendearekin. *Bidelagunak* eta *bidelariak* izenez ezagutzen ditugu guk", adierazi du Zugastik.

Tabernatik paseora

Pandemia hasi aurretik, normalean, astean behin elkartzen ziren talde horiek, "kafe bat hartuz ordubetez euskaraz hitz egin ahal izateko. Badaude beste gauza batzuk egiten dituzten

taldeak ere, mendi irteerak edota paseoak, baina gehienak kafe baten bueltan elkartzeko izan dira orain arte", dio Zugastik.

Horixe bera aitortu du Susana Alonso bidelariak ere. "Hasieran, kafe bat hartzeko elkartzen ginen, baina, pandemia dela eta, taldearekin paseo batzuk ematen hasi gara, eta pozik nago".

Mintzapraktikaren garrantzia

Alonso azpimarratu du esperientzia berri bat izateaz gain eta jende berria ezagutzeaz gain euskaltegitik kanpo euskaraz berba egiten ausartzeko aukera eskaintzen diola mintzapraktikak. "Normaltasun baten barruan egoten gara eta hori ere behar da hizkuntza bat ikasteko, inportantea da. Izan ere, euskaltegiarekin bakarrik ez dugu lortzen euskaraz hitz egiterik".


Mintzapraktika gauzatzeko funtsezko betekizuna da bidelagunarena, eta Hirune Iribecampos da horietako bat. "Lagundu egiten diegu ikasgelan ikasten

duren hori ikasgelatik kanpo praktikan jartzen, kalean edo bestelako espazio ez-formaletan. Ez da euskara formala. Zerbait gaizki esaten badute, guk erantzuten diegu zuzen ikusten dugun moduan, errepika dezaten eta ikas dezaten, baina era informala", azpimarratu du.

Ateak zabalik jarraitzen dute

Zugastik gogorarazi du ateak irekita dituztela eta mintzapraktika egiteko interesa dutenek hiru bide dituztela izena emateko: AEDk Pablo Uranga kaleko 4. atarian duen egoitzara joan, 695 78 68 52 telefono zenbakira deitu (Maitena) edota zaharberri@aedelkarte.eus helbidera idatzi.

ARRASATEN 80 BAT PERTSONAK EGITEN DUTE GAUR EGUN MINTZAPRAKTIKA, HAMASEI TALDETAN



NEREA ZUGASTI
DINAMIZATZAILEA

"Euskara ikasten ari den horri, euskaltegietatik irten eta modu informala goan espazio bat eskaintzen dio Zahar-Berri, euskara batuan edota euskalkian lasai hitz egiteko, inongo presiorik barik. Askotariko profilak ditugu, eta edozeinek hartu dezake parte gurean".



SUSANA ALONSO
BIDELARIA

"Txikitatik dakit euskaraz, baina ia beti gaztelaniaz egiten izan dut eta ez nintzen ausartzen euskaraz egiten. Mintzapraktikari esker, ez dut lotsarik. Gehienok gaude egoera berean, eta, alde horretatik, oso lagungarri egiten ari zait. Beti dago norbait laguntzeko prest".



HIRUNE IRIBECAMPOS
BIDELAGUNA

"Nik etxean dohainik jasotakoa eskaintzen diet ikasleei, eta iruditzen zait euskaraz aurrera egitea gura badugu, normalizatu egin behar dugula eta askotariko espazioetan euskaraz aritzeko aukera eman behar diegula euskara ikasten ari diren horiei guztiei".

Bizilagunen beharrak Udaleri helaraziko dizkio Zuntza2021-ek

Zuntz optikoa behar dugu: kontatuzure esperientzia ekimenaren bitartez, alde zaharreko bizilagunek euren esperientziak eta beharrak adierazi zituzten joan den egubakoitzean. Modu berean, Zuntza2021 taldeak konpromisoa hartu zuen Herriko Plazan bildutako bizipen, lekukotasun nahiz eskaera guztiak Udaleri helarazteko.

Zuzendaritza berria dauka Abaroa erretiratuen etxeak

Asteon egin dute batzar orokorra eta Jose Riviere izango da berriro presidente. Harekin batera, Roberto Zazo presidenteordea, Jose Lopez de Arkaute idazkaria, Maria Concepcion Riviere diruzaina eta Josefa Gorosabel, Felix Delgado, Maria Soledad Ruiz eta Rosalia Francho batzordekideak. Kulturaten egin dute batzarra, pandemiagatik.

Kataideko bidegorriko obrak "uda aurretik" lizitatuko dituzte

Sozialistek albiste "pozgarriztat" jo dute Zabaleta zubiaren eta Epeleko araztegiaren arteko bidegorriaren konponketa lanen exekuzioa. "Bizikletentzako erreiak mugikortasun jasangarria sustatuko du, eta oinezkoen eta zi joan-etorriak igoarazi". Gaineratu dute Gipuzkoako Mugikortasun Sailak ez duela zerikuririk izan obrak geldid egotearekin.

LAB sindikatuak elkarretaratzea deitu du gaur eguerdirako

Martitzenean, Espainiako Poliziak LAB sindikatuko sei kide atxilotu zituen Nafarroan, "martxoaren 8an CEN enpresaburuen elkarretaren egoitzan egindako protesta bategatik eta apirilaren 9an Garbiketen greba iragartzeko ISN enpresako kamioi baten gainera igotzeagatik". Hori salatuz, 12:00etan elkarretaratzea egingo dute Seber Altube plazan.

Garaion Sorgingunean egingo dituzte udalekuak

Egoerari aurre egin, eta udaleku itxiak antolatu ditu aurten ere Txatxilipurdi Elkarteak; nerabeek euskaraz, naturaz, sormenaz eta bizikidetzaz bustitako oporraldiak merezi dituztela adierazi dute; Arabako Ozeta herrian egingo dituzte, uztaillaren 3tik 10era

Eneko Azurmendi ARRASATE

Uztaillaren 3tik 10era bitartean, 9 eta 16 urte bitartekoei zuzendutako udaleku itxiak egingo ditu Txatxilipurdi Elkarteak, eta aurtengoek Garaion Sorgingunea izango dute kokaleku, Ozetan (Araba).

Adin tarte ezberdinetako hiru talde elkartuko dira udaleku horietan eta adin tarte bakoitzak bere herritarra propioa izango du Sorgingunean. Modu horretan, Lehen Hezkuntzako laugarren, bosgarren eta seigarren mailetakoei Aizkomendi herrirako osatuko dute; DBHko lehen eta bigarren mailakoei, Gebara herrirako; eta DBHko hirugarren



Txatxilipurdi elkarteko kideak, Euskararen Plazan, udalekuen kartelarekin. A.M

eta laugarren mailetakoei, Sorginetxe herrirako. "Talde bakoitzak hogeitaz gazte hartuko ditu, bi hezitzaileekin, eta bakoitzak bere egitaraua izango du; modu autonomoan funtzionatuko du", adierazi du Txatxilipurdiko kide Itsaso Gallastegik.

Euskara, natura eta sormena

COVIDak ekarri dituen zailtasun eta erronkez jabetu arren, Txatxilipurdiko ordezkariak adierazi dute aurre-nerabeek eta nerabeek euskaraz, naturaz, sormenaz eta bizikidetzaz bustitako oporraldia merezi dutela, eta udaleku itxiak eskaintzeko urratsa egin dute. Bestalde, osasun agintarien "protokolorik eza" nabarmentzeaz gain, sektore horretan oinarri batzuk finkatzeko beharra dagoela azpimarratu dute.

Izen-ematea, asteleheneetik

Izena emateko epea apirilaren 26an irekiko da, astelehenean, eta arrasatearrek lehenetsua izango dute hasieran, maiatzaren 10era arte. Ostean, Euskal Herri osora zabalduko dute deialdia eta maiatzaren 21era arte egongo da izena emateko aukera,

elkartearen webgunearen bitartez www.txatxilipurdi.eus.

Udalekuen prezioa 300 eurokoa den arren, deskontuak ere badaude, baldintza jakin batzuk betetzen badira. Hala, familia ugari edo AEDko bazkide direnek %5eko deskontua izango dute eta bi baldintzak betetzen dituztenei, berriz, %10eko deskontua egingo diete.

Hezitzaileendako deialdia

Bestalde, aurten ere udalekuetan hezitzaile zein praktikagile gisa aritzeko deialdia ireki du elkarteak, eta haur eta gaztetxoekin lan egiteko gogoia dutenak animatu gura izan dituzte. Curriculuma bidaltzeko azken eguna apirilaren 30a izango da eta derrigorrezko egun osoko saio bat ere egin beharko dute hezitzaileek, maiatzaren 22an.

18 urte edo gehiago izatea, euskara jakitea, Txatxilipurdik antolatzen duen formakuntza saiora joatea eta Arrasatekoa edo bailarakoa izatea dira izena emateko baldintzak, eta begirale titulua eta esperientzia ere kontuan hartuko dituzte. Informazio gehiago, Goiena.eus-en.



DEBAGOIENEN GREMIOAK



AROTZEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA
BERGARA / Telleria 19 B02-B03
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS ARRASATE SL
ARRASATE / Meatzerreka 30
Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87
e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA
ARRASATE / Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA / Aranburuzabala 15
Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69
f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA / Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

LOREZAINZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA / Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 - 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45



Mondragon Unibertsitateko jokalariek, EBAko garaikurrak gozaten. ANGEL AYASTUY

Majo sufritzeak dakarren sariak bikoitza balio du

EBA mailako AA taldeko 2020/21 sasoiko txapelkun bihurtzeaz gain, Zilarrezko LEB Mailan aritzeko igoera fasea jokatzeko txartela eskuratu zuen herenegun Mondragon Unibertsitateak; luzapeneko azken minutuan erabaki zen emozioz betetako neurketa

Hasier Larrea ARRASATE

Mondragon Unibertsitatearentzat Santurtziren aurkakoa ligako azken hirugarren partidua bazen ere, final kutsua izan zuen hasieratik bukaerara eguzten arratsaldean Iturripen jokatu-takoak. Ointxeokoa lider ziren sailkapenean, hamazazpi norgehiagokatan hamalau garaipen erdietsita, eta bazekiten Ezke-

rraldekoiei gailenduz gero txapelketako garaikurra altxako zutela arauzko denbora agortzearekin bat. Beharbada, tentsio horrek eragin zuen lehia hain modu gogorrean garatzea. Halakoetan, gakoa emozioak ondo kudeatzea izaten da, eta Iñaki Ogaren entrenatzaileak zertxobait badaki horretaz. "Jokalarieei zaila egiten zaie urduritasuna

hainbeste denboran zehar jasatea; ondorioz, emozioen kudeaketa da hitzordu konkretu hautan prestatu behar den faktorerik garrantzitsuenak", adierazi du MUko prestatzaileak. Hala ere, kontrarioa ez du gutxietsi nahi izan: "Aurkari gogor eta ona izan dugu aurrean, baina taldeak, zorionez, ondo atera du partidua aurrera".

Orekaren ostean, eromena

Osagai indartsuz betetako neurketa bizi izan zuten Iturripeko kantxan. Lehen bi laurden oso parekatuen ostean, hamar puntuko aldea lortu zuten etxeokoa hirugarren laurdenean. Bazirudien azken hamar minutuak erosoak izango zirela, baina bisitariak, kikiltzetik urrun, hamabost eta hutseko partziala erdiestera iritsi ziren. Hortaz, ezustean korrontearen kontra arraun egitera behartuta zeuden Arrasateko ordezkariak, oso tarte gutxiko marjinarekin. Puntuetan oso berdinduta, detaile txiki batek eraman zezakeen partidua alde batera edo bestera. Azken segundoetan bi azpitik zeuden Ointxeokoa, eta azken jokaldiko barneraketan berdindu eta aldeko jaurtiketa libre atera zuten. Sartuz gero, garaipena poltsikoan. Baina huts egin zuten; ondorioz, bost minutuko luzapenean erabakiko zen guztia.

Fase horren hasiera zalantzia izan zen, kosta egiten zitzaion bi taldeei saskia ikustea. Berriz ere jarri zen atzetik marea morea -62-65-, baina ohiko garra erakutsi eta minutu eta hogeitasegundo faltan markagailua iraultzen hasi zen. Defentsan zorrotz arituta, ez zuten saskiratze bakar bat ere jaso; erasoan, berriz, sortutako aukerak baliatu eta zazpi puntu pilatu zituzten erreskadan. Minutu gorabeheratsuen ostean, momenturik erabakigarrienean, berea eman zuten jokalariek, eta odol hotza eta eskarmentua daukatela erakutsi. Amaieran, 69-65 nagusitu zen Mondragon Unibertsitatea. Ogaren esanetan: "Momentu txarretan taldeak erakutsitako batasunak ekarri digu arrakasta, zer aldatu eta zer mantendu jakin baitugu".

Tronpeta eta xanpaina

Jokoaren 45 minutu itogarrien ostean, poz eta algarak eztanda egin zuen Iturripen. Jokalariek gogotik ospatu zuten urte osoan zehar egindako lanak emandako ordainsaria. Martxel Balanzategi kapitainak EBA mailako txapelkunari dagokion kopa altxatu zuen bere taldekideen ospakizun oihuen artean. Ondoren, aldageletan jarraitu zuen festak, kapitainak bere tronpetaz girotutako kantuekin. Gogotik ospatu zuten garaipena jokalariek; are gehiago, Zilarrezko LEB Mailara igotzeko fasea jokatu dutela jakinda.

Aurretik, baina, EBA ligako azken bi neurketak jokatu dituzte. Lehena, 21. jardunaldiari dagokiona, bihar arratsaldean izango da, 19:00etan hasita, Iturripen berriz ere. Aurrean Zaragozako LBC Cocinas.com taldea izango dute. Datorren astean Donostiara joango dira, EASO Bodegas Mugaren kantxara. Bi neurketa horiek mailaz igotzeko *play-off*-a prestatzeko balio izango diete Iñaki Ogaren mutilei. Entrenatzaileak berak onartu bezala, lorpen hori eskuratzeko "gogo biziz" dago taldea; horretarako, ordea, orain arte bezala jarraitu beharko dute lanean.

Zilarrezko LEB Mailara igotzeko fasea maiatzaren 12tik 16ra bitartean jokatu dute, "hasiera batean", Ointxeoko gizonetakoek. Oraindik non jokatuko den zehazteke dago.

LIGAKO AZKEN BI PARTIDUAK JOKATU OSTEAN JOANGO DA MU MAILAZ IGOTZEKO FASEAN LEHIATZERA

"Datozen hiruzpalau urteetarako proiektua garatu nahi dugu"

ANDER ROMERO MONDRAGO KIROL ZUZENDARIA

Aurrera begira erronka berriak dauzka futbol klubak

H.L. ARRASATE

Gizonezkoen talde nagusia gaztetzen dabilela eta, epe luzera begira jarri dira Mondragon.

Konfinamendua eta aktibitate falta medio, nola egin diozue aurre denboraldi arraro honi?

Aste gutxitan prestatu behar izan genuen lehiarako, zazpi partiduko txapelketa egingo zela adierazi baitzigun Federazioak azken momentuan. Asmoa *play-off*-erako sailkatzea zen, baina kale egin genuen.

Galdutako urtea da aurtengoa?

Ez horixe. Gaur egun, taldearen jarrera ona da, eta jarraian jokatuko dugun Kopan lan ona egitea da asmoa.

Nolako txapelketa izango da?

Hamar taldek eman dezakete izena, guztira, eta guk dagoeneko eman dugu. Kanporaketak izango direlakoan nago.

Eta datorren urtean, zer?

Proiektu berria eraiki nahi dugu 3-4 urtera begira. Hausnartzen gabiltza, epe motzerako helburuak, taldearen profila eta en-



Ander Romero. GOIENA

trenatzailearena definitzen. Taldea gaztetzen eta berritzen ari da; beraz, hainbat protagonistarekin, hainbat helburu finkatu ditugu.

Gazteenak ezin izan dira lehiatu.

Tamalez, infantiletatik beharkeko entrenatzeko aukera baino ez dute izan. Goitik datozen erabakia dira.

Joan den astean, Urolaren aurkako partidua bertan behera gelditu zen.

Bai, eta eskerrak, jokalariek batek positibo eman baitzuen. Maiatzaren 1era atzeratu dugu.

Musikaldiaren bigarren astea, etxekoekin batera

Arrasate Musikaleko orkestrak eskainiko du udaberriko musika jaialdiaren laugarren kontzertua, gaur arratsaldean, San Frantzisko elizan; bihar, Azul hirukotearen txanda izango da; eta domekan, KUP abesbatzak borobilduko du bi asteko egitaraua

Hasier Larrea ARRASATE

Arrasate Musikaleko orkestra haize, hari eta perkusio instrumentuz osatutako orkestra sinfonikoa bada ere, bertako musikariek ezin izan dute osotasunean jardun, pandemiagatik, eta hari instrumentua darabiltenek baino ez dute talde bezala agerraldia aurkezteko aukera eduki. Arrazoen artean, "guztiek batera protokoloa betez entseatzeko toki falta eta maskararen derrigorrezko erabilera" aipatu ditu elkarteko kide Edorta Ayastuik. Hala ere, garaiotan kontzertua eskaini ahal izatea "berri pozgarria" dela nabarmendu nahi izan du, zuzenkorik gabe musikariei "motibazio falta" nabari zaielako iritzita. Gainera, entseguetan ez dute etenaldirik izan, eta praktika falta, beraz, ez da aitzakia izango.

Joan den abenduan bezala, gaur arratsaldean ere San Frantzisko elizako ohiko isiltasuna biolin, biola, kontrabaxu eta biolontxelo doinu bezala beteko du herriko musika eskolako orkestrak: "Abesti klasikoak eta garakideak aukeratu dituzte, pasodobleetatik hasi eta film ezagunen soinu bandetaraino", dio Ayastuik. Musika tresna jakin horiekin bakarrik jotzeak zailtasunen bat edo beste sorraz diela ere aitortu du: "Batez ere, interpretatzeko materiala aurkitzeko orduan".

Oztopoak oztopo, errepertorio txukuna osatzeko gai izan dira, beste behin. Iker Olazabalen zuzendaritzapean, Antonio Vivaldiren *concerto* bat, Georges Bizeten habanera bat eta Isaac Albenizen tango bat eskainiko dituzte, besteak beste.

Kolaborazioak, "ohikoak"

Euren kontzertu propioak emateaz gain, urtero zarzuelarekin eta azkenaldian *Humanity at music* sinfonia kooperatiboarekin elkarlanak egiten ditu Arra-



Arrasate Musikaleko hari orkestra, San Frantziskon entseztzen. EDORTA AYASTUI

DOMEKAN AMAITUKO DA BI ASTE IRAUN DUEN SEI KONTZERTU SORTAKO GOI MAILAKO JAIALDIA

sate Musikaleko orkestrak. Fernando Velazquez zuzendari entzutetsuaren esanetara, sei kontzertu eskaini dituzte, Mondragon kooperatibaren balioak musika-notekin jantziz.

Bihar, Azul hirukotea

Musikene eskolako harrobian zaildutako Azul izeneko taldeak hartuko dio hari orkestrari testigua Musikaldiaren hurrengo egunean. Kontzertu hori Kulturaten izango da, eta gerturatzeko denak Jaume Sansen flautaren, Nere Azconaren harparen eta Iker Isasiren biolaren arteko sinkroniaz gozatzeko aukera izango du. Begi bistakoa da harribitxi ugari ateratzen direla azkenaldian Musikenetik, udaberriko jaialdiaren joan den asteko programan Aris hirukotearekin frogatu zen bezala.

Eta amaitzeko, KUP

Sei emanaldiko egitaraua ixteaz arduratuko da, domeka arratsaldean, duela 15 urte baino gehiago Tolosan sortutako KUP abesbatza. Gabriel Baltes zuzendari frantziarraren gidaritzapean, 35-40 abeslari inguruk osatzen dute KUP; tartean, Aitor Biain, Gora Aranburu eta Amaia Igartua oñatiarrek eta Carlos Etxaniz eta Aitor Garitano bergararrek. Azken horrek zehaztu du "musika korala" egiten dutela, "antzinako kantak eta erromanizismokoak" uztartuz. Aurre-urpean modura, Gabriel Faurek konposatutako *Requiem* interpretatuko dutela adierazi du Garitanok.

Sarrerak, sarean

Aurreko hiru kontzertuekin gertatu bezala, oraingo honetan ere Arrasateko Udalaren webgunean eskuratu ahal dira emanaldietara joateko sarrerak. San Frantziskoko bi kontzertuek, gaurkoak eta domekakoak, bost euro balioko dute, eta bihar Kulturaten eskainiko dena, berriz, doakoa izango da. Hitzordu guztiak arratsaldeko zazpietan dira hastekoak.



Assata taldea, Gabonetan, Biteriko karpan. ASSATA

AGAKO eguna, Assata taldearen eta Haizea & Ningraren doinuekin

Gaztetxeko asanbladaren 30. urteurren egunaren harirako kontzertua eskainiko dute bihar eguerdian

H.L. ARRASATE

Dantzatu madarikatuok! diskoak iradokitzen duen moduan, gerria mugitzera animatuko ditu ikusleak, eserita bada ere, musika beltza eta elektronikoa uztartzen duen Assata boskote arrasatearrak, AGAKOk biharko -12:00etan hasita- gaztetxean bertan antolatuko duen egitarauaren baitan. Arkaitz Biain abeslariak aipatu du "ilusio handiz" jaso zutela kontzertua jotzeko gonbidapena: "Gu geu ere gaztetxearen parte izan garen heinean". Are gehiago, "talde txikiek" publiko aurreko emanaldi "murrizak" eskaintzen dituzten garaiotan "etxean jotzea luxua" dela esan du Biainek. Lan luzeko kantuez gain, abesti berri batzuk eta bizpahiru bertsio ere aurkeztuko dituzte, gainera.

Assatarekin batera igoko da oholtzara Gasteizko Haizea & Ningra rap bikotea. Biainek

berak aitortu du "gustu handiz" partekatuko dutela agertokia eurekin: "Urtarrilaren 2an ikusi nituen zuzenean; proposamen indartsu eta aldarrikatzailea dario euren estiloari, eta datozen urteetan zeresana emango dutelakoan nago". Kontzerturako sarrerak agortuta daude jada.

Joan den zapatuko Gala Galantaren ere egon ziren Assatako musikariak. Biainen esanetan, "AGAKOk eta AGAK urteetan egindako lanari balioa emateko egitasmo ederra izan zen, eta agerian gelditu zen egungo lantaldeak egin duen esfortzua, dokumentalaren eta liburuaren kaleratzearekin".

Arratsaldean, "Monterronen"

Euririk egiten ez badu egun berean Monterron parkean sorpresaz betetako ekitaldia egiteko asmoa du AGAKOk, 30. urtemugari amaiera emateko.

'Go!azen'-eko aktoreen emanaldia bihar Amaian

EITBren *Go!azen* telesaileko zazpigarren denboraldiko protagonistek ikusmin handia sortu dute herriko neska-mutilen artean, bihar arratsaldeko sei-tan programatutako emanaldirako sarrerak duela egun batzuk agortu baitziren. Aktore eta abeslariak telesailean zehar agertzen diren kantak partekatuko dituzte publikoarekin.

Ausortuko izen-ematea maiatzaren 7an amaituko da

Eñaut Elorrieta abeslaria izango da sormen laborategiko protagonista maiatzaren 16an. 15 eta 25 urte artekoak diziplina artistikoetara gerturatzeko asmoz antolatzen dute egitasmo hori Ttak-ek eta Txatxilipurdik. Heziketa elkartera eta AEDra deituta eman daiteke izena; matrikulak 15 euroko kostua dauka eta 20 lagunentzako tokia dago.

Bi enpresak dute parke eolikoak egiteko interesa

Publiko-pribatua den Aixendar sozietateak Jarindon haize neurgailu bat jartzeko prozesua martxan jarri du; horrez gain, Norvegiako Statkraft enpresa Udalarekin harremanetan jarri da Kruzetan haize errotak jartzeko duen interesa adierazteko

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Aramaioko Udalak deituta bilera irekia egin zuten eguaztenean kultura etxean, Aramaion parke eolikoak egiteko dagoen nahiaren inguruko azalpenak emateko. Joan den asteko berria da Aixendar sozietateak Jarindon, hain zuzen, udalerriko 8 poligonoko 142 B lurzatian, haize neurgailu bat jartzeko lizentzia eskatu duela. "Ez daukagu informazio gehiagorik. Dakigun bakarra da Jarindoko tontorrean estazio meteorologiko bat jarri nahi dutela, 81 metroko dorre bat", azaldu du Iban Herrarte zinegotziak. Dorrea kable bidez mantenduko litzateke zutik; eta neurketak egiteko arrazoia parke eoliko bat egiteko asmoa izango litzateke. Kablea jarri nahi duten lurzorua urbanizaezina da. Hala ere, interes komunen izenean, zenbait baimen lor daitezke: "Udala behartuta dago prozesua zabaldu eta Diputazioari eskatzera interes komuneko jardura bat dela,

Diputazioak horrela izendatu dezan".

Kontua da asteon beste enpresa bat jarri dela Udalarekin harremanetan. "Norvegiako Statkraft enpresak Kruzeta-San Adrian-Asensiomendi inguruan hamar sorgailuz osatutako parke eoliko bat jartzeko asmoa erakutsi du", dio zinegotziak.

Alegazioak, udaletxean

Udalak alegazioa jarriko dio interes komuneko izendapenari. Herritarrei egin die alegazio horrekin bat egin dezaten, edo bestelako alegazioen bat jartzera animatu. Udaletxean jar daitezke alegazioak; Udalak bideratuko ditu Aldundira.

Bi proiektu horiek eragingo luketen kalteez jardun zuten eguazteneko bileran.

Energia berriztagarriak

2030era begira, Europak energia berriztagarrien inguruan erronka handiak ditu. "Erronka horietatik urrun dabil EAE, eta momentu honetan Araban lau parke eoliko handi egiteko nahia erakutsi du Jaurlaritzak; Aramaiokoa bosgarrena litzateke", azaldu du Herrartek. Aixendar sozietatearen %60 Iberdrolarena da eta beste %40, Energiaren Euskal Erakundearena.

Proiektu horien daten inguruan, Herrartek azaldu du Aixendarren proposamena alegazio epean sartuta dagoela. Maiatzaren 11ra arte dago alegazioak aurkezteko. "Proiektuak aurrera egingo balu, haize neurgailuak, legez, urtebetez jaso beharko litzuzke datuak", dio Herrartek. Norvegiako kronogramaren arabera, irailean haize neurgai-



Eguaztenean kultura etxean egindako bilera irekia. A.E.

lua jarriko lukete, eta asmoa 2025eko uztailean parkea %100ean martxan egotea izango litzateke.

Kalteak ingurumenean

Arabako Mendiak Aske plataformako kide Iñigo Lezak hartu zuen hitza jarraian. Berriztagarrien "aitzakian" mendiak errotaz eta lautadak plakaz josi nahi dituztela esan zuen. Gaineratu zuen parke eoliko bat egiteko beharrezkoa dela PTS -lurraldearen arloko plana- bat izatea, eta, momentuz, EAEn ez dagoela PTSrik: "2009an, Eusko Legebiltzarrak atzera botatu zuen ordua arte zegoena".

Egin nahi dituzten proiektuetan erabiliko dituzten haize erroten 200 metroko altuera

izango dute -Elgeako dorreen altuera 60 metro da-, eta gaez argia piztuta izan beharko dute: "Zarata sortzen dute, herriak hustuz; hegaztiak hiltzen dira; akuiferoak apurtu; 15 metroko pistak egin behar dira mendian; kultur ondarea hondatu...".

Zein da alternatiba?

Lezaren ustez, fokua kontsumoan jarri behar da: "Bertakoa eta garaikoa kontsumitu". Horrez gain: "Teilatuetan eguzki plakak jarri, beste era bateko eolikoak erabili, txikiagoak eta helize bakoak... dira alternatibak". Herrartek ere berriztagarrien beharra eta herritarren ardurak aipatu zituen, baina beste eredu baten alde egingez.

"Aurten, espazio faltaren beharra nabarmenago egin da"

OIHANA AMESKUA ZINEGOTZIA

Nerabeendako aisialdi talde bat sortzea da asmoa

A.E. ARAMAIO

Zapatuan, nerabeen aisialdi aukerak aztertzeke bilera irekia egin zuten udaletxean.

Nola baloratzen duzu bilerak emandakoa?

Gogotsu eta pozik irten ginen. Hamazazpi lagun elkartu ginen, nerabeak eta gazteak. Modu dinamikoan planteatu genuen bilera, eta horrek aukera eskaini zigun euren berri izateko.

Zein aukera dituzte gaur egun nerabeek Aramaion?

Aukerak badituzte. Gure kezka da 12 urtera arte Aramaion haur-

tzaro osasuntsu, duin eta aberatsa izateko aukera dutela; eta, adin horretatik aurrera, aldaketa handia izaten dutela. Herriarrekiko eta baita hizkuntzarakiko ere desafektazio handia eragiten du horrek.

Eta zein da euren kezka nagusia?

Herrian zein leku okupatzeko aukera duten. 15-16 urtekoek gazte lokala dute, baina gaur egun itxita dago. Espazio faltarena ez da berria, baina aurten bizi dugun egoerarekin espazio falta hori nabarmenago egin da. Belaunaldi ezberdinak elkarre-



Oihana Ameskua. A.E.

kin aritzeko proposamena garatu behar dugu.

Hurrengo pausoa zein da?

Maiatzaren 15ean, 20-25 urte bitarteko gazteei lau orduko formakuntza-saioa bat eskainiko zaie, Txatxilipurdirekin.

'Kutxa bira'-n sartzeko mezua domekara arte bidal daiteke

Martitzenean iritsiko da kutxa Aramaiora; 11:00etan eskolan egingo zaio harrera eta 18:30ean parkean

A.E. ARAMAIO

Diaspora eta hainbat euskal herri euskararen inguruan batzeko helburuarekin abiatu zuten Argentinan, martxoaren 20an, *Kutxa bira*. Ekimena Iparra-Hegoa elkarteak antolatuta du, eta martitzenean, apirilaren 27an, Aramaiora iritsiko da.

Ekimenaren oinarria egurrezko kutxa bat da. Kutxa horren barruan mezu bat egongo da eta aramaiorrek euren mezua sartzeko aukera izango dute. Horretarako, aramaiorren ametsak eta aldarrikapenak batu nahi

dituzte: mezua bidali nahi duenak apirilaren 25erako egin beharko du, aramaixokutxabira@gmail.com helbidera mezua idatzita. Argazki edo bideo bidez ere egin daiteke, horizontalean grabatuta.

Martitzenean, 11:00etan, San Martin eskolan egingo zaio harrera kutxari, eta eskolako mezua sartuko dute. 18:30ean, aldiz, ekitaldia egingo dute parkean. Manifestua irakurriko dute eta Aramaioko mezua irakurri eta kutxan sartuko dute. Musika, dantza, bertsoak... egongo dira.

Egunerokotik irten eta barre eginez gozatzeko

'Umore asteburua' antolatu dute. Adin askotarikoei bideratutako lau saio egingo dituzte, gaur hasi eta domeka bitartean. Haurrei zuzendutako antzerkian eta nagusiei zuzendutako bakarrizketan jasotako dirua Irati Garaitonandiarendako izango da

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Umorea ezinbesteko du gizakiak. Are gehiago, gaur egun dagoen pandemia garaian. Zenbaiten ustetan, egoera arintzeko balio du umoreak. Hala, hori bera pentsatuta, *Umore asteburua* egitea erabaki dute Aramaion. Lau kultur ekitaldi antolatu dituzte aste bukaerara begira, eta, hain zuzen, laurak izango dute umore ukitua.

"Gauzak dauden moduan egonda, *Umore asteburua* egitea pentsatu dugu. Jendeak barre egiteko modua ere izan dezan, eta egungo egoeran ahotan une oro ditugun betiko gaiez gain bestelako gaiez ere hitz egiteko", azaldu du Kultura teknikari Itsaso Aspiazuk.

Haurrei zuzendutako antzerkia

Gaur, barikua, umeendako antzerkia eskainiko dute, kultura etxean, 17:30ean. Txintxeta, Klipa eta Txorroskilo pailazoek *Hondartzan perretxikotan* antzezlan eskainiko dute. Hiru pailazoek hondartzara egingo duten bidaian zehar, etxeko txikiak Euskal Herriko arrantza, abeltzaintza eta nekazaritza ezagutzeko aukera izango dute.

50 minutu iraungo du antzezanak. Sarrerak 2 euroren truke jarri dituzte salgai. Eguaztenerako, sarreren erdiak salduta zituzten; sarrerarik egongo balitz, gaur bertan ere salduko lirateke.

Antton Telleriaren bakarrizketa

Bihar, zapatua, Antton Telleriak *Nekatutak* bakarrizketa eskainiko du, kultura etxean, 19:00etan. Sarrerak 5 euroren truke jarri dituzte salgai.

Barre eginarazteko helburu bakarrekin, delikatuak izan daitezkeen hainbat gai plazaratuko ditu Telleriak, eta zenbait kolektibo aipatuko ditu: psikologoak, ETA, Ertzaintza eta irakasleak, bestek beste.



Txintxeta, Klipa eta Txorroskilo pailazoak. KURKULUXETAN.EUS

DOMEKAN, 'ASTO ERREGA' ETA 'EL GRAN BAÑO' FILMAK ESKAINIKO DITUZTE KULTURA ETXEAN

Bi filmen eskaintza

Domekan, bi film eskainiko dituzte: bat haurrei zuzendutakoa eta bestea nagusiei zuzendutakoa. Bi filmak umorezkoak izango dira. Umeen saioa 17:00etan izango da, eta *Asto erregea* filma

eskainiko dute. Nagusiei zuzendutakoa, aldiz, 19:00etan izango da. *El gran baño* filmak igeriketa sinkronizatua egiten hasiko den gizon talde baten egunerokoa azaltzen du. Gilles Lellouche zuzendariaren lana da, 2018an Frantzia ekoiztua.

Umore asteburua-n eskainiko dituzten ekintzak adin askotarikoei bideratutakoak direla azaldu du Aspiazuk; aste bukarako ekitaldiek izango duten erantzunaren arabera, hurrengo urtean errepikatuzko moduko ekimena izan daitekeela dio.

Dirua, Irati Garaitonandiarendako

Gaurko antzerkiko sarreretatik eta biharko bakarrizketako sarreretatik jasotako dirua Irati Garaitonandia Martelori bideratuko zaio. Dirua erabiliko dute Garaitonandiak behar duen aulki berezia erosteko, gaur egun duena dagoeneko txiki geratu zaiolako. Gaztetxoaren amak azaldu du neoprenozko traje bat ere erosi behar dutela, bizkarra zuzendu eta oreka hobeto mantendu dezan: "Trajea egunero jantzi behar du, lotarako bakarrik kenduko du". Nabarmendu behar da Irati Garaitonandiak *Marrazkiak* izeneko erakusketa bat duela zabalik Aretxabaletan; apirilaren 30era arte egongo da zabalik, Arkupe kultura etxean. Gainera, gaztetxoaren lagunak hainbat ekintza antolatzeko asmotan dabilta, behar duen aulkia eros dezan.


Finalerdietarako sailkatu dira Abarrategi eta Agirre, zuzenean

Araiako saioa irabazi du bikote aramaioarrak; bihar, txapelketako hirugarren saioa jokatuko da, Oionen

A.E. ARAMAIO

Araiako saioan puntuazio altuena lortuta finalerdiak jokatuzko txartela eskuratu dute Martin Abarrategi eta Manex Agirrek. Binakako bertsolari txapelketan bikotea osatzen dute bi bertsolari aramaioarrek.

Araian jokatutako saioan, Abarrategi eta Agirre bikoteak 474 puntu eskuratu zituzten. Saioko beste bi bikoteen puntuazioa izan zen: Peru Abarrategi eta Beñat Garaio, 469 puntu; eta Aitor Ugarte eta Eli Zaldua, 434 puntu.



Abarrategi kantuan eta Agirre atzean.

Bihar, hirugarrena

Bihar, zapatua, Oionen jokatuko duten final-laurdenean erabakiko da zein sei bikotek jokatuko dituzten finalerdiak. Bikote irabazlea zuzenean pasako da hurrengo fasera, eta gainontzeok, puntuazioaren arabera.

Apirilaren 17an Izarran jokatutako saioko sailkapena hau izan zen: zuzenean sailkatu ziren finalerdietarako Iñaki Viñaspre eta Unai Anda; Felipe Zelaietak eta Xabi Igoak, 453,5 puntu; eta Andere Arriolabengoak eta Xabier Antiak, 426 puntu.

Julen Olaizolak Bizkaiko finala jokatuko du, pilotan

Aramaioko pilotariak Orozkoko pilota elkartean jokatzen du azkeneko urteetan, eta zapatuan Bizkaiko binakako finala jokatuko du, gazte mailan. Bikotekide izango du Laudioko Arkaitz Eskuza. Orozkoko elkartean jokatzen dute biek ala biek. Aurkariak, aldiz, Dimako Xabi Rekalde eta Orozkoko Ioritz Arbaiza izango dira. Finala Zea-

nuriko frontoian jokatuko dute, bihar, zapatua, 18:00etan.

"Final parekatua izango da. Ligan elkarren aurka jokatuko izan da: 22-21. Finalerdietako emaitzak ere antzerakoak izan ditugu: guk 22-9 irabazi genuen eta eurek 22-10. Guk gurea ondo egiten baldin badugu, irabazteko moduan egongo gara", dio Olaizolak. Azkenaldiko eskuko minak gaintitu egin dituela dio: "Azken hilabeteetan minez ibili arren, orain hobeto nago, min barik".

OHARRAK

'Dantza familian', bihar, frontoian

Dantza familian saioa eskainiko du Oihane Vicente irakasleak, 3 urtetik gorako haurren familiendako. 11:00etatik 12:00etara izango da. Aurrez eman behar da izena: 617 03 16 59.

Ekintzaileei laguntzeko programa

Langabezian dauden eta euren negozioa jarri nahi dutenei laguntzak eskainiko die Lanbidek. Informazio gehiago, 945 43 01 67 edo ekonomia@gorbeialdea.eus helbidean.

Belar-sastrakak garbitzeko lanetan

30 bat hektarea garbituko dituzte Tellamendi eta Ipizteko Arriaga inguruan. Lanak udazken aurretik amaituko dituzte.



Osasun Sailetik jasotako aitortzaren berri emateko elkartuta. M.A.



Donostian egindako jardunaldien aurkezpena. M.A.



Komunitateari konpromiso eske egindako deialdia. M.A.



Madrilgo Rey Juan Carlos unibertsitatean. UDA



San Juan de Diosko eta UDAko kideak, partidua jokatzeko gertu. M.A.



Egin dezagun jauzi handi bat liburuaren aurkezpena. ENEKO AZURMENDI

UD@A proiektuari aurrera egiteko hauspoa eman dio Osasun Sailak

Aretxabaleta kirol elkarteak eta San Juan de Dios ospitaleak 2017an abian jarritako egitasmoari aitortza egin dio Jaurlaritzak; elkarteko kirolarien artean substantzien kontsumoa prebenitzea helburu duen proiektuak hazten jarraituko du, gainera

Mirari Altube ARETXABALETA

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak adikzioen arloko jardunbide egokien eta ibilbide profesionalen inguruko proiektuak aintzatetsi ditu aurreko lehenengoan, *Elkar eginez* aitortzarekin, eta horien artean dago UD@A proiektua. Mendekotasuna sortzen duten substantzien kontsumoaren aurkako "prebentzio-ekintzagatik" saritu dute, kirola egiten hasten direnak "sentsibilizatzeko eta kontzientziatzeko" egindako lanagatik.

Eskertuta parte izan direnekin

UDAK eta Arrasteko San Juan de Dios ospitaleak 2017an jarri zuten abian UD@A. Eta oso pozik agertu dira aitortzarekin, balioa eman diolako proiektuari eta egindako lana agerian utzi duelako: "Metodologia eta lanaren transbertsalitatea kontuan

hartu dituzte. Izan ere, patologia dualak dituztenendako hezkuntza programa izatetik abiatu eta nerabeendako prebentzio programa bilakatu da", azaldu du Emilio Martin, San Juan de Dios ospitaleko medikuak. Horregatik, proiektuaren bueltan jardundako guztiak eskertu gura izan dituzte: ospitaleko lantaldea eta gaixoak; UDAko kide guztiak; Arizmendi ikastola eta Kurtzebarri eskola; eta udalak, besteak beste. "Oso garrantzitsua da horien lana balioan jartzea, emaitza ez litzatekeelako berbera izango", dio Martinek.

Eskoriatzako eta Aretxabaletako udal ordezkariak eskerrak eman dizkiete sustatzaileei, parte hartzeko aukera izanagatik, eta euren laguntza berretsi diete: "Babesten jarraituko dugu, sinisten dugulako proiektuan", adierazi du Unai Elkoro alkateak.

10 eta 12 urte artekoekin orain

Ohitura osasuntsuak sustatzeko jarri zuten abian proiektua orain dela ia lau urte, UDAko zuzendaritzako kide Adrian Merinok azalduko lez, eta, pandemiaren erruz geldi egon ondoren, aurrera egin gura dute.

Orain arte egindako lanean, substantzien kontsumoak eragindako ondorioak izan dituzte langai, eta orain, arrazoiei begiratu gura diete. Horretarako, gazteagoekin hasiko dira lanean, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoekin, hain zuzen ere: "Pentsatzen erakusten badiegu kirolaren bitartez, eta haien artean dituzten harremanak lantzen baditugu, erabaki osasuntsuak hartzeko oinarri sendoak ereingo ditugu", azaldu du Merinok. Mondragon Unibertsitatearekin hasiko dira lan horretan, udazketik aurrera.

Mugarri esanguratsu batzuk

Lau urte beteko ditu aurtengo uztailan UD@A proiektuak, eta hainbat mugarri izan ditu horrek. Osasun Sailaren aitortzak horren atzean egindako lan mardula agerian utzi du.

2017

- **Proiektuaren hasiera** Kirolarien bizitza osasuntsuaren alde lan egiteko hiru urteko hitzarmena sinatu zuten UDAk eta San Juan de Dios ospitaleak, eta kirolari guztiak, hezitzaileak, gurasoak eta zuzendaritzako kideak parte hartzeko konpromisoa hartu.
- **Ikasleekin lanketa** San Juan de Dios ospitalera bisitak egiten hasi ziren kirolariak, eta ikastetxeetan ere heldu zioten gaiari.
- **Gurasoekin lanketa** Gazteen artean egindako inkestaren berri eman zieten gurasoei, eta hurrengo pausoak iragarri; besteak beste, begiraleak trebatu.

2018

- **Komunitatearekin lanketa** Komunitatea sentsibilizatzeko eta kontzientzia hartzeko dei egin zuten, eta herritarrek ere konpromisoak hartzeraz gonbidatu.
- **Madrilgo unibertsitate batera bisita** Rey Juan Carlos unibertsitatean izan ziren UDAko eta San Juan de Dios ospitaleko hainbat ordezkari proiektuaren berri ematen.
- **Egonaldia Arespalditzan** Ospitaleko hainbat pazienteak eta UDAko lau jokalarik asteburua pasatu zuten elkarrekin Araban.

2019

- **Jardunaldiak Donostian** *l(nk)lusioa: esnatu, mugitu, ausartu eta erabaki* leloarekin hiru eguneko topaketa antolatu zuten udalen eta hainbat enpresaren laguntzarekin. Adituen hitzaldiak izan ziren helduendako eta hausnarketa saioak gazteendako.
- **Lagunarteko topaketa futbolaren bueltan** UDAko jokalarien eta San Juan de Diosko gaixoan arteko futbol partidua antolatu zituzten, inklusiorako bide.

2020

- **Liburu aurkezpena** *Egin dezagun jauzi handi bat* liburua aurkeztu zuten Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalen laguntzarekin. Substantzien kontsumoari aurre egiteko abian jarritako programaren mugarri nagusiak jaso zituzten hor.

"Handia da gero agente ezberdinek parte hartzea, inork hutsik egin barik"

AGURTZANE ELKORO UDA-KO PRESIDENTEA

UDAKo presidentea pozik agertu da jasotako aitortzarekin.

Lau urte pasatu dira; honaino iristerik pentsatzen zenuen?

Ez; susmo batetik abiatu ginen, gauzak ondo ez zeuden susmotik, eta, UDA garen aldetik, gure neska-mutilei bizi-kalitate hobea emateko jarri genuen abian.

Zein balorazio egiten duzu?

Oso ona. Batetik, lagundu egin diogulako neska-mutiko mordotxo bati, eta, bestetik, ezkutuan zegoen egoera bat azaleratu egin dugulako, gai delikatua izanik ere.



GOIENA

Ibilbide honetan zerk ase zaitu gehien?

Herriak, UDAko zuzendaritzako kideek, kirolariek, entrenatzaileek, babesleek, komunikabideek, San Juan de

Diosek, ikastetxeek eta Realak egindako lanarekiko erakutsitako jarrera. Gauza handia da hainbeste agente ezberdin elkartzea eta guztiok parte hartzea hutsik egin barik.

Arantzaxoren bat geratu zaizu?

Ahal den guztiei laguntzea izan da gure asmoa hasieratik, baina, seguru asko, arazoa duten batzuek ez zuten eskatuko, eta horiengana iritsi ez izana.

Jasotako aitortza akuilua da?

Herri txiki bateko elkarte bati eman diote EAE mailako sari bat, pentsa zer den! Aurrera egiteko izugarritzko indarra da, bai. Pandemiaren eruz geldi egon gara urtebetez, eta burua altxatu eta lanean jarraitu behar dugu, kirola landuz beti, osasunari eskutik helduta.

"Gazteagoekin lanean hasita zerbait ezberdina egin gura dugu orain"

EMILIO MARTIN MEDIKU PSIKIATRA

Lanean jarraitzeko gogotsu agertu da San Juan de Dios ospitaleko ordezkaria.

Hasieran aurreikusitakoa izan da lortutakoa?

Bai, bai, hauxe da guk gura genuena, nahiz eta pandemiak geldiarazi egin duen prozesua. Egindakoa ondo dago, baina ikusten ari ginen gure lan egiteko modua aldatu ezean berbera gertatuko zela gazteagoen artean. Orain arte egindakoaren ondorioa hori dela esango nuke, zerbait ezberdina egin behar dugula gazteagoekin hasita. Aurrera egiteko



M.A.

asmoarekin, Mondragon Unibertsitatearekin lana aurreratuta dugu, eta zehaztuta begiraleen trebakuntza zelakoa izango den, gaztetxoekin zelako lana egin behar den eta beste

hainbat kontu. Ondo bidean, urrian hasiko gara.

Eta zeintzuk izan dira emaitzak?

Uda ostean jasoko dituzue prozesu honek guztiak emandako emaitzak zenbakitan. Aurreratu dezaket 13 eta 14 urtekoen artean substantzien kontsumoa %15-20 artean jaitsi dela; esanguratsua.

Gazteen eta gaixoen arteko lankidetzaren garrantzitsua da?

Ezinbestekoa. Gazteek guri entzun egiten digute, baina haiei kasu egiten diete. Gurekin lan egindako gazte batzuek gaixoen harremana mantentzen dutela badakit. Era berean, gaixoendako ere garrantzitsua da, bai; beraien bizipenak gazteentzat baliagarriak direla konturatzen direlako.

'Basatiaren mintzoa' ipuin musikatua gaur, helduendako

Hainbat ipuin eta euskal kondaira zahar bat eskainiko dituzte, Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira

M.A. ARETXABAETA

Liburuaren Nazioarteko Eguna gogoan, hainbat ekitaldi antolatatu ditu Udaleko Kultura Sailak. Gaur, esaterako, Maite Arrese narratzaileak eta Mau Ziemkiewicz musikariak *Basatiaren mintzoa* helduentzako ipuin musikatua aurkeztuko dute, 19:00etan, Arkupen –sarrera, 4 euro-. Clarissa Pinkola Estesek idatzitako *Otsoekin korrika dabilzan emakumeak* liburutik ateratuko ipuinak dira gehienak, baina euskal kondaira zahar bat ere badago tartean.

'Hitz-arte' ikuskizuna

Apirilaren 30ean, ostera, bost aretxabaletarrek –horien artean, idazle batzuk– pasarteak irakurriko dituzte jendaurrean, eta irakurri bitartean Jokin Mitxelena ilustratzaile donostiarrak marrazkiak egingo ditu *Hitz-arte* ikuskizunaren baitan. Josune Murgoitik, Luis Errastik, Udane Oñatek eta Judit Ruiz de Munainek hartuko dute parte, besteak beste.

Arkupen izango da saioa, 19:00etan, eta gomendatu dute izena alde aurretik ematea.

GORA ETA BEHERA



JOSEBA RIOS-GARAIZAR

Galartzako lokala, "egoera penagarrian"



"Tamalgarria da Galartza auzoan dagoen lokalaren utzikeria eta egoera kaxkarra", adierazi du herritar batek: "Leku ederra izango litzateke edozertarako: gaztetxea, elkarte, merenderoa..."

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo ☎ 688 69 00 07.





Haurrak

0-12 urte bitarteko
haurrentzako arropa-denda berria Aretxabaletan.

Santakurtz 24, behea - Aretxabaleta • 943 50 47 36 • haurrak.denda.ara@gmail.com







Udaberriko bertso saioa Lekaixokaren eskutik

Maiatzaren 7an, Nerea Ibarzabal, Martin Abarrategi, Beñat Lizaso eta Oihana Arana bertsolariak igoko dira Arkupe aretoko oholtzara, Lekaixoka bertso eskolak antolatutako saioan. Gai jartzaille, berriz, Aitor Lizarazu arituko da

Imanol Beloki ARETXABALETA

Lekaixoka bertso eskolak udaberriko bertso saioa antolatu du maiatzaren 7rako. Arkupen izango da, 19:00etan, eta sarrera hiru euro izango da; maiatzaren 3tik -astelehena- aurrera erosi ahal izango da, Arkupen bertan. Maila handiko bertsolariak osatuko dute Arkupe aretoko ohol-tza, eta saio ederra aurreikusten dute antolatzaileek. Gai jartzaille Aitor Lizarazu arituko da eta bertsolariak, berriz, honako hauek izango dira: Nerea Ibarzabal, Martin Abarrategi, Beñat Lizaso eta Oihana Arana, hain zuzen ere.

"Lehenengo aldiz antolatu dugu udaberriko bertso saioa Aretxabaletan. Iaz, uztailean, Ojala Zelain antolatu genuen bertso saio musikatu, eta ordutik ez dugu saiorik antolatu. Hala ere, era horretakoa berriz antolatze-ko asmoa ere badugu, izan zuen arrakasta ikusita. Beraz, hau izango da urteko lehenbiziko bertso saioa. Arkupen bertsolari handiak izango ditugu, eta Nerea Ibarzabal eta Beñat Lizasorekin batera, bertakoak, Martin Abarrategi eta Oihana Arana ez dira makalak, saio ederra izango delakoan gaude...", adierazi du Martin Berrizbeitia Lekaixoka bertso eskolako kideak. Horrekin batera, gaineratu gura izan du saioaz gozatzea helburua bada ere, asmoa udaberriko bertso saioa urtero antolatzea dela. Hala, bertsolari gazteei lekua emateko egin beharreko ekintza dela azpimarratu du.

Arkupeko edukiera

Arkupe aretoak 100 pertsonako edukiera du, baina 50 lagunera dago mugatuta gaur egun. Hala ere, udaberriko bertso saio eguna iristean eremu gorrian jarraitzen badu Aretxabaletak, 33 lagun soilik sartu ahal izango dira Arkupera. "Egoerak baldintzatuko du zenbat jende sar-



Lekaixoka bertso eskolak Orly tabernan egindako bertso saio musikatu bat. GOIENA

"ARGI DUGU GURE JARDUNA MANTENTZEA IZAN BEHAR DELA LEHENTASUNA"

tzen den bertso saiora, baina hobera egitea gustatuko litzaiguke. Izan ere, maiatzaren 7an eremu gorrian jarraitzen badugu, soilik 33 lagun sartu ahal izango dira bertso saioaz gozatzera, eta uste dugu hankamotz geratuko litzatekeela. Ikusiko dugu nola gauden egun horretan, baina ea egoera hobera doan eta jendea animatzen den".

Bertso eskola, osasuntsu

Udaberriko bertso saioaz gain, bertsolariak zaintzeko, Aretxabaletan sustatzeko, praktikatzeko eta harekin gozatzeko osatutako Lekaixoka bertso eskola ondo dagoela osasunez azpimarratu du Berrizbeitia.

Lekaixoka bertso eskolak haurren taldea eta helduen taldea ditu. Bertsolari gazteen taldean bost pertsona daude eta nagusienean, berriz, zortzi.

Haizea Arana da haurren taldeko gidaria eta helduenean, berriz, Ane Zuazubiskar dute irakasle. Ikasturtea berezia izan dela adierazi dute egitasmoko partaideek, baina, hala ere, bertso eskolekin jarraitu dutela adierazi dute, saioak era telematikoa egin dituzten arren. Horrekin batera, aurrera begirako ideiak ere garatzeko denbora izan dutela adierazi du Berrizbeitia: "Aurten, modu telematikoa egin ditugu klaseak. Egutegi egonkor bat mantentzea zaila izan zaigu, baina klase dezente egin ditugula esan dezakegu. Hala, bertsoan aritzeaz batera, egoera hobetzen denean antolatu nahi genituzkeen ideia ugari izan ditugu. Hala ere, argi dugu publiko gutxiko ekitaldiak antolatu beharko ditugula, eta lehentasuna gure jarduna mantentzea izan behar dela".

Interesdunentzat kontaktua

Lekaixokako bertso eskolan izena eman eta bertsoan aritu eta gozatu gura duenak Lekaixoka@gmail.com helbidera idatzi dezakeela adierazi gura izan dute bertso eskolako kideak.

Ongietorria prestatu dute 'Kutxa bira' iristen denerako

Euskal nortasuna biziarazteko ekimena da 'Kutxa bira', eta hilaren 26an iritsiko da Aretxabaletara

I.B. ARETXABALETA

Ipar Hegoa elkarteak martxan jarritako *Bizi gira... kutxa bira!* apirilaren 26an iritsiko da Aretxabaletara. Egurrezko kutxa bat izango da egitasmoko protagonista eta herriz herri mugituko da, baita kontinentez aldatu ere. Argentinan hasi eta Euskal Herri osoa zeharkatu ostean, maiatzaren 30ean amaituko du ibilbidea, Seguran.

Amets Arzallus bertsolariak idatzitako mezua eramaten du kutxak, eta euskal nortasuna biziarazteko helburua du ekimenak. Hala, Aretxabaletako Kurtzebarri eskolara 10:00etan iritsiko da, eta Loramendi euskara elkartera 17:30ean.

Ongietorri ekitaldia, eskolan

Kurtzebarri eskolako zuzendaritzak esan du harrera estua egingo diotela: "Eskolan egitarau bat prestatu dugu *Kutxa bira*-ri harrera egiteko. Lehenengo, eskolako nagusiek, LHko 4, 5, eta 6. mailetakoe, ongietorria egingo diote. Eskolako *Herensuge*-ek eta *Eguzkiloreak*-ek kutxa ekarriko dute, eta ondoren, seigarren mailako hiru ikaslek kutxa barruan datorren Amets Arzallusek idatzitako manifestua irakurriko dute eta gainontzeko ikasleek eskolako dantza dantzatuko dute. Amaitzeko, gela bakoitzeko ikasle batek euren euskararekiko aldarria irakurriko du, eta kutxan sartu. Berdina egingo da 10:10ean LHko 1, 2 eta 3. mailetakoe; eta,

azkenik, eskolako gazteenek, 11:00 inguruan, Haur Hezkuntzakoek, borobil baten dantza egin eta euren mezuak kutxara bideratuko dituzte".

Eguraldi kaxkarra bada, frontoian egingo dute harrera ekitaldia, eta egitarauan ere aldatu egingo dituztela adierazi dute; hainbat kontu aldatuko dira. "Garrantzitsuen seguratsuna bermatuz denok momentu atsegina bizitzea izango da, *Kutxa bira*-ri ongietorri ona egin eta euskararen aldarria Aretxabaletako gure ikasleei eta Kurtzebarriko hezkuntza komunitateari zabaltzea", adierazi dute Kurtzebarritik.

Euskara elkartearen geldiduna

Goizean Kurtzebarri eskolakoek harrera egin ostean, arratsaldean Loramendi Euskara Elkartekoek egingo diote harrera kutxari. Herriko Plazan egingo dute ekitaldia, eta herriko beste zenbait elkarte eta eragile batuko dira ongietorri ekitaldira: "Ekitaldi xumea egingo dugu. Ludotekakoek, hizkuntza erreformazuko haurrek, musika eskolako dantza talde batek, bertso eskolakoek eta Basabeazpikoek hartuko dute parte bertan. Amets Arzallusen testua irakurtzeaz batera, dantza ere izango da, eta batzen garenon eragile bakoitzeko arduradun batek gure amets edo aldarria irakurriko du, eta kutxara sartu", adierazi du Ainhoa Sanchezek, Loramendi Euskara Elkarteko arduradunak.

Energia aurrezteko online tailerra hilaren 29an, egunean

Aldundiak energiaren baitan sentibilizatzeko formakuntza saioak antolatu ditu. Online izango dira, eta egitarauaren barruko hurrengo hitzordua apirilaren 29an izango da, *Energia aurrezpena eta eraginkortasuna erosotasunik galdu gabe* izenpean. Parte hartzeko, beharrezkoa da aurrez izena ematea, 943 16 41 72 telefonora deituta.

Mobiliario
ARENAZA

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



Lidia Garcia, 2019ko Aresko martxaren ostean, Fernando Eskoriatza plazan jasotako omenaldian. GOIENA

Yoga irakasle Lidia Garciaren izaera ahaztezina gogoan

30 urtez yoga irakasle aritutako Lidia Garcia eskoriatzarra 54 urterekin hil zen, minbiziak jota. Irakasleek eta ikasleek gogoan dituzte haren irakaspenak, haren bizitzeko modua eta besteei laguntzeko zuen prestutasun izugarria

Imanol Beloki ESKORIATZA

Lidia Garcia *Nirmala* apirilaren 11n hil zen, minbiziak jota, 54 urte zituela. 30 urtez yoga irakasle aritu zen Arrasaten, Legution eta Eskoriatzan, eta, bide horretan, debagoiendar asko haren eskoletan inspiratu ziren, behar zuten edozertan lagundu zituen, eta guztiak maitasun handiz hartu.

12 urterekin yogaren munduan sartu zen, eta ordutik aurrera lotura estua izan zuen bizitzeko modu horrekiko. Sivananda yoga estiloa egiten zuen, eta, yogatik haratago, arnasketaren garrantzia, elikadurena... azpimarratzen zuen, baita meditazioa eskaini ere. 2008an, bere ametsa bete zuen, Dharma Yoga Zentroa irekitzea Eskoriatzan. 2019an, Aresko martxan omenaldi hunkigarria egin zioten herritarrek, eta ikasleek pasilloa eskaini

zioten, yoga posizioekin osatutako koreografia batekin, Fernando Eskoriatza plazan. Gorasari plazan, bere 25. urteurrena ospatzeko, yogako ate irekiak egin zituen eta ekitaldi ederra antolatu zuen.

Erretiroa, Arantzazun


Yoga irakasle gisa bere 25. urteurrena 2014an ospatu zuen, Arantzazuko santutegian egindako yoga erretiroarekin. Yoga irakasle eta irakasle askok parte hartu zuten bertan, eta, izan zuen arrakastagatik, urtero erretiro hori egitea erabaki zuten.

"AHALEGIN TXIKIA, ONURA HANDIA"; HORI ERREPIKATZEN ZUEN BEHIN ETA BERRIZ YOGA SAIOETAN

Askoren bizitzako gidari

Harekin topo egin zuten guztiek dute gogoan Garcia, yogaren alde egin zuen lan handiagatik, eta hura ezagutzeko ohorea izan zutenengan arrasto ezabaezina utzi zuela dio Maitena Aranak: "Lidiak 30 urte egin zituen yoga eskolak ematen zenbait lekutan, eta bertatik ikasle askorengana heldu da bere irakaspenera; bere bitartez irakasle egin garenak ere hainbat gara... Bere presentzia isila, bere energia maitagarri eta magnetikoak bere ondoan ikasten aritzeko gogoia eman zidan niri, eta beste askorengan eragin bera izan du. Diabetesa ia sendatu, eta bizitzari zentzua eta balioa ematen lagundu dit. Berak zioen moduan, yoga guztiontzat eta guztiarentzat da", adierazi du Bergarako Ananda Hatha yoga eskolako irakasle Maitena Aranak.

Balio handiko irakaspenak



Silvia Maria. S.M.

Bizitzeko irakaspenera

"Lidiak nire TFM egiten pila bat lagundu zidan, eta berari eskaini nion. Ikastoletan aritu nintzen yoga ikasleekin praktikan jartzen, Arizmendin, eta berak ere asko lagundu zidan umei yoga nola egin irakasten".



Consuelo Rubio Txeli. C.R.

Nekatu arren, energiaz

"Lidiarekin yoga egiten hastean aldatu zen nire bizitza. Ezinbestekoa zen bere saioetara joatea; nekatu arren, energiaz betetzen nintzelako. Nire oroitzapenean geratuko da entzuteko zuen gaitasuna eta bere irribarre ahaztezina".



Vernon Padayachee. V.P.

Irakasle izatetik haratago

"Debagoienean oso maitatua izan den pertsona bat izan da. Inpaktu handia sorrarazi zien pertsona askori, yogatik haratago. Besteen arazoak guztiaren aurretik zeuden berarentzat; hori zen bere bizitzaren misioa".



Eneida Padilla. E.P.

Yoga irakasle, hari esker

"Lidia duela 18 urte ezagutu nuen nik, osasun arazo batengatik. Nire bizitzako argia izan da, erreferente bat, eta hari esker naiz gaur egun yoga irakasle. Haren laguntzagatik beste pertsona bat naiz ordutik".



Tarragonan egindako erretiroan

Lidia Garcia yoga erretiro guztietara joaten zela diote bere gertukoek; guztiak sivananda yoga estilokoak ziren. Argazkikoa Tarragonan aterata dago; Torrelles de Foix herrira joan ziren Silvia laguna, Lidia Garcia eta bere gizona, yoga erretiroa.



Idoia Asurmendi musikari aramaioarra kontzertu batean. GOIENA

Idoia Asurmendiren saio akustikoa bihar, zapatua

Idoia Asurmendik emanaldia egingo du zapatuan Zaldibar antzokian. Horrekin batera, gaur Asisko Urmenetaren hitzaldia, zapatuan Jakoba Errekondorena eta etzi 'Meri, Mari eta Lari' ikuskizuna izango dira, asteburuko kultura agendaren egitarauan

Imanol Beloki ESKORIATZA

Idoia Asurmendi aramaioarri musikarekiko zaletasuna familia girotik dator kio eta txikitatik hasi zen etxeko musika-instrumentuekin esperimentatzen. Aisialdia ere horretan eman du urte luzez, hainbat abesbatzatan kantatuz eta piano ikasketak burutuz. Gitarrarekin ere ondo moldatzen da, eta horixe demostratzeraz etorriko da Zaldibar antzokira, zapatuan, Joanes Ederria kontrabaxuarekin oholtza gainean bidelagun izango duela. Emanaldi akustikoa izango da eskainiko dutena, eta sarrerak bost eurotan erosi daitezke, alde aurretik, Manuel Muñoz kiroldegian.

Asurmendi duela urte batzuk inguruko herrietan kontzertuak ematen hasi zen, bakarlarri. Hasi, euskal abestien zein kanpoko pop-rock eta soul estiloetako abestien bertsoak egiten zituen, baina orain, kantuek konposatzen ditu, eta, hainbat kasutan, poesia egiten duen Ma-

ria Osesen lanak berearekin uztartzen ditu.

Inkisizioaren segadak hizpide

Idoia Asurmendiren emanaldi akustikoarekin batera, ekitaldi ugari eta askotarikoak izango dira Eskoriatzan, asteburuko kultura agendaren barruan. Gaur, egubakoitza, esaterako, Asisko Urmeneta marrazkilari eta komiki gidoilaria izango da Zaldibar antzokian, *Sorgin ehi-za Euskal Herrian XVI. eta XVII. mendeetan* hitzaldia egiten, 19:00etan. Urmenetak idatzitako *Sugarren mende* komiki-liburuan jasotakoak kontatuko dizkie bertaratzen direnei, besteak beste, eta liburua salgai izango du bertan.

LORE ETA LANDARE AZOKA TXIKIA IZANGO DA ZAPATUAN IBARRAUNDI MUSEO KANPOALDEAN

'Loratu' azoka Ibarraundin

Zapatuan, berriz, Jakoba Errekondo paisajista eta agronomoa izango da *Etxeko loreak* liburua- ren aurkezpena egiten, eta galderak eta zalantzak argitzen, 11:00etan, Ibarraundi museoa. Horrekin batera, *Loratu*, izenpean, lore eta landare azoka txikia egingo da museo kanpoaldean, 10:00etatik 14:00etara bitartean. Bertan, etxeko loreak eta landareak izango dira: geranioak, liliak, begoniak... Baratzeko haziak eta landareak: piperrak, tomateak, letxugak, kipulak... Lurra, tresnak, ongariak, eta abar. Gainera, Eskoriatzako Anduaga Pentsuak-ekoek eta Usurbilgo Urtineak Loreek jarriko dituzten postuak.

Yogurina Borovaren ikuskizuna Domekan, aldiz, Eidabe antzerki taldeko Maria Urcelay eta Yogurinha Borova *Meri Mari eta Lari* ikuskizunarekin izango dira, arratsaldeko bostetan, Zaldibar antzokian.



Ainhoa Lasa, TELP tailerrean, euskara planetako koordinatzaileekin. HITZARTZEN

'Nola esango dio?' gurasoentzako tailerra, Ainhoa Lasak gidatuta

Komunikazioa hobetzeko baliabideak eskuratzeko tailerra maiatzaren 4an izango da, kultura etxean

I.B. ESKORIATZA

Debagoieneko Mankomunitatean euskara familian transmititzeko egitasmo bat jarri dute martxan eta ikastetxeek *Biharko euskara, gaur* liburua HHko 4 eta 5 urteko geletan banatuko dute bailara osoan. Horren baitan, Eskoriatzan, gurasoentzako tailer bat antolatu dute, 4-8 urte bitarteko seme-alabak dituztenentzat. Maiatzaren 4an izango da, kultura etxean, ele bitan.

Euskara eta berrikuntza sozialeko -EMUN- Ainhoa Lasa izango da hizlaria, eta, hain zuzen, haurren eta helduen ar-

teko komunikazioa hobetzeko baliabideak eskuratzeko tailerra da eskainiko duena.

Bi ordutegi aukeran

Interesdunek bi ordutegiren artean aukeratu beharko dute: 14:15etik 16:15era edo 18:00etatik 20:00etara bitartean. Hala, jende gehien apuntatzen den ordutegian egingo da.

Izena emateko azkenengo eguna apirilaren 30a izango da, eta, horretarako, kultur etxea joan, bertara deitu edo euskara@eskoriatza.eus helbide elektronikora idatzi daiteke.

GORA ETA BEHERA



Mendiko sastrakak, espaloia hartzen

Herritar batek bidalitako argazki honekin, San Pedro auzoko gune honen kexa egin gura izan du. San Pedro auzoan, hamazazpigarren ataritik bibliotekara bidean dagoen espaloia zatia sastrakaz betetzen ari da. Sasi eta sastrakekin batera, mendiko lurra ere jausten ari da.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.



Euskadiko txapelketara anbizioz joateko gertu

Nahia eta Haizeder Arguiz eta Maialen Apraiz eskoriatzarrek Euskadiko Gimnasia Erritmiko Txapelketa jokatu dute domekan, nork bere kategorian. Helburua Espainiako Txapelketarako sailkatzea izanda, gogoz arituko dira

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eibarko Ipurua taldeko Nahia Arguiz, Haizeder Arguiz eta Maialen Apraiz Eskoriatzako gimnastek denboraldi berriari ekingo diote asteburu honetan. Domekan jokatu da, Durangoko Landako kiroldegian, Euskadiko Gimnasia Erritmikoko Oinarrizko Txapelketa –publikorik gabe–, eta Espainiako txapelketarako eta Espainiako Koparako sailkatzeko puntuagarria izango da, talde federatuentzat.

Maialen Apraiz eta Haizeder Arguiz banakako mailan arituko dira denboraldi honetan, kadete mailan, eta Durangoko txapelketan mazoekin ariketa bat egin beharko dute. Biek izango dute Espainiako Txapelketarako txartela jokoan, eta EAEko hamar gimnasta izango dira, guztira, txartela lortuko dutenak. Hori horrela, Haizederren txanda 12:42an izango da eta Maialenena, berriz, 13:15ean.

Geldi egon ostean, lan ona

Joan den martxoan Valentziako Colonial zentroan jokatu zen Espainiako Txapelketa, eta taldekakoan Haizeder eta Maialen, biak aritu ziren, bi hilabetez entrenatu gabe egon ostean. Eskoriatzarrak eta taldekideak urduritasunez aritu ziren, baina



Nahia Arguiz gimnasta eskoriatzarra Espainiako Txapelketan. ANGELA VITA

indartsu eta gogo biziz bueltatu dira, erronka berriei aurre egiteko gogoz.

Espainiako Kopa helburu

Nahia Arguiz gimnasta ere Euskadiko Txapelketan lehiatuko da domekan, June, Arrate, Sara eta Indira taldekideekin batera, senior maila absolutuan, eta hamar mazoko ariketa egingo dute, 14:16an. Taldekako ariketarekin Espainiako Koparako txartela izango dute jokoan.

Nahia Espainiako Txapelketan aritu zen martxoaren 5ean, eta

bertan, bost pilotako ariketa egin zuen taldekideekin batera. Tapizaren gainean lan ona egin zuten: lehen pasean akats txikiren batekin eta bigarrenetan perfektzioa urratuz. Gimnasten entrenatzaileak pozik agertu ziren egindako lanarekin, eta asteburuan ere helburu berarekin joango dira Durangora.

Hurrengo hitzordua maiatzaren 9an izango dute Eskoriatzako gimnastek. VII. Macarena txapelketa jokatu dute, eta saioa online ikusteko aukera izango da.

Ezusteko esprintean

Bolada aparta izaten ari da Iker Eskibel eskoriatzarra. Copa Caja Rural BTT txapelketaren hirugarren lasterketan, Dicastillon, beste garaipen bat lortu berri du. Orekako txirindulariak azken aldapan segundoak erreperatu zituen eta Sagardoy eta Silvestre atzean utzita pasa zuen helmuga. Hala, sailkapen orokorreko lider nagusi da orain.



AIZ ARGAZKILARITZA

LEINTZ GATZAGA | 23



Leintz Gatzagako San Migel plazan haurrak jolasean. GOIENA

Urtariletik positibo barik, baina iritsi da bederatzigarren kasua

Urtarrilaren 10ean izan zuten azken kasua, eta aste honetan beste bat gehiago atzeman dute

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Apirilaren 19an Osasun Sailak koronabirusaren egoera epidemiologikoaren berri eman zuenean, kasu positibo bat hauteman zen Leintz Gatzagan. Hala, pandemia hasi zenetik, bederatzik kasu positibo dira, guztira, herrian izan direnak. Azken kasua urtarilaren 10ean hauteman zuten, eta ordutik ez da egon kasurik, aste honetara arte.

Neurriak betetzen

"Pandemia hasi zenetik ez dugu koronabirus positibo askorik izan herrian. Gatzagako Udaltetik uste dugu gauzak ondo ari garela egiten, eta egin ditugun ekintza kulturaletan edo bestelakoetan herritarrek zintzo aritu dira Osasun Sailaren gomendio guztiak jarraitzen. Bide beretik jarraitu nahiko genuke, eta ea ez ditugun kasu gehiago izaten...", adierazi du Garazi

Orobengoa Leintz Gatzagako zinegotziak.

Intzidentzia-tasa: 427,35

Herriko azken kasu positiboa apirilaren 19an atzemanda, 14 egunean –maiatzaren 2ra arte– ez bada kasurik baieztatzen, intzidentzia-tasa hutsera jaitziko da. Hala ere, gaur-gaurkoz, 427,35ko intzidentzia dute Gatzagan, eta ez erlaxatzeko gomendioa egin dute udal ordezkariak: "Biztanle gutxi dituen herria izanda, kasu gutxiarekin igo egiten da intzidentzia-tasa Gatzagan; hala ere, Eusko Jaurlaritzak astelehenean argitaratu zuen udalerrien ebazpenean, ez da eremu gorrien zerrendan ageri Gatzaga. Beraz, ez dira aplikatuko 400etik gorako intzidentzia metatua duten eta eremu gorrian sartuta dauden herriei aplikatzen zaizkien neurriak".

'Makila Korta Fest' jaiak herritarrentzat izan beharko du

Bihar, zapatua, *Makila Korta Fest* izango da Gatzagan. Makila Korta mendira paseoa egingo dute goizean, eta taldeetan banatuta ginkana herrikoa egingo dute. Arratsaldean, berriz, Azken Sustraiak eta Talka taldeen emanaldiak izango dira plazan.

Goizean egingo duten paseoa eta ginkana herritarrentzat soilik diren arren, arratsaldeko

emanaldiak jende guztiarentzat izango dira. Herriko plazan izango diren kontzertuetarako edukiera mugatua izan arren, sarrerak berehala agortu zirela adierazi dute antolatzaileak. "Edukiera guztia bete arren, inguruko herrietakoak ezingo dira bertaratu; eremu gorrian daudenak, behintzat. Hala, gehienak herrikoak izango gara, eta segurtasun neurriak betetzea errazagoa egingo zaigu horrela", adierazi du Beñat Agirreurretak, Kultura zinegotziak.



Eguraldi ona egiten duenean, Labegaraietako jolas parkea umez eta gurasoz bete ohi da. JOKIN BEREZIARTUA

Labegaraieta: lanerako auzoa zena aisialdirako ezinbesteko bihurtu da

Pandemiak eragindako mugikortasun mugek balioa eman diete herriko aisialdirako guneei, eta horien artean Labegaraieta da adibide garbia; belaunaldi ezberdinetako bi bizilagunekin egon da GOIENA, auzoak izan duen biziberritzearen lekuko izan nahian

Jokin Bereziartua BERGARA

Industrialde izatek aisialdirako gune garrantzitsua izatera pasatu da Labegaraieta. Are gehiago, pandemian, herrien arteko mugikortasuna mugatuta dagoen garaiotan. Azken agintaldietan Udalak herrigunetik hiru kilometrorra dagoen auzoa biziberritzeko egin dituen interbentzioek, kiroldegia berritzea tarteko, lagundu dute auzoa bera herritar gazteei begira erakargarriago egiten. Ez dago herrian kirolerako eta aisialdirako eskaintza zabalagorik duen auzorik.

Biziberritzea, auzotarren ahotik


Labegaraietak bizi izan duen eraberritzearen lekuko izateko, belaunaldi ezberdinetako bi auzotarrekin elkartu da GOIENA: Iñaki Arregi *Bixkai* eta Elaia Iñurrategi. Garai bateko lanaren ondorioz sortutako aberastasu-

nagatik izan ez balitz gaur egungo Labegaraieta posible izango ez zatekeela dio, besteak beste, *Bixkai*-k: "Lanik ez badago, ez dago bizimodurik. 46 urtez aritu nintzen bertako lantegian; orduko langileen lan gogor eta sendogatik izan ez balitz, ez genukeen altxor hau izango".

Elaia Iñurrategi ere oso pozik dago Labegaraietan, eta dio garai ezberdinak bizi izan dituela: "Garai ezberdinak bizi izan ditut nik: oso harreman gertukoa eta auzoa ekintzailea zenekoa, aspaldi, eta gero izan zen beste garai bat auzotarren arteko


KIROLDEGI BARRUAN DUTEN LOKALARI ZE ERABILERA EMAN ERABAKITZEN ARI DIRA AUZOTARRAK

Labegaraietan bizitzea, "altxorra"



IÑAKI ARREGI 'BIXKAI'
AUZOTARRA

"Labegaraietan jaio eta bizi izatea altxorra da. Auzotarron artean beti izan dugu oso gertuko giroa, eta hori oso garrantzitsua da niretzat. Ateak zabalik ditugu herritik edo herri kanpotik etorri ahal direnentzat. Gozatzeko leku bat izan behar da gure auzoa, denon artean ondo zaindu behar duguna".



ELAIA IÑURRATEGI
AUZOTARRA

"Zerbitzuak falta zaizkigu eta herrira mugitu behar dugu, baina, ohituz gero, gainerako guztia altxorra da. Urte batzuk izan ziren ia lotarako bakarrik zela, baina orain, biziberritzen dabil; bertako gazte batzuk etorri dira eta etorkin askok bizimodua hemen egiten dute. Interesgarria da".

kohesioa galdu eta ia lotarako bakarrik zena. Azken hamarkadan, gutxi gorabehera, Udalaren apustuak zerikusi zuzena izan du auzoaren biziberritzean".

Auzotarrentzako lokala

Hain zuzen ere, otsailaren 6an inauguratu zen kiroldegi berri-tuko taberna berriak hainbat auzotar elkartzen ditu egunero. Bergarar askorendako egunero-ko plana da Labegaraietara bidegorritik paseoa joatea; beste askok ohitura dute kanpoko pistetan kirola egiteko. Orain,

kiroldegi barruan Udalak auzotarrendako lokal bat egokitu du, lehen solairuan, eta lokal hori zertarako baliatu erabakitzen ari dira. "Umeen, gazteen eta helduen arteko harremanak berreskuratu egin behar ditugu eta denon artean askotariko ekintzak antolatzeke ere erabili beharko genuke, ekintzailetasuna sustatzeko gune bat izan daiteke", dio Iñurrategik. *Bixkai*-k ere iritzi bera dauka: "Udalak erraztu digu lokala; aprobeztatu beharra dugu. Auzoaren dako oso garrantzitsua da".

'Eman beti zure onena' mural ikusgarria

Auzoa itxuraz ere biziberritzen ari den seinale, mural ikusgarria egiten ari dira joan den astea ezkerre Jokin Oregi *Sortwo* eta Mikel Larrañaga *Remak* artista bergararrak; bidegorrira ematen duen kiroldegiko horma mural ikusgarri bihurtzen ari dira, alderik alde. "Duela 11 urte grafiti saio libre baten margotu genuen, eta orain, Udalaren eskaera bat izan da. Etxean bertan margotzea ederra da; sekulako ikusmina piztu du, paseoa ibiltzen diren hainbat herritarrek zoriandu gaituzte", dio Oregik. Hori bera ere nabarmendu du Larrañagak: "Jendea harrituta geratu da eta gustatzen ari zaio, oraingoz; hori zoragarria da guretzat".



Jokin Oregi *Sortwo*-ren eta Mikel Larrañaga *Remak*-en murala. AITOR LAGOMA

Asteburuan zehar, bukatuta *Eman beti zure onena* izena jarri diote muralari eta kiroldegiaren bueltan egiten diren kirol guztiak islatu dituzte; betiere, bidegorria erabiltzen duten

herritarrek ere aintzat hartuta. Horrez gain, auzotarrei begira kolore-paleta zaindu dute, kutsadura bisuala saihesteko asmoz. Mural ikusgarria aste bukaeran bukatuko dute.

Terrazak: araudia berritu nahi dute, lehenbailehen

Ostalarien ordezkariak eta Udal Gobernuak asteon egindako azken bileran, agerian geratu da terrazen ordenantza berritzeko dagoen beharra, eta, horretarako, lan-mahai bat sortuko dute; araudi berria 2022ko lehen hilabeteetan martxan izatea espero dute

Jokin Bereziartua BERGARA

Astelehenean batzartu ziren, beste behin, herriko ostalaritzako eta Udal Gobernuko ordezkariak. Aurretik, otsailaren 11n egindako bileran, ostalariek eskatu zuten elkarlanerako lan-mahai bat osatzea, gaur egun indarrean dagoen ordenantza errebisatu eta berria sortzeko. Asteleheneko bileran Udal Gobernuak azaldu duenez, lanerako mahai bat sortuko da; betiere, "inplikaturako eragile guztiekin". Hau da, mahai horretan aurreikusten dute egongo direla ostalariak, bizilagunak, elbarrien elkarteak, hirugarren adinekoen ordezkariak eta Udal Gobernuak, besteak beste. Diotenez, 2021 bukaerarako ordenantza berria adostuta izan nahi dute, 2022ko lehen hilabeteetan martxan jarri ahal izateko.

Ostalariek hainbat gai jarri zituzten mahai gainean. Esaterako, ordenantza ahalik eta lasterren berritzea nahi dute, inbertsioak egitekotan bi urterako baino epe luzeragorako izan daitezken. Eta, bestetik, terrazengatik ez ordaintzeko eskaerari dagokionez, Udal Gobernuak maiatzean egingo du balorazioa eta erabakia ekainean jakinaraziko zaie. Hurrengo bilera maiatzaren 3an egingo dute.



Haima bat lrala kaleko taberna bateko terrazan. GOIENA

Ortuak: bilera irekia hilaren 28an
Bestalde, Udal Gobernuak aditza eman du apirilaren 28an egingo dela ortu komunitarioez hitz egiteko lehen bilera irekia; zehazteke dago non egokituko diren ortu horiek. "Egitasmoa Bergarako lurretan gauzatzeko hainbat modu egon daitezke, eta horiek definitzeko partaidetza prozesu bat irekiko da. Horrela ikusiko dugu gaian interesa dutenek zein behar edo nahi dituzten ortuei dagokienez", dio herritarren arloko arduradun-zinetzari Ekaitz Aranberrik. Udal

Gobernuaren helburuak honako hauek dira, besteak beste: herriguneko espazioa erabilera publikorako berreskuratzea; ortuen izaera hezitzailea eta ludikoa sustatzea; autokontsumoa bultzatzea; gizarte loturak indartzea; hirigintza parte-hartzaileagoa eta bizimodu jasangarrirako ohiturak sustatzea; bazterkeria egoeran egon daitezkeenei lehentasuna ematea norbere kontsumorako barazki eta ortuariak izateko; eta baserri bizimoduaren eta kaleko bizimoduaren arteko oreka bilatzeko ahalegina egitea.



GOIENA

Eraiste lanak, segurtasunagatik

Hainbat herritar harrিতa geratu dira asteon Espoloiako etxe zaharrak botatzeko lanak ikustean. Hilabete batzuetan itxita egon da eremua, Udalaren arabera, arriskutsua zelako, eta segurtasunagatik bota dituzte. Eraiste-lanak bukatzen direnean, lursaila hutsik geratuko da, jabeek zerbait egin arte. Izan ere, jabetza pribatukoa da eremua.

Banketxeetako ilarak eta komisioak salatu, zuzendariari gutunez

Euskal Herriko pentsiodunen mugimenduak deituta, Bergaran ere protesta egingo dute hurrengo astelehenean, apirilak 26, 12:00etan. Banketxeetako "ilara luzeekin eta komisio altuekin haserre" daudela eta banketxeetako zuzendariari gutuna entregatuko diete. "Batez ere, pandemia hasi zenetik, banketxeetako itzarote-ilarak haserretu egiten

gaituzte. Ez dago banku-erakundeetatik kanpo egin daitekeen gestiorik: kobrantzak, fakturen ordainketak edo bestelako diru eragiketak. Gainera, komisioak handitu egin dituzte, sukurtsalak ixten ari dira, langileak murrizten, eta, ondorioz, gero eta jende gehiago behartuta dago egin beharreko gestioak Internet bidez egitera. Ezin dugu ahaztu baliabide informatikoak erabiltzeko adinekook zailtasun handiak ditugula; aurrez aurreko arretari bidea itxi diote".

Tomatearen ekoizpena berbagai, begirada feministatik

Martxanterek eta Etxaldeko emakumeek antolatuta, *Hazien ekoizpen transnazonala begira feminista batetik* izeneko hitzaldia izango da apirilaren 23an kartzela zaharrean (18:00), edukiera mugatuarekin. "Gure eskualdean ezaguna dugun Aretxabaletako tomatea eta Euskal Tomatearen Jack barietatea aztertu ditu Mar-ta Barba Gasso ikerlariak".

Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI
LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

Agirre: "Etorkizuna ezin dugu nolana zehaztu"

EAJko bozeramaileak uste du 'Bergara 2030 egin herrixa' planerako Udal Gobernuak aurkeztu duen diagnostikoak ez duela herriko errealitatea islatzen eta dio egungo egoera ez dela "lanketa sakona" eskatzen duen parte hartze prozesu baterako garaia

Jokin Bereziartua BERGARA

Udal Gobernuak apirilaren 15ean aurkeztu zuen *Bergara 2030 egin herrixa* planaren "oinarri sendoa" izango den diagnostikoa. EAJk uste du diagnostiko horrek ez duela Bergarako errealitatea ordezkatzeko, eta horren adibide moduan jarri dute jeltzaleek hilaren 15eko aurkezpenean Izadi 21 aholkularitza enpresak emandako datuak. Diagnostiko hori garatzeko 77 elkarrizketa egin dira eta online bidezko inkesta 106 pertsonak bete dute; gehienak, 18 urtetik beherakoak. "Alegia, herritarren %1,25 da gaur egun, 14.592 biztanle ditu eta Bergarak. Gure ustez, biztanleriaren %1,25eko parte hartzea ez da nahikoa Bergararen benetako egoera zein den jakiteko", dio EAJren udal taldeko bozeramaile Maite Agirrek.

Ikerketa sozioekonomiko berria Agirrek uste du plan estrategikoaren diseinu osoa ezin dela parte hartze prozesuan oinarritu: "Bergararen 2030eko plan estrategikoaren diseinuak beste hainbat atal landu behar ditu; esaterako, egungo ikerketa sozioekonomikoa. Osasun larrialdiak erabat aldatu du egoera, eta ezagutu beharra dago". Jeltzaleek diote "ezinbestekoa" dela diag-



EAJko bozeramaile Maite Agirre, otsaileko ohiko osoko bilkuran. JOKIN BEREZIARTUA

ESKUZABALAK IZAN ETA "BENETAKO ELKARLANEAN" SINISTEKO ESKATU DIOTE GOBERNUARI

nostikoak pandemiak utzi duen errealitatea hobetzeko islatzea.

"Orain da momentua?"

Gorka Artola alkateari galderabat ere bideratu nahi izan diote jeltzaleek: "Bizi dugun egoe-

ra kontuan izanda eta COVID-19ak eraginda positibo kopuruaren goranzkoa ikusita, orain da momentua lanketa sakona exijitzen duen parte hartze prozesu bat hasteko?".

Horrez gain, Agirrek uste du "ezinbestekoa" dela etorkizuneko edo epe luzerako gaiak definitzeko alderdi ezberdinen arteko adostasuna eta elkarlana. "Horretarako, eskuzabala izan behar da, eta benetako elkarlanean sinistu. Bergararen etorkizuna ezin dugu nolana zehaztu", gaineratu du.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Txakur kaka jasotzeko bidegorriaren izkinan



Labegarrietako auzotar batek salatu du argazkian ikusten den txakur kaken poltsa jaso gabe utzi zuela jabeak. Egunero-egunero herritar ugari erabiltzen dute bidegorri hori.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

'Bizipoza' trivialeko sarituak eta jaietako zapirako lehiaketa

Goiena komunitatea

Jardun euskara elkarte / BERGARA

Bizipoza trivialean 331 galdetegi bete dira eta 600 pertsonak hartu dute parte. A kategorian irabazleak izan dira Iker Gomez Gimbert eta Luis Alberto Guerrero; B kategorian, Maryum Bibi, Euker Oliveri Lopez, Garazi Diaz Fortuna, Alain Montori eta AIAI taldea -Nagore

Garitano, Ihintz Diaz de Gereñu eta Irati Mugika-; eta D kategorian, azkenik, Eider Gabilondo izan da irabazlea. Sarituek herriko dendetan erabiltzeko hamar euroko bonua izango dute opari; bonua jasotzeko, gure buletogetik pasatu beharko dute.

Bestalde, jaietako zapirako lelo eta marrazki lehiaketa ere martxan jarri dugu; azken eguna maiatzaren 2a izango da, jardun@topagunea.com helbide elektronikoa. Argibide gehiagorako: www.jardun.eus.

OHARRAK

San Joxepe elkarte: 87 urtekoei omenaldia

Erretiratu elkarteko presidente Roberto Kareagak iragarri du ez zaiela omenaldirik egingo 1934an jaiotakoei, COVID-19agatik. Aurten ere etxer etxe banatuko dituzte oroigarriak.

'Zer da herri hezitzaile bat?' mahai-ingurua

Oinherri elkarteko Amaia Etxabe eta Iker Agirre arrasatearrek hitz egingo dute; apirilaren 22an, kartzela zaharrean (18:00).

Osintxuko eskola: bigarren eskuko azoka

Maiatzaren 8an egingo dute, Osintxuko plazan (10:00). Aurrez arropa, jostailu, altzari edota edozein gauza emateko: ponportola@gmail.com helbide elektronikoa edo 615 73 45 53 telefono zenbakia.

EH Bilduko Julen Arzuagaren hitzaldia UNEDen

Eredu polizialaren gaineko hitzaldia egingo du EH Bilduko legebiltzarkideak apirilaren 27an, UNEDeko aretoan (18:30).

BKEren futbol campuserako izen-ematea

Ekainaren 21etik 25era egingo dute, 2007-2012 urteen artean jaiotakoentzat. Plaza mugatuak izango dira, eta izena emateko informazio guztiaren berri datorren astean emango du BKEk.

Etxanizek hartuko du Leteren lekua

Elena Letek dimititu ostean, apirilaren 26ko osoko bilkuran hartuko du zinegotzi kargua Martin Etxanizek. Etxaniz EAJren zerrendan zortzigarren joan zen 2019ko hauteskundeetan, eta Ulmako finantza zuzendaria da. "Ziur bere esperientzia eta ibilbide profesionalak ekarpen handiak egingo dizkiola zinegotzi taldeari eta, nola ez, Bergarari", esan du Uri Buru Batzarreko Enaitz Agirrek.



Martin Etxaniz, 2019ko udal hauteskundeetarako ateratako argazkian. EAJ

Eguazten eguerdian aurkeztu zuten *Bergara oinez* ekimena eragileek, Agorrosin kanpoaldean. B.U.

'Bergara oinez' ekimena, datorren astean bueltan

Apirilaren 29an egingo dute lehen irteera, Mariaren Lagundiak antolatuta. Hamaika eragilek hartuko dute parte, eta horietako bakoitzak irteera bat antolatzeko ardura izango du. Egoerak eraginda, seiko taldeak egin eta neurri bereziak ezarri dituzte

Jone Olabarria BERGARA

2019an Bergarako hainbat elkarrener eta eragileren artean sortutako ekimena da *Bergara oinez*, "bergararren osasuna zaindu eta elkarren arteko harremanak sustatzeko helburuz".

Hala, hirugarren aldia izango du *Bergara oinez* ekimenak. "Iaz, pandemiak eraginda, irteera bakarra egin genuen, martxoan. Aurtun, baina, Osasun Mahaia osatzen dugun eragileok beharra ikusi dugu ekintza hau berreskuratzeko, eta segurtasun neurri guztiekin martxan jartzea erabaki dugu", azaldu du Xabier Legorburuk, Udaleko Gizarte Zerbitzuetako arduradunak.

Hamaika irteera antolatuta

Bergara oinez ekimenak ordu-bete eta ordu eta erdi arteko oinezko txangoak egiteko aukera ematen du, "adin eta ezaugarri guztietako pertsonen egokituia, era lasaian". Irteera guztiak ostegunetan egingo dituzte, 10:15ean Agorrosin kirolgunetik

irtenda. Ekimenean parte hartzen duten eragileetako bakoitzaren ardura da irteera bat antolatzeko: Mariaren Lagundia, Aranzadi Ikastola, Pol-Pol, Duintasuna, San Joxepe, Jardun-Topagunea, Bergarako Udala, Aspace, Osasun Publikoa, Osakidetza eta BPX. Salbuespena irailaren 26an izango da, domeka; izan ere, Aspaceren ardura izango da egun horretako irteera.

Segurtasun neurri bereziak

Proiektua EAE mailan egiten diren Ttipi-Ttapa ekimenen baitan garatzen da, eta bertan ezarritako segurtasun neurriak jarraituko dituzte, sei laguneko taldeak osatuz: "Txangoa hasi aurretik, zigilua ematerakoan,

"BEHARRA IKUSI DUGU EKINTZA HAU BERRESKURATU ETA SEGURTASUNEZ ABIAN JARTZEKO AURTEN"

parte hartzaileek eskuak desinfektatu behar dituzte, tenperatura hartuko zaie eta metro eta erdiko distantzia utziko dute elkarren artean. Bestetik, txangoan beti maskara jarrita eraman beharko da".

Aurreko aldietan "oso preziatua" izan bada ere, hamarretakorik ez da egingo 2021ean. "Ez, behintzat, egoera epidemiologikoa nabarmen hobetzen ez bada".

Herritar guztiei gonbita

"Bergarar guztiak gonbidatu nahi ditugu *Bergara oinez* ekimenean parte hartzera, norberaren osasun fisikoari onurak ekarriko dizkio eta; bai kirola egiteagatik eta baita elkarren arteko harremanak sendotuz osasuna zaintzen laguntzen duelako", azaldu dute Udaletik.

Informazio gehiago nahi izanez gero, eta izen ematea egiteko, San Joxepera edo Agorrosinera joan edo bertara deitu daiteke, baita www.bergarakirola.eus webgunearen bitartez.



Joan den asteburuan Ourense egindako txapelketarako prest. IRATI URIGOITIA

Espainiako Txapelketan lehiatu da Irati Urigoitia karateka

Euskal selekzioarekin aritu da joan den asteburuan Ourense egin zuten junior mailako txapelketan

J.O. BERGARA

Euskal selekzioarekin lehiatu den gipuzkoar bakarra izan da Irati Urigoitia (2008) karateka gaztea. Joan den asteburuan Ourense egin zuten Espainiako Txapelketarako txartela lortu zuen Urigoitia, eta, nahi bezain ondo joan ez den arren, esperientzia "oso polita" izan dela azaldu du: "Gipuzkoako kasuan, junior mailan lehiatu gaitezke lehenengoz halako txapelketa batean. Beste karateka batzuek urteak daramatzate bertan lehiatzen eta guk baino esperientzia handiagoa dute".

Lehenengoz euskal selekzioan

Bergarako Shotokan Karate taldeko entrenatzaile Joxean Iñarrak azaldu duenez, euskal selekzioarekin hain maila handiko txapelketa batera joaten zen lehen aldia izanda, "sekulakoa" izan da: "Munduko gogo guztia-

rekin atera zen borrokatzera, eta oso ausart, gainera".

Txapelketa prestatzeko entrenamendu saio bereziak egin ditu Urigoitiak, Aste Santuko oporrak aprobetxatuz: "Txapelketarako denbora gutxi falta zela abisatu zidaten, eta, gainera, lehenengo aldia izanda, ondo prestatu beharra nuen. Hainbat lekutan eta hainbat entrenatzaileekin ibili naiz prestatzen".

Txapelketa, egoera arraroan

Euskal selekzioa kide eta entrenatzaileez gain, aitaren babesa izan zuen joan den asteburuan Ourense: "COVID-19a dela eta, amak eta anaiak ezin izan zuten etorri, ezta Bergarako nire entrenatzaileak. Beste entrenatzaile batzuekin egin dut txapelketa". Hemendik aurrerako asmoek galdetuta, datozen txapelketetan parte hartzeko "gogoz" agertu da Urigoitia.

UGARTE
ARROZTEGIA · ALTZARIAK

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugarte-aroztegia.com

Proiektuak · Koltxoak
Horma-armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

I21
K
KALITEA
Enpresa legegaitza 1100/025

Azken emanaldien zain, harrera "ezin hobea"

lazkoa ezin eginda geratu baziren ere, eta pandemiak eragindako zailtasunak gaindituz, aurtengo Apirilean Musika zikloa "berezia" ari da izaten. Musika Eskolatik azaldu dutenez ikusle eta parte hartzaileek "gogoz" hartu dituzte hitzorduak

Jone Olabarria BERGARA

Bergarako Musika Eskolako ekitaldi ugari antolatu ditu apirilaren 16tik apirilaren 28ra bitarteko; besteak beste, ikastaroak, hainbat instrumenturen emanaldiak, elkartrukeak eta *Musika kalean* saioak... Meraki Musikeneko hari laukoteak eta Bergarako Musika Eskolako orkestra sinfonikoak egindako emanaldiarekin hasi zuten zikloa, joan den asteburuan, iaz konfinamenduarengatik suspenditutakoa. Hilaren 28ra arte, askotariko 25 ekitaldi egingo dituzte Musika Eskolako ikasleek.

Herritarrak, "gogotsu"

Bergarako Musika Eskolako zuzendari Marije Ugaldek azaldu du bai ikasleak baita herritarrak "gogoz" daudela emanaldietara itzultzeko: "Urte oso bat daramagu eskolan sartuta, ikasten, eta haurrek badute gogoia ikasitako guztia erakusteko. Gurasoak ere gogotsu daude etxeko txikienek ikasi dutena ikusteko".

Estreinaldi berezia

Domekan estreinatu zuten emanaldiaz galdetuta, Ugalde oso pozik agertu da iazko aurreikusita zuten ikuskizunarekin: "Estreinaldia baino hamabost



Haurrak taula gainean, domekan eskainitako ipuin musikatuaren une batean. v.s.

"URTE BAT DARAMAGU ESKOLAN SARTUTA, ETA HAURREK BADUTE IKASITAKO GUZTIA ERAKUSTEKO GOGOIA"

egun lehenago, pandemiak guztiok etxean konfinatu gintuen iaz. Baina aurten, pandemiak sortutako zailtasun guztien gainetik, egin dugu! Lan handia ikasle, irakasle eta kolaboratzaileen aldetik; eta ikusleen

erantzuna, zoragarria. Musikak jarrai dezala, eta 2050ean Bergarako Stoltz Freres organo zoragarriaz gozaten jarrai dezagun!".

Datorren asterako aukerak


Gaurko, egubakoitza, musika ikasleen emanaldia, *Gorputza eta mugimendua* ikastaroa eta musika tailerra antolatu dituzte; bihar, Suzuki taldearen eta tronpa, tronpeta eta oboe ikasleen txanda izango da; eta martitzenean, 19:00etan, ahotsa lantzeko tailerra izango da, Irizarren.

Lazkanoren lanek ikusmina eragin dute herrikideen artean

Egubakoitzean zabaldu zuten Lazkanoren erakusketa Aroztegin eta maiatzaren 23ra arte egongo da ikusgai

J.O. BERGARA

*Lazkano. Bitakora koaderno*a erakusketak joan den egubakoitzean hartu zituen lehen bisitariak. Hamaika margolanez osatutako bilduma ikusgai egongo da maiatzaren 23ra arte. Bidaiekin kontzeptua landu nahi izan duela azaldu du Jesus Mari Lazkanok: "Ez soilik bidaia fisiko bat, baita bidaia mentala ere, intelektualak. Burua zabaldu, jarra aldatu. Beti bidaia baten barnean gaudenean ikuspegi aldatzen dugu, hori bilatzen da".



Lehen bisitariak egubakoitzean. i.s.

Herrira buelta, "polita"

Artikora egindako bidaiatik irten zen erakusketarekin Bergarara itzultzea "berezia" dela azaldu du Lazkanok: "Ez naiz urduri egon, leku askotan egin ditugu erakusketak eta urte asko dira hemen eta han. 45 urteren ostean berriz hemen izatea oso

polita da; bizitza aurrera doa, bai Bergara, bai neu, eta berriro elkartzea berezia da". Joan den egubakoitzean egindako inauguraziora herritar ugari joan ziren, ikusminez. Erakusketaren garrantzia azpimarratu zuten bertaratu zirenek.

Balea Zuriak 'Muga' ikuskizuna eskainiko du bihar Seminarixoan

Poesia eta musika bateratuz, *Muga* ikuskizuna eskainiko dute Balea Zuriako kideek bihar, hilak 24, Seminarixoan. Jon Makuso biolin jolearekin eta Juan Ramon Unamuno gitarra jole bergararrarekin elkarlanean arituko dira emanaldia musikatzen. 19:00ean iritsiko da Seminarixora poesia eta musika oinarri dituen emanaldi berezia.

Sarrerak zortzi eurotan eskura daitezke, Seminarixoko webgurean bitartez.

Duela hamar urte poesia jardunaldi batzuen harira elkartu ziren lau lagun eta poetak abian jarritako proiektua da Balea Zuria; tartean, argitaletxe bat osatu zuten. "Galderak egiten jarraitu nahi dugu, galdetzea azalekoan ainguratuta ez gertatzea baita". Aritz Gorrotxategi, Pello Otxoteko, Felipe Juaristi eta Juan Ramon Makuso izango dira Bergarako ikuskizuneari.

"Lan handia, erantzun zoragarria"

Apirilean Musika zikloaren barruan, *Kaixo, Stoltz jauna. Hor zare?* izeneko ipuin musikatu aurkeztu zuten domekan Seminarixoan. "Egun bizia izan zen atzokoa. Goiz osoa entseguetan eta arratsaldean bi emanaldi. Eta ezin gara zoriontsuago egon!", adierazi zuen, orduan, Bergarako Musika Eskolako zuzendari Marije Ugaldek.



Segurtasun neurriak jarraituz, guztiz bete zen Seminarixoa domekan. v.s.

'Miñan' liburua aurkeztuko dute martitzenean

Ametz Arzallus eta Ibrahimia Balde -liburuaren egileak- izango dira ekitaldian, Seminarixoan. Ndank Ndank taldeak gonbidatuta izango dira bertan, hilaren 27an, 19:00etan. Elkarbizitza eta elkartasun programaren barnean antolatu dute Ibrahimia Balderen migrazio esperientzia ezagutzeko aukera ematen duen solasaldia, Arzallusek lagunduta.

Miranda Julyren 'Kajillionaire' filma ikusgai eguaztenean

Sundanceko 2020 zinema jaialdian estreinatua, iruzurgile profesionalen familia baten istorioa kontatzen du. Gaizki planifikatutako eta etsipenezko kolpe batean, familiak ezezagun bat konbentzitzen du bere hurrengo iruzurrarekin bat egin dezan, beren mundu guztia hankaz gora jarrita. Apirilaren 28an egongo da ikusgai, 18:30ean.



2. atala

'Mehatxua'

Itsu-itsuan erori naiz mehatxuen mundu ilunean.

APIRILAREN 30EAN
'TTAP' ALDIZKARI
DIGITALEAN

HAU **EZ**
DA
NIRETZAT

Beste guztiontzat den websaila.

ttap

Irakurri, ukitu,
ikusi, entzun.

DOAN
Euskarazko aldizkari digitala, deskargatu astero zure mugikor edo tabletan.

Hemendik ere deskarga dezakezu: **ttap.eus**

 **DESKARGATU**
Play Store-n

 **DESKARGATU**
APP Store-n





Ibarrondo auzoko lehen bi atarietan hasi dira hondeatze lanak egiten. MAIDER ARREGI

Hasi dira Ibarrondo berriz urbanizatzeko lanak

Auzoko lehen hiru atarietan igogailua jartzeko lanak hasi dituzte Ibarrodon. Asmoa da lan horiek aprobetxatzea auzoaren berrurbanizatzeko lanak egiteko. Nolako auzoa gura duten auzotarrekin adostuko du Udalak, eta maiatzaren 3rako bilera deitu du

Maidar arregi ANTZUOLA

Hasi dira Ibarrodo auzoa berrurbanizatzeko lanak. Izan ere, auzoko lau atarrietatik hiruk igogailua jartzeko lanak egingo dituzte, eta lanok aprobetxatuko dira ondoren auzoa berrurbanizatzeko. "1, 2, eta 3. atarrietako auzokideek igogailuak jartzeko obra-baimena eskatu dute. Lau atarrietatik hiruk jarriko dute igogailua. Hori aprobetxatuta, Ibarrodo urbanizazio lanak egingo ditugu. Hau da, zorua igogailuak sartzeko zulatu egin behar da, eta, behin zulatuta, berrurbanizatzeko lanak egiteko aprobetxatuko dugu. Lanak modu koordinatuan egingo ditugu, hondeaketa lanak bi bider ez egiteko", argitu du Valen Moñuxek, Hirigintza teknikariak. Hala, Udalak lau baimen eman ditu: horietatik hiru igogailuak egiteko dira eta laugarren baimena, urbanizazioa egiteko.

Igogailuen obra lan sakona dela aitortu du udal aparejadoreak, eta denbora luzez proiektu

tu ezberdinak adosten jardun dutela auzotarrak. "Tarte horretan, Udalak jada bazuen pentsatua urbanizazio proiektu berria egitea Ibarrodon".

Valen Moñuxek GOIENARI aurreratu dio berrurbanizatzeko lanak aurtin hasteko asmoa dutela. "Igogailuen obra eta Udalaren urbanizatzeko lanak batera egitea litzateke helburua; bali-teke, ordea, Udalaren obra arrazoi administratiboengatik pixka bat luzatzea. Izan ere, obraren deialdi publikoa ere egin behar da proiektua egin ostean".

Auzotarren hitza

Udalak nolako auzoa gura duten galdetuko die auzotarrei. "Osoko bilkuran lurzoru publikoan

PROIEKTUAK OINARRIZKO BEHARRAK JASOKO DITU; DISEINU BERDEA HOBETSIKO DA

igogailuak egitearen gaineko erabakiak hartu eta baimena onartu ostean, orain Udalaren prozesua da berrurbanizatzeko proiektua egitea. Ez soilik irizpide teknikoak hartuta, erabiltzaileen irizpideak ere kontuan hartu behar dira proiektu hori egiteko. Hainbat aukera prestatzen ari gara, ondoren auzotarrei hitza emateko eta erabaki batzuk euren esku uzteko", esan du udal aparejadoreak.

Proiektuak oinarritzko beharrak jasotzeko dituela adierazi du Antzuolako Udalak, eta diseinu berdeari garrantzi handia emango zaiola. "Auzoaren azalera kontuan izanik, oinezkoendako zein autoendako proiektua izan daiteke, baina guk oreka bilatu behar dugu. Batzuetan, posible izango da auzotarren nahia kontuan hartzea; beste batzuetan, ezingo da, azalera eta aurrekontuak mugatuko baitu proiektua".

Maiatzaren 3an Udalak auzotarrekin batzartu nahi du.



Atez ateko zintzilikario berriak. MAIDER ARREGI

Zintzilikario berriak jartzen hasi dira Mankomunitateko langileak

Guztira, herriko 37 gunetan egingo dituzte aldaketak; beste kokapen bat ere ezarriko dute, Irimoi auzoan

Maidar Arregi ANTZUOLA

Mankomunitateko langileak hasi dira atez ateko zintzilikarioak egokitzeko lanetan. "37 kokapenetan aldaketak egingo dira -guztira, 38 puntu dira-. Kokapen berri bat ere ezarriko da, Irimoi aldeko baserriek bilketa puntu hurbilagoa izan dezaten. Puntu bakoitzean egin behar diren lanak ezberdinak dira, baina, Irimoiko puntu berriaz gain, neurri askotariko 71 zutabe aldatuko dira edukiera handiagoa izango duten 64 zutaberekin. Hau da, 71 zutabe kenduko dira eta, kasu gehie-

netan, edukiera txikiko zutabeak erretiratuko dira. Jartzen diren 64 zutabe berrietako batzuk eredu berrikoak dira -Oñatin jarrita dauden modukoak-; gaintzekoak, orain Antzuolan jarrita dauden ereduak eta puntu batetik bestera mugituko ditugunak. Aldaketa honen helburu nagusia da esekitokien beheko posizioak saihestea, erabiltzailearentzat erosoagoa izan dadin hamar litroko ontzia esekitokian uztea, eta hustutakoan berriz jasotzea", argitu du Mankomunitateko ustiapen arduradun Luis Lonbidek.



ARROLA

Mugarriz mugarri Misoraino

Azaldegietatik Misorainoko ibilbidean dauden mugarriak aztertu eta txukundu egin dituzte Udalak eta Arrola taldeak elkarlanean. "Ibilbidearen helburua izan da mugarrien egoera fisikoa ezagutzea eta, tartean, katalogatu gabe edo jarri berri dauden datu eta neurketa egitea", esan dute Arrolako kideek.

Kontsumo baxuagoa eta efizienteagoa jomuga

Goier kooperatibak bi hitzaldi egingo ditu. Helburua da herritarrei kontsumo jasangarriagoaren aldeko hautuarekiko sentsibilizazioan eragitea. Hala, apirilaren 28an, argindarraren faktura ulertzeko gakoak emango ditu Goienerekin

Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolako herriak autokontsumo energetikoaren aldeko hautua egingo du. GOIENAK urtarilean aurreratu bezala, herriko hainbat udal eraikin energia berriztagarri hornituko ditu aurtan, eta, guztira, 128 plaka fotovoltaiko jarriko dira.

Hala, bide horri eutsiz, Goienerekin herritarrei kontsumo jasangarriagoa lortzeko urratsak azalduko dizkie hilaren 28an, Olanaren, 18:00etan hasita.

Goienerekin hitzaldiak

Kooperatibak 13.693 bazkide ditu egun, eta Debagoienean 666 inguru. Oier Etxebarriak dio kontsumo jasangarriagoa sustatzeko gakoak direla kontsumo murriztea, efizientzia handitzea eta herritarren jabetzaren bitartez tokiko energia berriztagarria sortzea.

Hori guztia aultzeko bi hitzaldi egingo dituzte. "Hilaren 28an, argindarraren faktura nola uler-



Pilotalekuaren teilatuan gaur egun jarrita dauden plakak. M.A.

tu behar den azalduko dugu, eta fakturaren hobekuntza eta duintzea nondik etor daitekeen argitu. Ekainaren 1ean indarrean sartuko den tarifa berriei buruz ere azalpenak emango ditugu. Arreta non jarri behar dugu?

Gehiegizkoak diren kontzeptuak eta gure esku daudenak argitzen eta hobetzen saiatuko gara", dio Etxebarriak.

Ekaineko hitzaldian, berriz, autokontsumoaren garrantziaz jardungo du Goienerekin.

"Antzuolak energia burujabetzan urrats esanguratsua egin du"

OIER ETXEBARRIA GOIENER

Goier irabazi asmorik gabeko herritar energia kooperatiba da. Antolatutako solasaldien bitartez, antzuolarrei kooperatibaren helburuak eta oinarriak zeintzuk diren azaltzea dute xede.

Zein da Goienerekin helburua?

%100 argindar berriztagarria salerosteko kooperatiba gisa sortu zen, 2012an; ondoren, Goier Taldea osatu da, boluntarioen lanari babesa ematen dion Goier Elkarte sortuz eta sorkuntza proiektuen baitan Nafarkoop eratuz. Helburua da energia menpekotasunaren, ingurugiroari eraginarekin, jabetzaren, pobrezia, balio gabeziaren eta parte hartzearen inguruan eraldaketa bultzatzea.



OIER ETXEBARRIA

Antzuolan plaka fotovoltaikoak jarriko dira. Zein orura ekarriko du?

Energia burujabetzan aurrerapauso txiki baina esanguratsua da, tokiko baliabideekin tokiko beharrei erantzun nahi zaielako. Aurrerago egin daitezkeen ekintza askoz

gehiagoren eta herritarrek piztearen aldeko apustua da.

Energiaren demokratizazioa aldarrikatzen du Goienerekin.

Hala da. Enpresa handien eskuetatik gure eskuetara pasa behar da energia; izan ere, energia bizitzeko oinarriko beharra da. Jaten duguna nondik datorren axola zaigun bezala, bizitzeko behar dugun energia nondik datorren jakitea ezinbestekoa da; energiaren sorkuntzan parte aktibo izateko momentua iritsi da. Ikusle izatetik aktore izatera pasatu behar dugu, bakoitzak ahal eta nahi duen neurrian, baina zezenak barreratik ikusten jarraitzeko garaia bukatu dela deritzogu.

Klima aldaketarekin lotura zuzena du.

Berotegi efektuak eragiten duten gasek sortzen dute klima aldaketa. Energia eredu eraldatzeak klima aldaketa txikitzeko balioko du.

'Cholitas' dokumentalak emango dio hasiera Mendi Asteari

Film emanaldiak, solasaldiak eta mendi irteerak antolatu ditu Arrola taldeak datozen egunetarako

Maidar Arregi ANTZUOLA

Iaz Mendi Astea egitea ezinezkoa izan bazen ere, aurtan Arrola Mendizale Taldeak dena gertu dauka. Hala, hilaren 27an, martitzena, Torresoroan, 2019ko Mendi Film jaialdiko ikus-entzunezko onenak eskainiko dira, 18:30ean hasita. Tartean, 2019an epaimahaiaren saria eskuratu zuen *Cholitas* dokumentala. Boliviako gailurretara igotzen diren emakume indigenei eskainitako filma da. Jaime Murciegok eta Pablo Iraburuk zuzendutakoa.



Cholitas-eko pasarte bat. 'CINEUROPA.COM'

Aurretik, baina, beste bi film labor eskainiko dira: *Harria Herria* -7 minutu- eta *The wurl* -15 minutu-. Sarrera 5 euro.

Mendi Asteari jarraipena hilaren 29an, eguena, emango zaio. 18:00etan, Arrola taldeak urteko batzar orokorra egingo du. Ondoren, 19:00etan, *Mendian hil*, *Hirian hil* dokumentala izango da ikusgai, Torresoroan. Euskarazko pelikula onenaren saria eskuratu zuen 2020ko Mendi Film jaialdian. Bertan izango da Iñaki Peña zuzendari eta medikua. Sarrera doakoa den arren, aurrez erreserba egitea nahitaezkoa da, *labor.eus/sarrerakantzuela* helbidearen bitartez.

Maiatzaren 1ean, berriz, mugarraren bigarren etapa egingo dute, Koroso eta Trekutz arteko ibilbidean barrena.

Asteburu honetan ere kadeteek ez dute partidurik jokatu

Antzuolako Kirol Elkarteko kadete mailako futbol taldeko hamasei jokalarik konfinatuta daude. "Gure taldeko hamasei jokalarik konfinatuta daude, COVID-19 kasu positibo batekin zuzenean kontaktua izan dutelako. Hala, kadeteek aste honetan ere ez dute jokatu. Aurreko astean Soralezko jokalariek zeuden konfinatuta, eta aste honetan gureak", argitu du Ibon Gezalgak, AKEko presidentea.

Bestalde, gogora ekarri behar da AKEko lehen taldeak eta gazteek denboraldia ez jokatzearen aldeko hautua egin zutela; hala, Gipuzkoako Futbol Federazioak erabakita, biek ala biek mailari eutsiko diote.

OHARRAK

Txotxongiloak

Bihar, zapatua, Beheko auzoan umeendako txotxongilo emanaldia izango da, 17:30ean hasita. Antzezkitza taldearen eskutik, euskal ipuinak izango ditu ikuskizunak ardatz. Eurria eginez gero, eskolako patioan egingo da emanaldia.

'Kutxa bira'

Hilaren 25ean, domekan, helduko da Antzuolara Zumarragatik *Kutxa bira*. 12:00etan, ekitaldi nagusia egingo dute Torresoroa pareko muralaren aurrean. Osasun neurriak betetzea ezinbestekoa izango da eta gutxienezko metro eta erdiko distantzia gordeko da.



Jainaga, gaur egungo ikasle talde batekin. Soinu eskolak jaso ostean pandero saio labur batekin agurtzen dute elkar. L.Z.L.

Soinu txikiaren sua eta lilura bizirik dira Elgetan

Apirilean bete dira 30 urte Adolfo Jainaga soinu eta pandero eskolak ematen hasi zela herrian. Aurten eman du izena, gainera, ehungarren ikasleak. "Sekulako altxorra daukazue; ia-ia atari bakoitzeko bi lagun soinua edo panderoa jotzen dutenak"

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Osasuntsu dago Elgetako trikiti eta pandero eskola. Hala azaldu du herrian 30 urtez eskolak ematen diharduen Adolfo Jainaga soinu-jole eta irakasle eibartarrak. "Orain dela 30 urte hasi ginen. Apirilaren 11n bete genuen 30. urteurrena. Aurten, zortzi lagun dabilta eskolan, eta oso pozik gaude", azaldu du.

Eskolak urtero dozena erdi bat ikasle izaten dituela adierazi du, eta aurtengoa berezia izan dela azaldu du. Alde batetik, aurten eman dute izena, lehenengoz, hasierako urteetan ikasle izandakoen seme-alabak. "Sorpresa ederra izan da; izan ere, horrek esan gura du bigarren belaunaldiarekin nabilela lanean dagoeneko".

30 urtean ehun ikasle

Ez da pandemiak markatutako ikasturteak eman duen sorpresa bakarra. Bigarren berezitasuna izan da ikasturte honetan eman duela izena ehungarren ikasleak. "Hala, 30 urtean Elgetako 100 lagun apuntatu dira eskolan. Beraz, Elgetan sekulako altxorra daukazue; ia-ia atari bakoitzeko bi lagun daude



Jainaga eta Narbaiza, 2013ko Herri Eguneko dantzarien kalejiran. L.Z.L.

Herriko ospakizun asko eta askotan

Elgetako ospakizun askotan izaten da Jainaga bere soinuarekin, dela eskolako ikasleekin dela Narbaiza pandero-jolearekin. Jaietako mozerro jaitsieran, Herri Eguneko dantza erakustaldian, Olentzeroren etorreran, pintxo lehiaketako sari banaketan...

soinua edo panderoa jotzen dutenak. Jende pila da hori!".

Ikasle horien artean denetik dagoela azaldu du soinu irakasleak. "Badira familian trikitilariaren bat eduki dutenak –gurasoak, izeba-osabaren bat...– eta badira, baita ere, trikitiaren lilurak erakarrira etorri diren ikasleak, izan plaza taldeak entzun dituztelako izan diskoren bat entzun dutelako".

Herri askotan dihardu Jainagak eskolak ematen, eta agenda estua du asteen zehar. "Astelehenetan Eskoriatzan izaten

naiz, martitzenetan Mallabian, eguaztenetan Markinan, eguenean Elgetan, barikuetan Eibarren eta zapatuetan Legution. Domeketan ez dut eskolarik ematen; bestela, andreak dibortzioa eskatuko dit", azaltzen du, irribarretsu.

Ikasle guztien fitxak txukun gordeta ditu karpeta batean, bakoitza bere plastikoan. Ia ikasle guztiak ditu gogoan. Gehienak izen-abizenez, beste batzuk soinurako edo pandorarako erakutsitako trebetasunarengatik eta baita ere bihurrikerietan trebeenak zirenak. "Ikasleei ez zaie gustatzen fitxa hauek erakustea", aitortzen du. "Umetako argazkiak ere badauzkat, eta, hainbeste urteren ondoren, lotsatu egiten dira, baina ondo gordeta dauzkat; esan dezaket jende asko pasa dela eskolatik".

"SOINUAZ MOZKORTU EGINGO GARA HURRENGO AUKERA DAUKAGUNEAN"

Emon taldeak kolorez beteko du Espaloia domeka arratsaldean

Sarrerak zortzi eurotan eskura daitezke Haizea tabernan eta Bergarako Pol Pol tabernan, baita Internet bidez ere

Jone Olabarria ELGETA

Bergarako Emon taldearen emaldia domekan iritsiko da Espaloia kafe antzokira, 18:30ean. Lau urteko etenaldiaren ondoren, talde horrek 2016ko azaroan Argentinan eman zuen kontzer-

tuaren ostean iragarri zuen etenaldia, baina oraingoan "inoiz baino indartsuago" datozela azaldu dute. Horren adierazle da joan den otsailean Bergaran eskainitako itzulera-kontzertu berezia. Zazpikotea sarrera guz-

tiak agortuta itzuli zen taula gainera, eta jarraitzaileei *Konfeti kolore* (2013) eta *Sua* (2014) diskoetako abesti esanguratsuenak eskaini zieten.

Domekan, *Aurkitu zaitu* lan berria zuzenean entzuteko aukera ere izango dute elgetarrek, martxo amaieran argitaratutako lana. Haizea tabernan eta Bergarako Pol Pol tabernan eskuratu daitezke sarrerak, 8 euroren truke. Internet bidez ere eros daitezke, www.eventbrite.es webgunearen bitartez.



Otsailean Bergaran egindako itzulera-kontzertu bereziko irudi bat. IMANOL SORIANO

Ikasleek ere estima handian dute Jainaga. Eskolak 25. urterena bete zuenean elkartu, eta omenaldi txiki bat eskaini zioten jaietako Herri Egunean. "Lotsa pasatzen dut halakoetan, baina bai, hala izan zen. Herri Eguneko erromerian jotzen ari ginela, halako batean, korro bat egin zuten gure inguruan, eta konaturatu nintzen ikasle izandakoak zirela guztiak. Pieza bukatu, eta koadro bat jaso genuen opari. Polita izan zen, bai".

Pandemiatik, indartuta

Pandemiak zer-nolako eragina izan duen galdetuta, baikor agertu da: "Ziurgabetasun handia izan genuen hasieran. Kezka zen eskolak zelan eman, nola mantendu gogo hori... Eta helburua izan zen eskolak ez etetea, eta ikasleek ikasteko gogoia ez galtzea. Internet bidez hasi ginen, eta ondo konpondu gara, azkenean. Lan handia izan da, ikasle bakoitzari grabatutako bideoa ibiltzen bainion, eta gero, hark bueltan bidali nik lan berria jartzeko. Eskola presentzialak beti izango dira hobekak, baina ezuste politak ere utzi ditu pandemiak; izan ere, etxean jotzen ez zuten ikasle askok jo egin dute itxialdi sasoiaren, eta gehienek asko egin dute aurrera. Eta ni pozik, ez dugulako trikitiaren sua amatatzen utzi".

Erromeriak daude txanponaren beste aldean. Askotariko ospakizunetan, ezkontzetan, erromerietan, bataioetan ibiltzen dira, eta, oraingoz, geldirik dago dena. "Urtebete pasa daramagu jo barrik", azaldu du. Baina baikor da Jainaga, eta argi du egoerak hobera egindakoan soinu txikiak bere lekua berreskuratuko duela plazetan eta kaleetan.

"Ikasle izandakoen seme-alabak ditut orain eskolan"

ADOLFO JAINAGA TRIKITILARIA ETA IRAKASLEA

Berak ere ikasten jarraitzen duela ziurtatzen du Jainagak.

Gauzak asko aldatu dira 30 urteotan?

Orain dela 30 edo 40 urte, soinua beste patxada batekin ikasten zen. Orain, umeak ohituta daude estimulu asko jasotzera. Gauza larregi ikasten dituzte batera, eta nahi izaten dute informazio bizkorra. Interpretatzeko uanean ere arin eta bizkor aterako diren gauzak nahi dituzte. Bestalde, metodologia aldetik aurrera egin da, nire ustez. Lehen, aurrez aurreko eskolak ziren eta zenbaki bidezko metodoa bakarrik zegoen. Gaur egun, solfeoa sartu da, soinua musika

eskoletan da... Guk, esaterako, duela 30 urte atera genuen metodoa, eta horrekin dihardugu, baina badaude beste metodo batzuk eta beste irakasle batzuk. Esango nuke horrek ere hobetu egin duela irakaskuntza. Eta badaude egungo multimedia baliabideak, eta horiek ematen dituzten aukera guztiak. Azkartu eta hobetu egin da irakaskuntza. **Hiru hamarkada eskolak ematen. Irakaskuntzan ere egin duzu bidea.** Denok ipini dugu gure partetik, eta guk ere bai. Egia esan, pozik nago egindako lanarekin. Dena den, norbera ere beti ari da ikasten; izan ere, 30-40 urtean



L.Z.L.

irakaskuntzan ibiltzeak ez du esan nahi dena ikasita daukazunik. Nik ikasten jarraitzen dut. Ikasle berriek beti ematen dizkizute pistak gauzak hobetzeko, eta belaunaldi berrien

eskakizunak betetzen ahalegintzen zara. Lehenengotan, jotzeko hasi ginen ikasten, eta irakaskuntza gerora etorritako aurkikuntza bat izan da niretzat. Denborak erakutsi dit, ordea, irakastea gustatu egiten zaidala. Eta hainbeste urte pasa eta gero, ikusten ari naiz, gainera, oraindik ere gustatu egiten zaidala.

"Belaunaldi berriak", esan duzu.

Bai; izan ere, aurten apuntatu dira hasi gineneko ikasleen seme-alabak. Hau da, bigarren belaunaldiarekin nabil lanean. **Pandemia amaitutakoan erromeria eder bat merezi du herriak.**

Bai. [Barre] Soinuaz mozkortu egingo gara hurrengo aukera daukagunean. Alkoholarekin ez, soinuarekin mozkortuko gara!

Dozena bat ikaslerekin hasi zen eskolak ematen Elgetan

Duela 30 urte, ez zegoen trikiti eta pandero eskolarik Elgetan. "Hemen ezagutu zen trikitilariarik famatuena Jazinto Rivas izan zen, Intxuzabal baserrikoa. 1964an hil zen. Hura izan zen lehenengo irakaslea, eta hark erakutsi zion gure aurreko belaunaldiari *-Laja, Sakabi, Auntxa...* Baina hori bukatu egin zen, eta bigarren belaunaldi hark ez zuen irakasten. Batzuek zer edo zer erakusten zuten, baina etxean eta familiarikoei edo auzotarrei. Gustuz egiten zuten, eta ez modu profesionalen, azaltzen du Jainagak.

1985etik hona hasi zen eskola mugimendua zabaltzen, eta soinua era "masiboan" erakusten. Orduan gerturatu zen

Adolfo Jainaga Elgetako udaletxera, herrian eskolak ematen hasteko proposamena aurkeztera. "Soinu handiarekin hasitakoa naiz, baina soinu txikiak beste su bat dauka barruan, eta, liluratuta, ikasten hasi nintzen. Hasieran, ez neukan maisurik edo erreferentziarik. Gerora, *Sakabi*-rengana joaten hasi nintzen. Jazinto Rivasen ikasleetako bat izan zen *Sakabi*".

Jainagak gogoan du urte batzuk ikasten aritu ostean erakusten hastea erabaki zuela. "Erakusteko metodo bat atera nuen, eta horrekin etorri nintzen Elgetako udaletxera nire proiektua aurkeztera. Dei bat zabaldu genuen herrian, eta kartelak jarri genituen etxe



Elgetako lehen ikasleekin egindako emanaldietako bat. MAITE MANDALUNIZ

atarietan. Hala gerturatu ziren dozena bat lagun, eta horrela hasi ginen. Apirilaren 11n bete dira 30 urte". Udaletxeko ganbaran eman zituen lehenengo eskolak. Pare bat urtera, herri

eskolara pasa ziren trikiti eta pandero eskolak. Orditik, ehun elgetar pasa dira bertatik. Ikasleek omenaldi txiki bat egin zioten Jainagari 2016ko jaietan, eskolaren 25. urtemuga zela eta.

Gerrako obusa La Belgan

La Belga posiziotik hamar bat metro-ra aurkitu zuen astelehenean lehergailua Intxorta 1937 kultur elkarteko kide batek. Abiazioak botatuko lehergailua dela azaldu dute adituek, leher-tu gabekoa. Ertzaintzaren lehergailuteknikariak eraman zuten hura; egoe-ra baloratu eta erabaki zuten bertan detonatzea edo desaktibatzea baino egokiagoa zela kontrolpeko leherketak egiteko gune batera eramatea.



JON ETXEZARRAGA

Bueltan da eskupilota eskola, astelehen eta eguazteneko saioetan

Apirilaren 12an ekin zioten berriro ere eskupilota eskolari herriko umeek. Lehen Hezkuntzako lehen mailatik DBHko laugarren mailara arteko haurrek har dezakete parte, astelehen edo eguaztenetako saioetan, 17:30etik 19:30era. Bi egunetan parte hartu daiteke, baina komenigarria da eguna zehaztea. Izen ematea zabalik dago.

Omenaldia egingo diete gerrako umei, osoko bilkuren aretoan

Zapatu eguerdian egingo dute Elgetakoa, eta Antzuolako zein Elgetako haur erbestera tuak izango dituzte gogoan bertan: Pilar Gorrotxategi Basauri eta Jose Luis Arantzeta Arregi elgetarrak eta Azucena eta Rosa Ortiz de Lejarazu antzuolarrak omenduko dituzte. Ekitaldi itxia izango da; omenduak eta senideak soilik daude gonbidatuta.

Erreusak: ondarea batu eta zabaltzeko egitasmoa

Gure Bazterrak taldeak gidatuta, herriko baserrietako lanabesen katalogazioa egin gura dute, bizimodu horien lekuko izan diren herritarren testigantzak jasoz; talde-lanean egin gura dute proiektua. Astean sinatu dute hitzarmena Udalarekin

Oihana Elortza OÑATI

Oñatiko kultur ondarea batu eta ezagutzera emateko asmoz, herriko baserrietako lanabesen, tresneriaren, bilketa eta katalogazioa egingo dute Erreusak izeneko egitasmoaren barruan. Astelehenean sinatu dute horretarako akordioa Oñatiko Udalak eta egitasmoa gidatuko duen Gure Bazterrak taldeak. "Arantzazuko Soanditta baserriko Pedro Urzelairi jasotako hitza da, Kandiko Izagirrearen hiztegiaren arabera *hondatutako zerbait* esan nahi duena. Gure asmoa, hain zuzen ere, erreus horiei balio historiko eta soziala gehitzea da", adierazi du sinadura ekitaldian Arantzazu Sagarzazu Sacristanek, Gure Bazterrak taldeko presidentek.

Fitxak eta elkarrizketak

Lehenengo eguneroko bizimoduekin lotutako objektuen katalogazioa egitea da lan horren ardatzetako bat, bizimodu haien



Larruzea eta Sagarzazu, zutik, eta Elorza eta Olalde, makurtuta. O.E.

lekuko izan diren herritarren testigantzak jasoz. Aurretik, Oñatiko udal liburutegiko taldeak, Kapirixok eta Artixak egin izan dituzte ondare etnografikoa batzeko ahaleginak, eta lan horiek osatzeko izango da hau. Eta talde-lanean egin gura dute. "Prozesu hau talde-lanean egin beharrekoa dela uste dugu, edozeinek egin eta ulertzeko moduan. Denok gara gure historiaren pare, modu baten edo bestean, eta uste dugu denon ardura dela aurrekoek utzitako kultur ondarea jaso, zaindu eta ondorengoei uztea", dio Sagarzazuk.

72 boluntario

Gure Bazterrak taldeko presidentek eta Klara Larruzea Lobo antropologok gidatuko dute egitasmoa, eta lantaldeak koordinatu. "Landa-lan honetan, Oñatiko 88 interesgune bisitatu ditugu -80 baserri, hiru tailer eta bost erakunde edo talde-. 72 boluntario bi taldetan banatzea da asmoa, COVID-19aren gaitzak eskatzen dituen segurtasun neurriak beteta", azaldu du Larruzek.

Landa-lan hori uztailean eta abuztuan egingo dute eta astebeteko konpromisoa eskatuko zaio boluntario bakoitzari, baserri joan eta informazioa batzeko. Herritar horiekin formakuntza-saioak egingo dituzte ekainean, Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoan, fitxak nola bete eta elka-

rrizketetan zer jaso azaltzeko. Edonork egiteko moduko lana dela aurreratu dute, eta, talde-lana antolatzeko, izen-ematea dago. 18 urte beteta eta proiektuan parte hartzeko interesa duten herritarrek eman dezakete izena, hemen: erreusak@gmail.com. Izen-ematea bost euro da. Herritar guztientzako hitzaldiak ere egongo dira maiatzetik ekainera: Juan Martin Elexpuru, Fermin Leizaola, Suberri Matelo eta Xabier Kerexeta hizlariak etorriko dira.

Udalaren konpromisoa

Izaro Elorza Arregi alkateak esan du jabetuta daudela ondarea jasotzeko duen garrantziaz eta Gure Bazterrak taldearen proiektuarekin bat egiten dutela. Horrela, 15.000 euroko dirulaguntza emango dio Udalak egitasmoa burutzeko. Kultura zinegotzi Iñaki Olalde Alzelaik, bestalde, Oñatiko baserriarrei dei egin gura die egitasmoan parte hartzeko, eta proiektuak berme osoak dituela ziurtatu du. Gure Bazterrak taldeko kideek ere adierazi dute ez dutela tresnen jabeek kalterik sor dazkiekeen ezer egingo.

72 BOLUNTARIOREKIN HERRIKO 88 GUNE BISITATUKO DITUZTE UZTAILEAN ETA ABUZTUAN



JOKIN BEREZIARTUA

Sagarzazu 'Galdegazte' saioan

Oñatiko Elkar Hezi ikastetxeko Markel Herranzek, Xubane Arregik, Saioa Markuletak, Xabier Otxoak, Mikel Guridik eta Lorea Atxak Mirari Sagarzazu Sacristan elkarrizketatu dute *Galdegazte* saioan. Bertsolaritzaz eta ilustrazioaz galdetu diote ikasleek, besteak beste. Saioa apirilaren 28an ikusi ahalko da, Goiena telebistan, 21:30ean eta 23:30ean.

8.610 kilo jaki bildu dituzte Lesbosko errefuxiatuendako

Elikagai bilketaren emaitzarekin oso pozik dago Hotz Oñati: 8.610 kilo elikagai jaso dituzte. Martzelino Zelaia kaleko lokal batean pilatu dute bildutako guztia, eta 69 kaxatan -horietatik 45 handiak- sartu eta hamaika paletetan egokitu dituzte. Eguaztenean eraman zuten bildutako guztia Donostiara, bi kamioitan, Zaporeak elkarteak Martutenen duen egoitza nagusira. Handik bidaliko dute Lesbosera.

Hotz Oñatik eskerrak eman gura dizkie modu batera edo bestera kanpaina horretan parte hartu duten guztiei: logistikan, jakiak ematen eta batzen izan diren herritarrei zein herriko dendei.



NIRE USTEZ

IÑAKI FERNANDEZ

Irteera gabeko leiho bat

Giltzapean nagoela sentitzen dut egunero esnatzean, eta hori nire logelan leiho bat dudala, baina ihes egiteko aukerarik gabe, arrazoa edozein dela ere. Batzuetan itxaropen-izpi bat transmititzen didan eguzki triste baten bisita izaten dut.

Goizean leihoa irekitzen dudanean paisaia bera izaten dut, kanpoko klima edozein delarik. Kanpoan eguraldi ona edo txarra izan, nire *haitzuloko* eguneko grisak izateko joera daukate.

Oso gutxitan aurkitzen naiz auzokideren batekin, eta elkar sakon ezagutzen ez badugu ere, badakit zein diren haren musika-gustuak, barruko patio batean dena entzuten delako; betiere, zure borondatearen kontra. Eta blokeo mentala sentitzen dudanean, iruditzen zait pladurrezko kartzela batean bizi naizela. Hala ere, kalera irtetea, egunero burutik pasatzen zaidan txorakeriez ohartzen naiz. Ez dut gura imajinatu horrelako zenbat gauza pentsatzen dudanean egunean zehar, ia beti oharkabea. Baina bihar berriro. Seguru ez naizela bakarra.



Joan den urteko udalekueetan parte hartu zuten gaztetxo batzuk Bidaurretan. GOIENA

400 ume hartuko dituzte udaleku irekietan

Ume kopurua lehen aldiz mugatzeaz gain, aurtengo beste berrikuntza da online bakarrik eman ahal izango dela izena, apirilaren 30era arte. Joan den urtekoen antzerakoak izango dira eta aurten ere ez da arte udalekurik egingo

Oihana Elortza OÑATI

Ekainaren 28tik uztailearen 23ra izango dira aurtengo udaleku irekiak eta dagoeneko zabalik dago izen-ematea. Aurten, gainera, online bakarrik eman ahal izango da izena. Horixe da berrikuntzetako bat.

Izen-ematea zabalik dago

Lehendabizi, ordainketa egin beharko da, eta ordainketa horren ziurtagiria bidali gero, orain arte moduan. Bidalketa hori, baina, Internet bidez egin beharko da www.oñati.eus webgunean; ziurtagiria eta umearen tutore baten nortasun agiriaren kopia atxiki beharko dira izen-emate orrira. Ordainketak egiteko, Laboral Kutxa eta Kutxabank banketxeetan kontu korrante zenbakiak jarri dira gurasoen eskura. Izena emateko azken eguna apirilaren 30a izango da, eta ez da epez kanpoko izen-ematerik onartuko. Laguntza behar duten gurasoek ludotekara jo ahal izango dute, 09:00eta-

tik 12:00etara eta 17:00etatik 19:00etara, edo telefonoz deitu, 688 78 66 59 zenbakira. Prezioari dagokionez, joan den urteko berak izango dira aurtengoak: 71,53 euro da matrikula prezio orokorra, baina, seme-alaba batak baino gehiagok parte hartzen badu, matrikularen prezioa merkatzen joango da: bigarrenaren matrikula 61,31 euro izango da, hirugarrenarena 51,09 euro eta laugarrenetik aurrera, doan.

Plaza mugatuak daude

Udaleku irekietan 4 eta 12 urte arteko haurrek parte hartu ahal izango dute, 2009tik 2017ra bitartean jaiotakoak. Eta aurten 400 ume hartuko dituzte. Horixe da bigarren berrikuntza. Joan

**09:00ETATIK
13:00ETARA IZANGO
DIRA ETA HERRIKO
HAINBAT GUNETAN
ELKARTUKO DIRA**

den urtekoen itxura izango dute aurtengoek ere, eta, talde txikietan egingo direnez, 400ean jarri dute muga. Plaza baino ume gehiagok ematen badute izena, zozketa egingo da maiztaren 3ko astean. Lortzen ez dutenei dirua itzuliko zaie.

Joan den urtean bezala, aurten ere 09:00etatik 13:00etara egingo dira udaleku irekiak. Herriko hainbat puntutan egongo dira topalekuak eta taldeek txandaka egiteko moduan antolatuko dituzte ekintzak, jende pilaketarik ez gertatzeko. Talde bakoitzak bere materiala izango du eta saiaturiko dira kanpoan egin daitezkeen ahalik eta ekintza gehien antolatzen; inguruko auzoetara joateko irteerak, tartean. Aurten, bestalde, ez da arte udalekurik egingo, udaleku irekiak bakarrik egingo dira.

Begiraleei dagokienez, 117k eman dute izena. Guztien dokumentazioa aztertzen eta konprobatzen ari dira orain, eta aukeraketa egingo dute gero.



Lankidetzeta luzatu ondorengo talde argazkia, martitzenean. T.M.

Ikerketa paleontologiko eta arkeologikoek jarraipena dute

Oñatiko Udalak eta EHUko Historiaurreko Ikerketa Taldeak lankidetzan jarraituko dute 2021ean ere

O.E. OÑATI

Iaz sinatutako lau urterako hitzarmenari jarraipena emanez, Oñatiko Udalak eta Euskal Herriko Unibertsitateko Historiaurreko Ikerketa Taldeak lankidetzan jarraituko dute 2021ean ere, "Oñatiko aztarnategi arkeologiko eta paleontologikoetarako ondare arkeo-paleontologikoaren lotutako dibulgazioa eta azterketa egiteko, aholkularitza emateko eta ondare horri balioa emateko". Udalak gaineratu du konpromisoa hartzen duela ikerketa taldeak egiten dituen dibulgazio zientifikoko, ikerketako, balioa emateko eta aholkularitzako ekintzak sustatzeko eta talde horretako kideek proposatutako azterketa zientifikoak bermatzeko eta berresteko. Hitzartutako artean daude honako hauek, besteak beste: Gipuzkoako eta Oñatiko historiaurreari eta paleontologiari bu-

ruzko hitzaldi saio multzo bat egitea eta Arrikruzeko haitzuloan hainbat jarduera gauzatzeko aukera proposatzea. Horretaz gain, Araotzeko bailarako haitzuloetan, Arrikruz konplexu karstikoan, ikerketan sakontzea ere adostu dute. 12.000 euroko aurrekontua dute asmo hauek, eta Udalak bere gain hartuko ditu sor daitezkeen gastu guztien finantzaketa: "Betiere, aurrekontu honen barruan eta ekintza-plan horien zehaztasunak aurkeztutako ziriketa memorian jasota badaude".

Udalaren eta EHUren arteko lankidetzeta garrantzitsua dela esan du Alvaro Arrizabalagak, eta azaldu du Oñatin duela 150 urtekoak direla lehen ikerketa arkeologikoak: "1871an aztarna paleontologikoak aurkitu ziren Aizkirrin, eta hango hezurak Europako eta AEBetako museotara eramane zizuten".

TicketBAI-ren gaineko bilera antolatu dute merkatariendako

TicketBAI-ren erabilera 2022ko maiatzaren 1etik aurrera derri-gorrezkoa izango da, eta horren gaineko informazio bilera antolatu du Gipuzkoako Bazkondeak Oñatin datorren asterako; apirilaren 28an izango da, 14:00etatik 16:00etara, Santa Ana aretoan. Herriko merkatari, ostalari eta zerbitzuen sektoreko arduradunei zuzenduta dago.

Zazpibidetan oraindik ez dituzte pibote hidraulikoak jarriko

Zazpibidetan oztopo hidraulikoak jartzeko lanak egin dituzte, baina piboteak ez dituzte oraindik jarriko. Instalazio eta konfigurazio lanak egin behar dituzte orain, eta, horretan hasita dauden arren, oraindik ez dira martxan jarriko piboteak. Bidegurutzea bera, baina, asfalto lanak bukatutakoan zabalduko dute.

Maiatz erdialdean ireki gura dute Zubikoa berria

2019ko abenduaz geroztik kiroldegia eraberritzeko lanetan ari dira. Prest dago beheko solairuko harrera-gunea eta amaitzeaz gimnasioa eta igerilekuko terraza-gunea. Bestetik, igerilekuak zabalik daramatzan bi hilabeteetan "harrera ona" izan du

Maialen Santos OÑATI

Zubikoa berriko obrak ari dira pixkanaka amaierara heltzen. 21 hilabetez itxita egon ostean, kiroldegi eraberritua maiatz erdialdean irekitzea "aurreikusen" dutela adierazi du Udalak. Bien bitartean, lanak amaitzen eta azkeneko ukituak ematen dihardute.

Harrera-gunea, amaituta

Xabier Igartua Udaleko Sozioekonomia zinegotziak azaldu du beheko solairuan kokatuta egongo diren harrera eta administrazio gelak amaituta daudela dagoeneko. "Harrerako ate printzipala amaitzen ari dira orain", zehaztu du. Hori horrela, Zubikoako administrazioako langileak kiroldegia bera ireki aurretik bulego berrietan lanean hasteko moduan egongo dira. Kanpoko urbanizazioa amaitzearekin batera irekiko dute harrera, bestetik. Eta hortik gertu egokitu duten itzaroteko gune zabala, *hall*-a, gertu dute jada.

Solairu berean ari dira muntatzen gimnasioa eta baita bertako erabiltzaileendako aldagelak ere. "Zoru berezi bat jartzen ari dira asteon. Gainontzean, paretak, argiteria... amaituta daude. Aldageletan ere dena prest dago, eta garbiketa lanak egiten ari dira", aitortu du.

Rokodromoa, gimnasiotik at

Zubikoa zaharrenean ez bezala, rokodromoa gimnasiotik kanpo izango du berriak, "eraikin zaharrenean bi squash gelak zeuden toki berean, hain zuzen ere". Igartuak azaldu duenez, boulderra ere amaituta dago, eta horren ondoan jarri dute squash: "Neurri ofizialtara ekarri gura izan dugu, eta paretak eta gainontzekoak prestatzen ari gara oraindik". Azkenik, gimnasioaren ondoan egokituko dituzten hiru fitness gelak amaitzeke daude oraindik.



Igerilekuko terraza-gunean eta solariumean lanean ari dira. OÑATIKO UDALA

ERABILTZAILEEK EZINGO DUTE SAUNA ERABILI; COVID-19 GAITZAREN ERAGINEZ, ITXITA EGONGO DA

Zinegotziak adierazi du Zubikoa kanpoaldeko urbanizazioarekin hasita daudela: "Fatxadan isolamendua sartu dute, eta hormigo polimeroarekin babestuko dituzte paretak. Aste honetan hasi dira lan hori egiten".

Azken ukituak terraza-guneari

"Igerilekuko terraza-gunea eta solariuma amaituta daude ia, eta falta da eraikinaren albo bat babestea", zehaztu du. Tenperatura mantentzeko babesa ere bota diete paretei, eta azken ukituak ematen ari dira. Belardian, bestetik, haziak ere in dituzte, belarra irten dadin.

Hain zuzen, igerilekuaren maila berean egongo dira belardia eta egoteko lekua. Baina hor bakarrik ez: atikoan ere egokituko dituzte terraza eta eguzkia hartzeko gunea; solariuma, alegia. Azken horretara igerileku

txikitik eskailera igota iritsi ahal izango da.

Igerilekuetako aldagelak zeharkatuta iritsi ahal izango da saunara, baina kiroldegia ireki berriaren erabiltzaileek ezingo dute zerbitzu horretaz gozatu, COVID-19aren eraginez.

Kantxa berdeak ere hainbat aldaketa izan ditu azken hilabeteetan; besteak beste, lurra eta argiteria aldatu egin dituzte. Pilotalekuan ere hainbat konponketa egin dituzte, eta lanak amaitzeaz daude. Aipatzekoa da larrialdi irteera bat jarri dutela, eta, horrenbestez, harmailtako edukiera handiagoa izango da.

Igerilekuek, "harrera ona"

Otsail hasieran ireki zituzten igerileku berriak, eta "harrera ona" izan dutela adierazi du Xabier Igartuak: "Ikusten genuen kiroldegi osoa bukatzea arte luzatu egingo zela prozesua, eta pozik gaude, lortu genuelako urtebeteren ostean igeriketa zerbitzua berreskuratzea eta martxan jartzea". Are gehiago, azaldu du ireki zirenetik egunerokoan ia txanda guztiak betetzen dituztela igeri egitera joaten diren erabiltzaileek.

"COVID-19ak baino gehiago, lesioek izan dute eragina taldean"

MARIA BALZATEGI ESKUBALOI JOKALARIA

Elgoibar taldeko jokalaria beterranoetako bat da Balzategi

M.S. OÑATI

Gaurve Asesores Elgoibar taldeko jokalaria da Maria Balzategi oñatiarra. Urtebetez jokatu barik egon ostean ekin berri dio Zilarrezko Ligan jokatzeari.

Nolako urtea ari da izaten?

Gogorra izan da, kosta egin zaigu ligara ohitzea; elkar ezagutzea zein erritmoa hartzea. Euskadiko ligan jokatzetik Zilarrezkoan jokatzera aldea dago: fisikoki eta baita taktikoki ere.

Zilarrezko Liga Espainiako gorenetakoa da...

Hala da. Bigarren mailakoa da, eta igartzen da lehenengo mailan jokatzeko asko dagoela.

Jokalaria gazteak dituzue taldean, baina zu beterranoetako bat zara...

Senior mailan gazteenetakoa nintzen, baina orain, aldiz, zaharretakoa naiz. Horrek dakarren guztiarekin.

Aloña Menditik Elgoibarrera egin zenuen jauzi, eta orain, 22 urterekin, goi mailan ari zara...

Gazte mailako lehen urtean iritsi nintzen Elgoibarrera, eta denboraldi erdian senior mailara igo ninduten, Zilarrezko Ligan jokatzeko. Horrenbestez, 16 urterekin maila horretan debutatu nuen.

Irakaspena izan da?


Bai; handia. Euskadiko selekzioarekin jokatzeko lagundu egin dit gisa horretako lehiaketetan kontzentratzen. Baina, egia esan, izugarri ikasi dut taldekideengandik ere.

Aloñan aritu zinenetik, aldatu egin duzu jokatzeko modua?

Bai; handia. Euskadiko selekzioarekin jokatzeko lagundu egin dit gisa horretako lehiaketetan kontzentratzen. Baina, egia esan, izugarri ikasi dut taldekideengandik ere.

Mugiment kirol txartelarekin bat egin du Oñatiko Udalak

Mugiment txartelarekin bat egin du Udalak. Horrek esan gura du txartel hori duten Euskal Autonomia Erkidegoko beste herri batzuetako biztanleek ere erabil ditzaketela Oñatiko kiroldegiko zenbait zerbitzu. Hain zuzen ere, gimnasioa eta fitness gela erabili ahal izango dituzte, zerbitzuak zabaltzen dituztenei aurrera.



Maria Balzategi. MIREIA BIKUÑA

Bai. Lehen, lateralean jokatzeko nuen, eta indarra eta potentzia nituen ezaugarri nagusi. Baina orain, estremoan jokatzeko dut, eta entrenatzaileak irakatsi dit nola kokatu, nola salto egin... Taktikoki bi postuek ez dute zerikusirik.

Liga erdiprofesionalean ez duzue etenik eduki...

Zorte handia dugu, lehiaketak aurrera jarraitu duelako gure kasuan. COVID-19ak baino gehiago, eragin handiagoa izan dute lesioek taldean. Min asko egin dute taldean eta jokalaria asko atzean utzi behar izan ditugu.

Eskaladan ere aritzen zara...

Txikitatik gustatu izan zait. Oñatiar batek asko lagundu zidan, motibatu egin ninduen, eta iaz, eskubaloia albo batera utzi eta eskalatzeko egin nuen urtea. Oraindik saiatzen naiz ahal duanetan joaten.

Eusko Jaurlaritzaren ekimenez sortutakoa da Mugiment txartela, eta, EAEko beste herri batzuetakoek Oñatiko hainbat kirol zerbitzu erabil ahal izango dituzten modu berean, oñatiarrek ere berdina egin ahal izango dute; betiere, egitasmo horrekin bat egin duten herrietan.

Mugiment txartela atera edota horri buruzko informazio gehigarria eskuratu gura dutenek Zubikoa kiroldegiko bulegoetan galdetuta argitu ditzakete zalantza oro.



Mikel Sagartzazu, etxean, mikrofonoaren aurrean, ahotsa grabatzen. MIKEL SAGARZAZU

Bikoizle lana, ahotsa jartzea baino gehiago

Mikel Sagartzazu bikoizlea da, eta, pandemia egoerak bultzatuta, azkenaldian geroz eta bikoizketa-lan gehiago egiten ditu etxetik. Bere lanak erakustea da horren helburua, eta sare sozialen bitartez partekatzen ditu estudioan egindako lanak

Amaia Txintxurreta OÑATI

2012an hasi zen antzerkigintza ikasten Mikel Sagartzazu. Formakuntza hori bukatu ostean, Donostian Binahi *casting* agenzia-ekin hasi zen lanean. Pare bat urtean hainbat figuraziotan eta pare bat film laburretan hartu zuen parte. Gero hasi zen agenzia horretan bertan bikoizketa eskolak jasotzen. Bi urtez jaso zituen bikoizketarako formakuntza saioak, eta ondoren, hainbat lan egiteko lehen deiak jasotzen hasi zen. "Gustura hasi nintzen, bikoizketa lanak egitea asko gustatzen zait eta horretan jarraitzen dut", adierazi du, pozik, Sagartzazuk.

Grabazio estudioa, etxean

Ordutik hona, sarritan zapaldu ditu grabazio estudio profesionalak. Baina, pandemiak eraginda, azkenaldian, etxean hasi da bikoizketa lanak grabatzen. Eta ez da mugatzen grabatzera: testuak itzuli, moldatu, zuzendu, grabatu eta soinua eta irudia

editatzen ditu, bi ordenagailu-ekin eta mikrofono batekin. "Ez da estudio profesionala, baina askoz era merkeagoan posible da lana etxetik egitea", azaldu du. Behin lanak bukatuta, sarri igotzen ditu eduki horiek sare sozialetara, jende gehiagorengana iristeko asmoz.

Sagartzazuk dio bikoizle lanetan jardutea ez dela pertsonaia bati ahotsa jartzea bakarrik: "Ikusi egin behar dituzu pertsonaiaren mugimenduak, intentzioak, nola jartzen dion indarra ahotsari...".

Lan profesionalak ere bai

Bikoizle gisa egin duen lan handiena *Chicago Fire* telesailan izan da. AXN plataforman ari

AXN PLATAFORMAN IKUS DAITEKEEN 'CHICAGO FIRE' TELESAILAN JARRI DU AHOTSA, ADIBIDEZ

dira eskaintzen orain zazpigarren denboraldia, asteleheneetik ostegunera bitartean, 17:30etik 19:30era, egunero hiru kapitulu. "Proiektu horrek daukan indarra ez dut uste oso ondo aprobetxatuta dagoenik. Izan ere, Donostiako eta Madrilgo hainbat bikoizlek hartu dugu bertan parte. Hemengoan artean daude, adibidez, *Goenkale*-n ezagun egin zen Iñaki Beraetxe eta Kandido Uranga. Madrilgo bikoizleen artean daude, esaterako, *Marvel* eta *Star Wars*-eko pelikuletan parte hartu izan dutenak. Eta horrelako telesail batean, alde bateko zein beste kalitatezko ahots horiek guztiak batzea benetan zoriontzekoa da. Iruditzen zait horrelako proiektu gehiago sustatu beharko lirakeela".

Oraindik, behintzat, Euskal Herrian ez da posible bikoizle lana egiteak bakarrik bizi izatea, baina esperantza dauka aurrera begirako proiektu "handi" gehiago ateratzea.

Liburutegiko gorabeherak umorearekin 'Zarramarra'-n

Denboraldi honetako azken saioa izango da gaurkoa eta maiatzaren 7an Goiena telebistan ikusi ahal izango da

A. T. OÑATI

Gaur, Liburuaren Nazioarteko Egunean, liburutegiko ardura-dun Arantzazu Ibarrondo izango da 19:30ean Santa Anan, *Zarramarra*-k eskainiko duen saioko gonbidatua. "Nork ez ditu jaso etxean isunak liburuak garaiz ez entregatzeagatik?", dio Josu Zubia taldekideak. Hortik hasi eta ez dago jakiterik *Zarramarra*-koen umoreak nora eramango dituen ikus-entzuleak. Barre egiteko aukera izango da Iker Plazaolarekin eta gainerako lagunekin batera, eta Amaia

Aranzeta estreinatuko da gaur, kolaboratzaile.

Sarreraren salmenta ez da joan aurreko saioetan bezain azkar: "Ezohiko abiadura horren zer-gatiak, garai oso zail eta grisetan, kalitatezko edukiak eta barre egin nahia direla uste dugu, besteak beste. Oraingoan, Oñati egoera oso larrian egonik ere –gure artean baja bat dugu COVID19-agatik–, salmenta motelago doalarik ez dugu geratu nahi izan", azaldu dute. Goiena telebistak osorik eskainiko ikus-kizuna, maiatzaren 7an, 23:00etan.



AMAIA TXINTXURRETA

Txotxongiloen itzalekin jolasean

Zurrunka Teatro taldeko Eñaut Gorbearen eskutik, 8 urtetik gorako gaztetxoek itzal txotxongiloekin esperimintatzeko aukera izan dute liburutegian hiru egunean. Gaur, egubakoitza, izango dute azken saioa, eta egunotan gustura ibili dira neska-mutikoak txotxongiloekin eta horiek sortutako itzalen magiarekin disfrutatzen.

Idoia Asurmendiren kontzertua domekan Antixena parkean

Apirileko egitarauaren barruan, Antixeneko gaztetxeok antolatuta, Idoia Asurmendiren musikaz gozatzeko aukera izango da. Domekan 12:30ean izango da emanaldia, Antixena parkean, eta sarrerak beharko dira ikuskizunerako. Ordu bete lehenago salduko dituzte; langileendako bost eurotan eta ikasle eta langabeendako, hiru eurotan.

Zapatuan, Lined eta Lee-Kore taldeak gaztelekuan

Doinu gogorrak izango dira entzungai bihar, zapatua, 19:00etan, gaztelekuan. Oñatiko Lee-Kore eta abeslari oñatiarra duen Arrasateko Lined taldeak arituko dira. Sarrera bost euro da –gehi gastuak–; salgai daude Udalaren webgunean, Txokolateixan eta Herriko Plazako totemean. Kanpotik edariak sar-tzea debekatuta dago.

Denboraldiko lehen duatloi proba, Oñatikoa

DUATLOIA Zapatu arratsaldean lehiatuko dira 360 lasterkari Foruen plazan hasi eta bukatuko den zirkuituan; parte hartzaileek 20 kilometro egingo dituzte bizikletan eta 7,5 kilometro korrika; aurtengo proba erlojupekoa izango da, "segurtasunagatik"

Hasier Larrea OÑATI

Oñatiko duatloiaren 28. edizioa "ikuskituz kutsurik gabekoa" izateko deia zabaldu du Oñatiko Udalak: "Herrian bizi dugun egungo egoerak hala behartuta". Izaro Elorza alkateak "soilik kirolariei" begirako ekimen bezala definitu du bihar arratsaldeko proba, eta herritarrei ibilbidean zehar "sakabanatuta" eta "zaintza lanetan egongo direnen aholkuei kasu eginez" egotea gomendatu die. Zaleak plazara gerturatzea "alferrrik" izango dela gogoratu du, irteera eta helmuga guneak "guztiz hesituta" egongo baitira. Alternatiba moduan, zaleek *streaming* bidez jarraitu ahalko dute lasterketa, Oñatiko Duatloiaren webgunetik.

Ezohiko osagaiak

Euskadiko Triatloi Federazioaren proba puntuagarria Aloña Mendiko triatloi taldeak antolatu du aurten ere, eta, halabeharrez, orain arteko "bereziarena" izango da. Publikoaren presentzia faltaz gain, alde batetik, urteko lehena izango delako partaideentzat, aurretik programatuta zudenak atzeratzearen ondorioz; eta bestetik, 25 segundoen behin eta banan-banan aterako direlako, erlojuia izanik norberaren epaile. Lehiakideen segurtasuna



Egindako azken proban, 2019an, partaideak helmugara bidean. GOIENA

karrera aurretik eta ostean ere egongo da bermatuta, eurentzat egokitutako frontoiko gunea ere itxita egongo baita.

Gainera, bizikletaz egiteko ibilbidea ere aldatu dute aurten; Elorregirako joan-etorriaren ostean, Etxeaundi igarotakoan, Lamiategiko bidegurutzetik Arregiko aldapa igo beharrean, aurrez Santipilau igoko dute, eta handik kanposantura joko dute. Gainontzean, betiko ibilbidea izango dute.

Hortaz, kirolariei 5 kilometro egingo dituzte korrika, lehenbi-

zi, erdiguneko zirkuituan; gero, 20 kilometro bizikletan; eta, azkenik, 2,5 kilometro korrika. 16:00etan hasi eta 19:30 aldera bukatuko da, eta 20:00etan banatuko dituzte sariak.

"Gogoa", denen ahotan

Kadete mailatik aurrerako 360 atleta federatuk hartuko dute parte. Horietatik, 60 izango dira emakumeak, eta duatloi egokitua egiteko aukera ere eskainiko dute antolatzaileek. Egunean zehar 100 boluntario arituko dira lanean, 80 herritar eta Aloña

Mendiko hogeiki kide inguru. "Guztia ondo irteteko gogotsu gaude denok, eta gure esku da goen guztia egingo dugu horretarako", adierazi du Andoni Correasek, kirol klubaren izenean. Bakarkako erlojupekoa izatea "erronka erakargarria" ere badela gaineratu du.

Errepidea, itxita

Azpitarratzekoa da ibilgailuek ezin izango dutela Oñati eta Elorregi arteko errepidea 16:00etatik 19:30era bitartean

erabili. Ondorioz, oñatiarrek Legazpira eta handik Deskargantz hartu beharko dute bailarako beste herri batera joateko.

Alde horretatik, itxiera perimetrala ezarrita egoteak on egin diela aipatu du Correasek, herritarren mugimenduak "murrizagoak" direlako.

Itxierak itxiera, kirolarien arteko lehia, behintzat, irekia izatea espero dute guztiek. Garaiaren nagusia, halaber, hurrengo aldia mugarik gabekoa izatea litzateke.

"COVID-19ak beste gainkarga handi bat ekarri digu antolaketan"

ANDONI CORREAS ALOÑA MENDI TRIATLOI TALDEA

lazio hitzordua pandemiaren hasiera bete-betean suertatu zen, eta, ondorioz, ezin izan zuten aurrera atera.

Zein neurri hartu dituzte duatloia antolatzeko?

Kasurik okerrean jarri gara; hau da, protokoloak ezartzen dituen distantzia minimoak handiagotu egin ditugu.

Beharbada, horregatik erabaki duzue erlojupekoa egitea?

Bai; modalitate horrek lasterkarien arteko distantziak gehiago zabaltzea ahalbideratu digu, baina, era berean, buruhauste hutsa izan da, guretzat berria baita formatua. **Edozein federatuk izan du aukera parte hartzeko?** Ez, EAEn bizi direnek bakarrik, egungo legediak erkidegoen arabera mugatzen dituelako lasterketak. Hortaz, partaideei baimen bana igorri diegu.



ANDONI CORREAS

Ibilbidea ere moldatu behar izan duzue, ezta?

Hori da! Oñatitik ez iritelen saiatu gara, bestelako baimen berezirik ez eskatzeko. Beraz, ibilbidea ez da Elorregi baino urrunago luzatuko.

Zaleei zintzo jokatzeko dei egin diezue.

Bai, eta euren pentsatuz, *streaming* bidez eskainiko dugu karrera, modu duinean. Hainbat kameraren bidez ikusi ahalko da, eta unean uneko emaitzak ere jarriko ditugu.

Oihana Kortazar, Espainiako Txapelketa prestatzeko fasean

MENDI LASTERKETAK Espainiako Kopako lehen proba irabazi ostean, maiatzaren 2ko zita dauka begiz jota

H.L. ELGETA

Algamitasko (Sevilla) Peñon Xtrem lasterketan bizkorrena izan berrikan, atsedenerako tarte gutxi hartu du Kortazarrek, asteburu honetan lehiatuko baita Kantabriako Liendres herriko

distantzia motzeko trail txapelketan. Durangoko Atletismo Federazioko taldekideekin batera abiatuko da hara, maiatzaren 2an Jaenen jokatu den Espainiako Txapelketarako "entrenamendu perfektua" dela iritzita.

Hitzorduari garrantzi handia ematen dio elgetarrak, "irabazlea zuzen-zuzenean" sailkatuko da eta Munduko Txapelketako.

Mendi lasterkaria fisikoki "indartsu" dago, nahiz eta urtarril eta martxo artean egin izan ohi diren karrerak aurten bertan behera gelditu izanak "urduritasun puntu bat" eragin dion: "Sevillako proba terreno teknikoan garatu zenez, lesioren bat jasateko beldur nintzen". Lehian zehar, ordea, "gustura" ibili zen Kortazar, "ibilbideak



Kortazar, helmugan. TRAIL FEDME

eta aurkariek une oro kontzentratuta egotera" behartu bazuten ere.

Debagoieneko ordezkaritza

Xabi Lete oñatiarra eta Iñigo Alzola arrasatearra ere lehiatu ziren, gizezkoen kategorian, Algamitasko ibilbide gorabeheratsuan. Euskal Mendizale Federazioko lasterkariak 13. eta 28. postuan helmugaratu ziren, hurrenez hurren. Kopako hurrengo erronka maiatzaren 16an izango dute, Miranda de Ebron.

Bizilaguna baino abilago ibiltzeak dakarren saria

FUTBOLA Joan den asteburuko derbia giltzarria zen Bergararentzat eta UDarentzat, Hirugarren Mailarako igoera faserako sailkatzea baitzeukaten jomugan; berdinketak mahoneroei bakarrik egin zien mesede, eta, kontrara, ataka estuan gelditu da UDA

Hasier Larrea DEBAGOIENA

Kirolaren paradoxetako bat da gaur aurkari dena bihar bidelagun izan daitekeela. Horixe gertatzen zaio Aretxabaletari Bergararekin gizonzkoen Ohorezko Erregional Mailako bigarren multzoko ligaxkan. Domekan, Agorrosinen elkarren arteko derbia jokatu zuten bi taldeek, eta, puntu banaketa egon bazen ere, airosoago atera ziren etxe-koak bisitariak baino, ligan hamaika puntu batuta igoera fasea jokatzeko baimena eskuratu baitzuten berdegunean. UDAk, ostera, bederatzi punturekin amaitu du zazpi partiduko lehia-keta, eta laugarrena da sailkapenean. Asteburuan atseden hartuko dutenez, gainontzeko taldeek zer egingo zain gelditu beharko dute; zehatzagoak izanda, Bergarak Mutrikuren zelaian irabazteko zain. Emaizta horrek balio die bakarrik, eta, gertatu ezean, agur esango liokete txapelketari: Mutrikuk aurre hartuko lioke klasifikazioan, eta Eibar, Bergara eta Elgoibarrek batera sailkatuko litzateke *play-off*-eko final-laurdenetarako.

Hala ere, UDAk Bergararengan esperantza edukitzeko argudioak dauzka, sailkapeneko bigarren postua defendatzea garrantzitsua da-eta mahoneroentzat. Modu horretan, lehen multzoko hirugarren sailkatuaren aurka neur-tuko lituzke indarrak hurrengo fasean. Emaizta ona eskuratuko ez balu, berriz, hirugarren edo laugarren geldituko litzateke behin betikoz, eta, ondorioz, lehen multzoko bi talde onen-tako bat izango luke epe labur-rean aurkari.

Bat, Hirugarren Mailara

Esan bezala, Jose Javier Barke-roren mutilek bihar, 16:30ean hasita, Mutriku euren gain har-tzea lortuko balute, sailkapen nagusia bere horretan geldituko litzateke: Eibar lehena, Bergara



Bergarako jokalaria bat baloiarekin zer egin pentsatzen, UDAko bat atzean duela. GOIENA

Nola zaudete liga amaierari begira?



JOSE JAVIER BARKERO
BERGARAKO ENTRENATZAILEA

"Aurrerapauso handia emanda, sasoi hasieran ez baikenuen espero horrela egotea. Igoera faserako sailkatzeko aukera ez dugu alferrik galdu, eta hurrengo partidaren bigarren postu hori mantentzen saiatuko gara. Hirugarren Mailara igotzeko, morala altu mantendu beharko dugu".



MIKEL LARBURU
UDA-KO ENTRENATZAILEA

"Oso zail jarri zaigu *play-off*-erako sailkatzeko helburua. Golak egiteko aukerak aprobetxatzen ez badituzu, jai daukazu, eta Agorrosinen hori pasa zitzaigun; bigarren zatian, batez ere. Berdinketa izatea pena izan zen guretzat; onartu behar dugu urduritasunez jokatu genuela".

bigarren, Elgoibar hirugarren eta UDA laugarren. Horiek bakarrik izango lukete Hirugarren Mailarekin amesten jarraitzeko gonbidapena. Berdinduz gero, Elgoibarrek Urolaren aurka ez irabazteko zain gelditu beharko

luke bigarren amaitzeko. Eta galduko balu, Mutrikuk aurre hartuko lioke, eta Elgoibarrek irabaziz gero, ere bai.

Play-off-a jokatu duten zortzietatik bakarrik lortuko du Hirugarren Mailarako txartela.

Euskadikoa irabazita, Espainia mailako ligan domina lortzera

ATLETISMOA Istar Dapenak eta Eneko Carrascalek bihar hasiko dute taldekako txapelketa Realarekin, Iruñean

H.L. ARRASATE

Euskadiko klubaren arteko txapelketan podiumeko koxka handienera igo ziren bi atleta arrasatearrak joan den asteburuan, norbere modalitatean: Carrascalek 15 metroko jauzi hirukoitzarekin eskuratu zuen urrea eta Dapenak, berriz, 5 metro eta 30 zentimetroko pertika-jauziarekin. Euren ekarpena lagungarria izan zen Realarentzat torneoa irabazteko.

Asteburu honetan, ostera, beste erronka bati egingo dio aurre Donostiako klubak. Gizonzkoen kategorian, Aire Zabaleko Espainako Klubaren Txapelketan parte hartuko du, eta elastiko txuri-urdina defendatuko dute bi arrasatearrek. Dapena "inoiz baino hobeto" dago, eta duela bi urte lortutako marka pertsonala ontzen saiatuko da. Carrascalek aipatu du taldearen asmoa



Dapena eta Carrascal. ISTAR DAPENA

"gutxienez brontzea lortzea" izango dela.

Horretarako, biharkoaz gain, beste jardunaldi batean lehiatu beharko dute maiatzaren 15ean. Dena ondo bidean, ekainaren 12ko finaleko zortzi taldeen artean egon nahi dute bi atletek.

Herriarteko torneoa jokatu dute bailarako hiru herrik

ESKUPILOTA Aretxabaleta, Oñati eta Bergara Gipuzkoako herriz herriko gizonzko afizionatuen txapelketa nagusian lehiatuko dira, iazko torneoa bertan behe-ra gelditu ostean. Kadete, gazte eta senior mailetakoko final-zortzirenetakoko kanporaketak maiatzaren 16an eta 23an jokatu dituzte. Aretxabaletak Hernani izango du aurkari,

Oñatik Azpeitia eta Bergarak Astigarraga. Azken hori da, hain justu ere, 2019ko txapel-duna, Azpeitiaren aurka nagusitu baitzen finalean.

2016arekin alderatuz, bederatzi herri gutxiagok hartuko dute parte aurtengo Herriarteko txapelketan. Donostia da, besteak beste, kale egin duten talde horietako bat.

Aurtengo txapelketa nor izango den Gipuzkoako hiriburuko Atano III.a frontoian erabakiko da, ekainaren 26an edo 27an.

Burdinolak domeka eguerdian jokatu du Valladoliden aurka

HOCKEYA Burdinola Irristaketa Klubak urrezko infantil misto kategoriako laugarren neurketa izango du jokoan Bilboko Zorroza kiroldegian, hilaren 25ean, 13:15ean hasita.

Pistako hockeyan diharduten gaztetxoek hiru norgehiagokatan parte hartu dute, oraingoz, eta denetariko emaitzak eskuratu dituzte: hiruna berdindu zuten

Tres Cantosekin, 2-10 irabazi zioten Lobos de Iscarri eta 5-8 galdu zuten Asme Tucansen aurka. Hortaz, bost punturekin, laugarren daude sei taldez osatutako sailkapenean, baina kontuan hartu behar da gainontzeko taldeek baino partiduko gutxiago jokatu dutela, oraingoz.

Domekakoaren ostean, maiatzaren 16an, Metropolitano taldea jasoko du Burdinolak kantxa berean. Atzeratutako neurketa bat ere jokatzeko da Arroyo de la Encomiendarekin.

Haizea Arana, 'señora' bat Aramaioako saioan

Belaunaldien arteko emakume bertsolariak saretzea eta ahalduntzea helburu duen Señora sariketako finalerako txartela eskuratu zuen zapatuan Eskoriatzakoak; bihar Mutrikun jokatuko duten kanporaketan Debagoieneko hiru bertsolari lehiatuko dira

Aitziber Aranburuzabala ESKORIATZA Hainbat emakume bertsolariak eta bertsozale feministek antolatatu dute Bertsozale Elkarteak babesten duen Señora sariketeta. "Bertsolaritza eremu maskulinoa bada, sariketen mundua ere ez da atzean geratzen, eta Señorak asmatu egin du, lehia geureganatzea garrantzitsua baita lehiari ikuspegi ezberdin batetik begiratu nahi badiogu. Halako dinamikak behar-beharrezkoak iruditzen zaizkit. Bertsolaritza oso eremu maskulinoa delako ezinbestekoa da guretzako eremuak sortzea, seguru sentituko garen eta gustura egongo garen eremuak, hain justu", azaldu du Aramaion zapatuan jokatutako kanporaketako irabazletako bat izan zen Haizea Aranak.

Arana eta Artetxe, finalean

Hamalau bertsolari hartuko dute parte sariketan –Debagoieneko bost lagun daude–. Lesakan izango da finala, maiatzaren 8an, baina aurretik bi kanporaketa jokatuta. Aramaioako kultura etxean jokatutako saioan, Eskoriatzako bertsolariak eta Miren Artetxek lortu zuten finalerako txartela. "Ilusio handiarekin joan nintzen saiora, eta nire sentsazioa ez zen aldatu. Kantu-kideek eta antolakun-



Haizea Arana eskoriatzarra Aramaioako saioan bertsoan. XABI URZELAI

tzako kideek asko zaindu ninduten, eta horrek saioaren dinamikan asko lagundu zuela uste dut. Oso gustura aritu nintzen bertsoan, nire estiloan, eta lotsarik gabe. Entzuleekin konektatu egin nuela esango nuke eta ez dago hori baino sentsazio hoberik", dio Aranak.

Umoretik jotzea da sariketaren asmoa, eta hala berretsi zuten Ainhoa Urienek proposatutako gaiak. "Bikainak iruditu zitzaizkidan, uste dut lan handia egin zuela Urienek. Señora kontzeptua barnebiltzen zuten gai askok,

"SEÑORA MODUKO DINAMIKAK BEHAR-BEHARREZKOAK DIRA"

"EZ DAGO ENTZULEEKEN KONEKTATZEA BAINO SENTSATIO HOBERIK"

"BERTSOTAN EGITEKO EREMU OSO SEGURUA DA SEÑORA SARIKETA"

HAIZEA ARANA, BERTSOLARIA

eta horrek grazia egin zidan. Oso gustura egon nintzen saioan, orokorrean. Ni neu gustura nago egin nuen saioarekin, garai hauetan horrelako plaza bat izatea luxu handia da".

Biharko saioa, Mutrikun

